

ESPAZIO PUBLIKOAREN ORDENANTZA

Osoko Bilkuraren akordioz behin betiko onetsia 2010-9-23an
2010-9-27ko BAOn (186. alea) argitaratua
2010-10-16an sartuko da indarrean

2010-05-11

**ESPAZIO PUBLIKOAREN ORDENANTZA
AURKIBIDEA**

ZIOEN AZALPENA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.- OINARRIZKO KONTZEPTUAK, ORDENANTZAREN XEDEA ETA ESPARRUA, ETA UDAL JARDUERA ZUZENDUKO DUTEN OINARRIAK

1. ARTIKULUA.- Bilboko espazio publikoa
2. ARTIKULUA.- Espazio publikoaren erabilerari buruzko oinarrizko kontzeptuak
3. ARTIKULUA.- Ordenantza honen helburua eta esparrua
4. ARTIKULUA.- Bilboko espazio publikoaren erabilera zuzenduko duten oinarriak

II. KAPITULUA.- GAIKUNTZA EMATEN DUTEN TITULUAK ETA PROZEDURAKO ARAUAK

5. ARTIKULUA.- Lizentziak, emakidak eta hitzarmenak
6. ARTIKULUA.- Lizentzien izaera, emateko prozedura, edukia, iraupena, araubide ekonomikoa eta baimendutako pertsonen erantzukizuna
7. ARTIKULUA.- Emateko eta baliogabetzeko prozedura
8. ARTIKULUA.- Administrazioaren emakidak
9. ARTIKULUA.- Baimenak eta emakidak iraungitzea
10. ARTIKULUA.- Hitzarmenak

III. KAPITULUA.- BAIMENEN ESKAKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK

11. ARTIKULUA.- Eskatzaileen ahalmena
12. ARTIKULUA.- Espazio publikoaren okupazioak mugatzea eta seinaleak jartzea
13. ARTIKULUA.- Instalazioak eta altzarien eta instalazioen eredu normalizatuak
14. ARTIKULUA.- Espazio publikoa garbitzea
15. ARTIKULUA.- Hizketakideak zehaztea

II. TITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAN JARDUERA JAKIN BATZUK EGITEKO ARAUAK

I. KAPITULUA.- GIZALEGEZKOAK EZ DIREN SEXU JARDUTEAK ETA PROSTITUZIOA

16. ARTIKULUA.- Gizalegezkoak ez diren sexu-jarduteen eta prostituzioaren definizioa, eta debekua

II. KAPITULUA.- KALEAN LITROAK EDATEA

17. ARTIKULUA.- Kalean litroak edatearen definizioa eta debekua

III. KAPITULUA.- KALEKO MUSIKA

18. ARTIKULUA.- Baimena behar duten musika-emanaldiak
19. ARTIKULUA.- Musika-emanaldi askeak

IV. KAPITULUA.- BESTE JARDUERA ARTISTIKO BATZUK

20. ARTIKULUA.- Askatasunez jarduteko eskakizunak

V. KAPITULUA.- ESPALOIETATIK ETA OINEZKOENTZAKO GUNEETATIK IBILTzea

21. ARTIKULUA.- Espaloietatik eta oinezkoentzako guneetatik ibiltzea

VI. KAPITULUA.- JOLASAK EGITEA

22. ARTIKULUA.- Espazio publikoan debekatuta dauden jolasak

VII. KAPITULUA.- BIDE PUBLIKOAN OBRAK EGITEA ETA SEINALEAK JARTzea

23. ARTIKULUA.- Bide publikoan obrak egitea eta seinaleak jartzea

VIII. KAPITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOA ERA DESEGOKIAN ERABILTzea

24. artikulua.- Espazio publikoa era desegokian erabiltzea

III. TITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAN EGITEN DIREN EKITALDI HANDIAK

KAPITULU BAKARRA.- ANTOLAKUNTZA ETA BAIMENTZEKO ARAUBIDEA

25. ARTIKULUA.- Antolakuntza eta baimentzeko araubidea

IV. TITULUA.- HERRITAR, KULTURA, JOLAS ETA KIROL JARDUERAK ETA ANTZEKOAK

I. KAPITULUA.- AZALPENA ETA MUGAK

26. ARTIKULUA.- Baimena behar duten jardueren azalpena
27. ARTIKULUA.- Jardueren edukia dela-eta dauden mugak
28. ARTIKULUA.- Espazioan duten garapena dela-eta dauden mugak

II. KAPITULUA.- BAIMENA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

29. ARTIKULUA.- Baimenaren eskabideak

30. ARTIKULUA.- Ebazpena

V. TITULUA.- OSALARITZAKO TERRAZAK

I. KAPITULUA.- AZALPENA, BAIMENA ETA MUGAK

- 31. ARTIKULUA.- Terrazaren azalpena
- 32. ARTIKULUA.- Terrazak jartzeko baimena
- 33. ARTIKULUA.- Baimenaren eskaera eta erantsitako agiriak
- 34. ARTIKULUA.- Estalki finkorako proiektua
- 35. ARTIKULUA.- Baimena ematea
- 36. ARTIKULUA.- Terrazen funtzionamendu-aldia edo denbora-eremua
- 37. ARTIKULUA.- Berritzea
- 38. ARTIKULUA.- Muga orokorrak
- 39. ARTIKULUA.- Muga bereziak

II. KAPITULUA.- BAIMENDUTAKO ERABILERAREN BALDINTZAK

- 40. ARTIKULUA.- Ordutegia eta funtzionamendu-arauak
- 41. ARTIKULUA.- Hartuko den azalera mugatzea eta baimena erakustea
- 42. ARTIKULUA.- Instalazioak garbitzea eta apaintzea

III. KAPITULUA.- IBILGAILUEN ZIRKULAZIORAKO DIREN KALEETAKO ESPALOIETAN JARTZEKO BALDINTZAK

- 43. ARTIKULUA.- Luzetarako garapena
- 44. ARTIKULUA.- Okupazioa
- 45. ARTIKULUA.- Alboetako babesak
- 46. ARTIKULUA.- Estalki finkoak
- 47. ARTIKULUA.- Estalkiak jartzeko mugak

IV. KAPITULUA.- OINEZKOENTZAKO GUNEETAN, PLAZETAN ETA ESPAZIO LIBREETAN JARTZEKO BALDINTZAK

- 48. ARTIKULUA.- Oinezkoentzako kaleak
- 49. ARTIKULUA.- Plazak eta espazio libreak
- 50. ARTIKULUA.- Espazio libre bereziak

V. KAPITULUA.- IRIZPIDE ESTETIKOAK

- 51. ARTIKULUA.- Irizpide orokorrak
- 52. ARTIKULUA.- Irizpide bereziak

VI. TITULUA.- KALEZ KALEKO SALMENTA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

- 53. ARTIKULUA.- Kalez kaleko salmentaren azalpena
- 54. ARTIKULUA.- Kalez kaleko salmenta-motak eta Udalaren ahalmenak
- 55. ARTIKULUA.- Udalaren baimena lortzeko eta atxikitzeko eskakizunak
- 56. ARTIKULUA.- Udalaren baimenak eta Kalez Kaleko Saltzaileen Erregistroa sortzea
- 57. ARTIKULUA.- Baimenen indarraldia
- 58. ARTIKULUA.- Instalazioen ezaugarriak
- 59. ARTIKULUA.- Baimenak iraungitzea
- 60. ARTIKULUA.- Saltzaileen eskubideak
- 61. ARTIKULUA.- Saltzaileen betebeharrak

II. KAPITULUA.- ALDIAN BEHINGO AZOKAK

1. ATALA.- BOLUETAKO AZOKA TXIKIA

- 62. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia
- 63. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

2. ATALA.- OTXARKOAGAKO AZOKA TXIKIA

- 64. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia
- 65. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

3. ATALA.- ZORROTZAKO AZOKA TXIKIA

- 66. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia
- 67. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

4. ATALA.- PLAZA BARRIKO AZOKA TXIKIA

- 68. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia
- 69. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

5. ATALA.- AREATZAKO LOREEN AZOKA TXIKIA

- 70. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia
- 71. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

6. ATALA.- SANTIMAMIKO AZOKA TXIKIA

72. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia

73. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

7. ATALA.- BAIMENAK LORTZEA

74. ARTIKULUA.- Baimenak lortzea

75. ARTIKULUA.- Postu hutsak sortzea eta esleitzea

III. KAPITULUA.- NOIZBEHINKAKO AZOKAK

1. ATALA.- HITZARMEN BIDEZ ANTOLATUTAKO NOIZBEHINKAKO AZOKAK

76. ARTIKULUA.- Santo Tomaseko azoka

77. ARTIKULUA.- Liburu-azokak

78. ARTIKULUA.- Eskulangintza-azoka

79. ARTIKULUA.- Azoka txiki eta merkatu bereziak

2. ATALA.- LEHIA BIDEZ ANTOLATUTAKO NOIZBEHINKAKO AZOKAK

80. ARTIKULUA.- Eguberrietako azoka txikia

81. ARTIKULUA.- Aste Nagusiko azoka txikia

82. ARTIKULUA.- Erljio-jaiak direla-eta izaten den kalez kaleko salmenta

3. ATALA.- NOIZBEHINKAKO BESTE SALMENTA BATZUK

83. ARTIKULUA.- Barruti edo auzoetako jaiak direla-eta izaten den kalez kaleko salmenta

84. ARTIKULUA.- Barazki-frutako, eskulangintzako eta bestelako noizbehinkako azoka txikiak

IV. KAPITULUA.- SASOIKO POSTU FINKOAK

85. ARTIKULUA.- Izozkien, txurroen, gaztainen eta beste elikagai batzuen salmenta

VII. TITULUA.- BIDE PUBLIKOAN IZATEN DIREN BESTE SALMENTA MOTA BATZUK

86. ARTIKULUA.- Jolas-makinen eta gaien salmenta automatikoa

87. ARTIKULUA.- Izaera finkoa duten saltokien hedapenak

88. ARTIKULUA.- Noizbehinkakoak diren saltokien hedapenak

VIII. TITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAREN BESTE OKUPAZIO BATZUK

I. KAPITULUA.- EDUKIONTZIAK JARTZEA ETA LAN HONDAKINAK ATERATZEA

89. ARTIKULUA.- Azalpena

90. ARTIKULUA.- Baimena eta motak

91. ARTIKULUA.- Urteko baimenaren eskabideak

92. ARTIKULUA.- Baimen berezien eskabideak

93. ARTIKULUA.- Urteko baimena ematea

94. ARTIKULUA.- Baimenaren eta erabilera bereziaren baldintza orokorrak

95. ARTIKULUA.- Edukiontzien baldintzak

96. ARTIKULUA.- Edukiontzien kokapena

II. KAPITULUA.- OBRETAN LAGUNTZEKO DIREN OSAGAI BATZUK JARTZEA

97. ARTIKULUA.- Obretako etxolak

98. ARTIKULUA.- Bestelako osagaiak

III. KAPITULUA.- APARKALEKUA ERRESERBATZEA

99. ARTIKULUA.- Aldairak

100. ARTIKULUA.- Baimen bereziak aldairak egiteko

101. ARTIKULUA.- Berogailuetarako erregaien hornidura

102. ARTIKULUA.- Aparkatzeko beste erreserba batzuk

103. ARTIKULUA.- Aparkalekuen erreserbetan seinaleak jartzea

IX. TITULUA.- PUBLIZITATEKO JARDUERAK, DOAKO PRENTSA, IKUS-ENTZUNEZKO JARDUERAK, ESKEAK ETA ANTZEKOAK

I. KAPITULUA.- PUBLIZITATEKO JARDUERAK

104. ARTIKULUA.- Merkataritzako publizitate-jarduerak

105. ARTIKULUA.- Merkataritzakoak ez diren publizitate-jarduerak

106. ARTIKULUA.- Araubide ekonomikoa

II. KAPITULUA.- DOAKO PRENTSA BANATZEA

107. ARTIKULUA.- Azalpena eta baimena

108. ARTIKULUA.- Baimenen indarraldia eta jardueraren kokapena

109. ARTIKULUA.- Baimenaren baldintzak

III. KAPITULUA.- IKUS-ENTZUNEZKO JARDUERAK

110. ARTIKULUA.- Azalpena eta baimena

111. ARTIKULUA.- Eskaera

IV. KAPITULUA.- BEHIN-BEHINEKO INFORMAZIOKO INSTALAZIOAK ETA ESKEAK

112. ARTIKULUA.- Azalpena eta baimena

X. TITULUA.- OKUPAZIO IRAUNKORRAK EDO IRAUPEN LUZEKOAK

I. KAPITULUA.- BAIMENAREN BIDEZ LORTUTAKO OKUPAZIO IRAUNKORRAK

113. ARTIKULUA.- Okupazio iraunkorrerako baimena zuzenean emateko kasuak

114. ARTIKULUA.- Okupazio iraunkorrerako baimena lehiaketa bidez emateko kasuak

II. KAPITULUA.- EMAKIDA BIDEZ LORTUTAKO OKUPAZIO IRAUNKORRAK

115. ARTIKULUA.- Jabari-emakida emateko kasuak

116. ARTIKULUA.- Lehiaketa bidezko emakidak

117. ARTIKULUA.- Zuzeneko emakidak

XI. TITULUA.- IKUSKATZEKO ERREGIMENA, ZEHAPENAK EZARTZEA ETA ZEHATZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA.- IKUSKATZEKO ZERBITZUA

118. ARTIKULUA.- Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzua

119. ARTIKULUA.- Ikuskatzeko Zerbitzuaren jardura

120. ARTIKULUA.- Salgaiak, instalazioak eta bestelako gaiak atzematea

II. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEAK EZARTZEA ETA ARDURADUNAK

121. ARTIKULUA.- Arau-hausteen motak

122. ARTIKULUA.- Arau-hausteen erantzuleak

123. ARTIKULUA.- Arau-hausteak direla-eta egindako kalteen erantzukizuna

124. ARTIKULUA.- Arau-hauste arinak

125. ARTIKULUA.- Arau-hauste larriak

126. ARTIKULUA.- Arau-hauste oso larriak

III. KAPITULUA.- ZEHAPENAK ZEHATZEA

127. ARTIKULUA.- Zehapenen zenbatekoa eta haien graduazioa

128. ARTIKULUA.- Zehapenak finkatzea

129. ARTIKULUA.- Zehapenen xedea

IV. KAPITULUA.- ZEHATZEKO PROZEDURA, ZEHAPENA BETEARAZTEA ETA PRESKRIPZIOA.

130. ARTIKULUA.- Zehatzeko prozedura

131. ARTIKULUA.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

132. ARTIKULUA.- Zehapena betearaztea

V. KAPITULUA.- ZEHAPENAK KENTZEA

133. ARTIKULUA.- Zehapen jakin batzuk kentzea

134. ARTIKULUA.- Zehapenak kentzeko prozedura

VI. KAPITULUA.- BAIMENAK BALIOGABETZEA ETA BAIMEN BERRIRIK EZ EMATEA

135. ARTIKULUA.- Baimenak baliogabetzea eta baimen berririk ez ematea

XEDAPEN GEHIGARRIAK

XEDAPEN IRAGANKORRAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

AZKEN XEDAPENA

0 ZENBAKIKO ERANSKINA.- KARPAK JARTZEKO BALDINTZAK ETA MUNTATZE LANA

1.- KARPEK ETA TXOSNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

2.- KARPAK ETA TXOSNAK MUNTATZEKO ZIURTAGIRIAREN EREDUA

1. ERANSKINA.- JANARI ARLOKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZA

1.- OSTALARITZAKO BEHIN-BEHINEKO ETA/EDO ALDI BATERAKO INSTALAZIOAK JARTZEKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK (OSTATU ITXURAKO JATETXEAK, TXOSNAK, TALDEKO JANTOKIAK, IZOZKIAK, TXURROAK, GAZTAINAK, GOZOKIAK ETA ANTZEKO GAIK SALTZEKO POSTUAK, ETA ELIKAGAIK, BARAZKI-FRUTAK ETA ESKULANGINTZAKO PRODUKTUAK SALTZEKO POSTUAK)

2.- BEHIN-BEHINEKO EDO ALDI BATERAKO ELIKAGAIKO JARDUERAK JARTZEKO

OSASUN TXOSTENA

2. ERANSKINA.- KALEZ KALEKO SALMENTAREN PLANOAK - ALDIAN BEHINGO AZOKA TXIKIEN KOKAPENAREN PLANOAK

- 1.- Boluetako azoka txikia
- 2.- Otxarkoagako azoka txikia
- 3.- Zorrotzako azoka txikia
- 4.- Plaza Barriko azoka txikia
- 5.- Areatzako loreen azoka txikia
- 6.- Santimamiko azoka txikia

3. ERANSKINA.- APARKATZEKO ERRESERBA BEREZIAK, GALTZADA ETA TRAFIKO ETENALDIAK, EDUKIONTZIEN KOKAPENA ETA BESTELAKO GAIK AZALTZEN DITUEN KROKISA

ZIOEN AZALPENA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen araudiak ezarri dutenaren babesean, Ordenantza honek arautuko ditu Bilboko hiriko espazio publikoaren erabilera desberdinak –hau da, udal-jabari publikoko bideen eta espazio publikoaren erabilerak– eta, orobat, udal-mugartean dauden, eta beste administrazio publiko batzuen jabarikoak edo titulartasun pribatukoak diren bestelako espazioak, betiere, oro har, herritarren erabilera publikoari lotuta badaude.

Arautzearen bidez, ahalik eta modurik argienean eta errazenean antolatu nahi dira espazio publikoaz egin daitezkeen erabilerak, bereziki, aprobetxamendu bereziko erabilerak, edo haren erabilera pribatiboa, hartara, espazio publikoaz guztiok egiten dugun erabilera hobeto babesteko. Espazio publikoa pertsona guztiei era berean eta bereizkeriarik egin gabe dagokien espazioa da; eta ondasunen izaeraren, erabilera publikoari lotutako ekintzen, eta ezarri beharreko xedapenen arabera erabiltzen da, arrunki herritarren bizikidetzako eta heziketako araurik oinarritzkoenak jasotzen dituzten udal-ordenantzen arabera. Hala, bada, argi dago erabilera bereziak eta pribatiboak arautzen baditugu, eta, horrekin batera, era zentralizatuan kudeatzen baditugu, dagokion kalitatearen neurria lortuko dugula, Bilboko espazio publikoko guztion erabilera edo erabilera orokorrak behar duena, eta balio hori oinarritzkoa da Udal honentzat.

Dena dela, zehaztapen batzuk ezarri behar ditugu araudietan, Bilboko Espazio Publikoaren Guztion Erabilerari buruz, espazio publikoa babesteko, herritarren bizikidetzako gune gisa gordetzeko, eta bilbotarrek mendeetan erakutsi izan duten gizatasunaren leku eta espazio publiko hori erabiltzen duten herritar guztien toki modura zaintzeko. Zehaztapen horien bidez, espazio publikoaren gizalegezko erabilera sustatu nahi da, herritarrei gai horri buruzko informazioa emateko eta sentikor bihurtzeko kanpainak eginez. Ildo horretan, Udaleko gizarte-zerbitzuek laguntza emango liekete ahulenak diren herritarren taldeei, eta alde batera utziko litzateke lehen neurri gisa zehapenak jartzeko ahalmena. Gizalegezko balioak indartuko dituen udal-jarduera honen bidez, hiri adeitsuagoa eta atseginagoa lortu behar dugu ezinbestez, hala bertokoentzat nola bisitarientzat. Era berean, herritarrek bizitza-kalitate gehiago izango dute, kalitatezko espazio publikoa izango baitute une oro eskura gozamina hartzeko, eta, horrenbestez, espazio publikoak berez duen helburua gauzatuko da. Kaltegarriak diren edo gizalegezkoak ez diren jokabideak errotik kentzeko, esandakoa bete behar da, hau da, heziketa eta herritarren gizalegezko sentsibilizazioa sustatu behar dira. Era berean, debekuak ezarri behar dira, agintaritzaren agenteak aritu daitezzen, eta zehapenak jarri behar dira, zuzen edo zeharka, jokabide horiek zuzentzeko eta gainerako herritarrengan dituzten ondorio txarrak ezabatzeko. Guztion Erabileraren arloan, lehen esan dugunez Udalak herritarren bizikidetzarako eta ekintzarako gune gisa aintzat hartzen duen horretan, ondo bermatu behar da lasaitasun, segurtasun eta irisgarritasun arloko baldintzak egokiak izango direla, bai eta gunearen egoera ezin hobea ziurtatzeko behar diren bestelako baldintzak ere. Hortaz, gutxieneko zehaztapenak finkatu behar dira, guztion erabileran dituzten ondorio kaltegarrien eraginez herritarren gustukoak ez diren erabilerak zehazteko. Hain zuzen, zera eman nahi dugu aditzera: espazio publikoa erabiltzea sexu-zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko ([prostituzioa](#)), litroak edatea, musika eta arte-jarduerak egitea, jolas arriskutsuak edo gogaikarriak egitea, edota oinezkoentzako bideetatik bizikletaz edo antzeko beste tramankulu batzuek ibiltzea. Argi dago jokabide guztiek ez dutela gaitzespen berbera jaso behar, haietako bakoitzak guztion erabileran duen ondorioa aski desberdina baita. Horrenbestez, aztertu diren arau-aurreikuspenen irismena desberdina da. Alde batetik, musika- eta arte-jardueren arloan garapen askea bultzatu nahi da, baldintza jakin batzuk zehaztuta, eta, nolana ere, baimena izateko beharrezana kenduta. Bestetik, herritarrek gaitzetsitako erabileren debekua jarri nahi da, hala nola, sexu-zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko. Azkenik, espaloi eta udal-guneetatik ibiltzeko dagoen udal-araudia argitu nahi da, eta ordenantza honetan paratu nahi da kalean litroak edateari buruz eta jolas arriskutsuak egiteari buruz ezarrita dagoena.

Bilbotar eta, oro har, herritar guztion erabilera berezko hori izateaz gain, Bilboko espazio publikoak helburu desberdinetako erabilera asko ditu, eta guztion erabilera oro har horri daude loturik, batetik, erabilera bereziek duten sakontasuna, arriskua edo onura ekonomiko berezia direla-eta, eta, bestetik, erabilera pribatiboekin espazioa hartzen delako, guztion erabileratik kenduz. Hortaz, arrisku larria izan daitezke guztion erabileraren kalitateari begira, eta udal-irizietan lehenetasuna izan behar duena, hain zuzen, guztion erabilera da. Izan ere, espazioa arautzeko, espazioa herritarrentzako ezinbesteko gune gisa ikusita eta hiriaren arimaren ispilu

fidel modura hartuta, abiaburutzat hartu behar dugun oinarri edo helburu nagusia da egon daitezkeen erabilera guztiak harmonizatzea eta modu ezin hobean batera biltzea. Erabilera horien artean, orain arte aipatutakoez gain –erabilera komuna, erabilera berezia eta erabilera pribatiboa–, ez dugu ahaztu behar Udalak espazio publikoaz egiten duen erabilera: hala egiten diren zerbitzu publikoei loturik dauden zerbitzu teknikoak bidez egiten diren erabilerak, nola Udalaren beste jarduera batzuk, horiek egiteko lekurik egokiena espazio publikoa baita –baina, bidezkoa denez, jarduera horiek ez dira ordenantza honen helburua–. Bestalde, ordenantzak ez ditu aintzat hartzen Hirigintzako Lizentzien Ordenantzaren jasota dauden obrako osagai lagungarrietarako dauden lizentziak, ez zulo eta kanalizazioetarako lizentziak, ez taxiatarako lizentziak, ez eta pasabideetarako lizentziak ere, horiek dagokien ordenantzaren baitaude araututa.

Udal honek modu zentralizatuan kudeatuko du espazio publikoa, eta, horrenbestez, komenigarria da espazio publikoaren erabilera arrazionalizatzeko helburua adieraziko duen arau egokia izatea. Helburu hori lortzeko, gaur egun indarrean dauden arauak bateratu behar dira. Arau horiek ikuspegi sektorialetatik atera dira, espazio publikoaren hainbat erabilera aztertzen dituzte, eta hainbat ordenantzetan daude jasota; hona ordenantzak: **Terrazak eta mahaitxoak jartzeko ordenantza**, ostalaritzan hain ohikoak diren instalazio horiek arautzen dituena; **Garbiketari buruzko ordenantza**, edukiontziak eta publizitateko osagai jakin batzuk –banderaxkak eta pankartak– jartzeko modua arautzen duena; **Zirkulazioko Ordenantza**, bide publikoan jarduerak egiteko, instalazioak jartzeko, bidea okupatzeko, obrak eta zerbitzuak egiteko, edukiontziak jartzeko, etxe-aldaira izateko, eta kirol-probak, kultura-ekitaldiak, herriko jaiak eta antzeko jarduerak antolatzeke dena; **Kaleko salmenta arautzen duen ordenantza**, merkataritzako saltoki finkoetatik kanpo egiten diren salmenta-mota guztiak arautzen dituena; **Kalean litroak edateko ohitura galarazteko tokiko ordenantza**, jarduera hori debekatzeko duena; eta, azkenik, **Hirigintzako lizentziak arautzen dituen ordenantza** eta izapideak, bide publikoan obrako osagai lagungarri jakin batzuk eta instalazio iraunkorrak arautzen dituztenak. Jaietako Ordenantza ez da barne hartu, gertakari bati dagokiolako, hain zuzen, hiriko eta auzoetako jaiak dagokielako; eta jaiak diren bitartean izaten diren erabilerak oso bereziak dira, eta denbora aldetik garrantzi gutxi dute. Hori gorabehera, Ordenantza honetan jaso ditugun arau-hausteen eta zehapenen koadroa egokia izan daiteke jaiak ere ezartzeko. Hala ere, arau aldetik dagoen zeregina ez da arauak bateratzeko lana soilik, honezkero araututa dauden erabilera berezi era pribatibo guztiek batera duten zatia lortzeko. Horrez gain, araudiaren aldaketak jaso behar dira, nahiz eta garrantzi handikoak ez izan, erabileren araubide juridikoa eta praktikoa eta, hortaz, Udalaren kudeaketa hobetzeko helburu hutsez egindako aldaketak baitira. Hala, guztiona den araubide juridiko orokorra ezarri da, Udalarari ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmena ematen diona, eta, horrez gain, aurrez zegoen araudia argitu da, zehazki, alderdi hauek: espazio publikoan egin daitezkeen kultura-, kirol-, aisialdi-arloko edo antzeko ekitaldiak edo gertakariak, bakoitzak bere neurri eta garrantzi bereziarekin; kalez kaleko salmenta, bere modalitate guztietan: aldi behingo azoka txikiak, noizbehinkakoak, sasoiko postu finkoak edo postu bereziak; hiriko ostalaritzako establezimenduetako titularrek terrazak edo antzeko osagaiak jartzea; obrako edukiontziak edo obrako hondakinak jartzea; aparkalekuen erreserba bereziak edo zehatzak; eta beste jarduera batzuk, hala nola, kartelak, banderaxkak eta pankartak jartzea. Bestalde, araudi berriak finkatu dira erabilera berezietan buruz, esate baterako, doaneko prentsaren banaketak, eskeei, publizitate dinamikoari, edota bide publikoa zinemagintzako eta publizitateko filmazioetarako toki gisa erabiltzeko buruzkoak, bide publikoa saltzeko eta olgetarako makina automatikoekin hartzekoak, une zehatz batean edo etengabe saltokiak hedatzekoak, edota kioskoak –ostalaritzakoak, prentsakoak edo ONCErenak– telefono-kabinak, postontziak, seinale iraunkorrak eta publizitate-ekoizpenari eta antzekoei lotutako zerbitzuak jarriz bide publikoa etengabe hartzeko direnak.

Lehen esan dugunez, ordenantzak jaso dituen espazio publikoaren erabilerei buruzko agindu jakin batzuk espazio publikoaren erabilera arruntak edo erabilera bereziak direla esan daiteke –esate baterako, emanaldi artistikoak (kaleko musika, mimoak, eta abar), profesionalak (sexu-zerbitzuak eskaintzea eta eskatzea), edo erabilera arrunta argia izan arren haien mugak argitze aldera arautu behar direnak, edota araudi bat behar dutenak (jolasak, oinezkoen bideetatik ibiltzea, etab.), zenbait pertsonaren aurrean baliatzeko, bestela, pertsona horiek beti babestu ahal izango baitira arau ezan beren jokabide ez legezkoak babesteko. Hala ere, lehen esan dugunez, erabilera horietako askok udal-araudian (kalean litroak edatek, kaleko musika, jarduera artistikoak, jolasak egitea) edo Udalez gaineko araudian jasota daude (oinetako bideetatik ibiltzea), baina beste erabilera batzuk berriak dira (sexu-zerbitzuak eskaintzea eta eskatzea).

Proposatzen den araudiak laburra, zehatza eta oso argia izan nahi du. Araudiaren oinarrian, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeak erabilera publikoko ondasunen kudeaketan egin dituen berrikuntzak eta, orobat, oinarri gidari hau daude: Bilboko bide eta espazio publikoetan egiten diren erabilera berezi eta pribatibo guztiek horretarako gaitzen duen udal-titulua edo BAIMENA eduki beharko dute aurretiaz, aipatutako legeak 84. artikuluan ezarritakoari jarraiki, BILBOKO UDALA baita ondasun horien titularra, ondasun horiek legez lotuta baitaude erabilera arrunt orokorrari, eta haiek zaintzea eta mantentzea Udalaren erantzukizuna baita. Udalarenak ez diren erabilera publikoko espaziotan esku hartzeko, Udalak toki-araubidearen arloan dituen eskumenak eta, orobat, sektoreko araudietan jasota daudenak hartu behar dira aintzat, bai eta erabilera publikoko espazio horien egoera bera ere, udal-administrazioak ondo zaindu behar baitu gune horiek zuzen erabiliko eta babestuko direla. Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legean ezarritakoa hartu da kontuan, bereziki, abenduaren 17ko 7/2003 Legeak gaineratu zuen XI. Titulua, gizalegezkoak ez direlako espazio publikoaren erabilera arruntaren babesarekin bateraezinez diren erabilera jakin batzuk arautzeari dagokionean.

Araudiaren irismena mugatu behar da, erabilera bakoitzaren oinarriko araubide juridikoa ezartzera, bereziki, behar diren baimenak eskuratzeko prozedurari dagokiona. Izan ere, baimen bakoitzaren eduki juridikoa bera baimen bakoitzak bete beharko dituen baldintzen artean jasoko da, iritziaren arabera den arlo batean bidezkoa eta normala denez, une bakoitzean aintzat hartu behar diren era guztietako inguruabarrak direla-eta. Horrek ez du esan nahi, eta halaxe egiaztatuko da ordenantza aztertuta, era berdinean ezarriko denik aintzat hartu diren erabilera guztietan. Nolanahi ere, iritziaren arabera jarduera, neurri batean, irizpide batzuei loturik egon daiteke, eta irizpide horiek aintzat hartuz gero, iritzi egokia egin behar da erabilera bakoitzean dauden interes pribatuak eta publikoak haztatzeari buruz; hona hemen zein diren irizpide horiek: alderdi ekonomikoan, hiriaren proiektioak, eta bide eta espazio publikoen baldintzak hobetzeak hiriari ekarri ahal dizkion **ONURAK**, hasieran jardueraren tamaina eta garrantziaren arabera izan arren kasu guztietan agertzen direnak; jarduerak eta erabilerak herritarrentzat duen **AFEKZIOA** eta onurekin duen zerikusia; jardueraren edo erabileraren ondorioz erabiliko diren **UDAL BALIABIDEAK**, besteak beste, BILBOKO ESPAZIO PUBLIKOA bera; eskatzaileekin izandako aurreko **ESPERIENTZIAK**; okupazioaren **IRAUNALDIA** eta egiteko **ORDUTEGIA**; eskatzaileen **TIPOLOGIA**, eta egin nahi den jardueraren irabazizko asmoarekin duen zerikusia; eta Udaleko arloek eta zerbitzuek duten **IRITZIA**. Irizpide horiek guztiak hartu beharko dira kontuan baimena erabakitzerakoan edo eskabideei ezetza ematerakoan. Bestalde, erabaki hori oro har iritziaren arabera administrazio-egintzaren paradigma da, batez ere, "gertakizunak" izenpean sartzen diren erabileren tipologiari dagokionez. Zentzuzkoak denez, erabakiak Udalak baizik ez ditu hartzen, hain zuzen, eskumena duen udal-agintariak edo -organoak. Hala ere, espazio publikoaren erabileretako asko, ohikoak edo arruntak direnez, araudi sakon eta zehatz baten mende jarri ahal dira –terrazak, edukiontzia, aparkatzeko erreserbak–; eta, beraz, araututako erabakien mende jarri ahal dira, hau da, Udalaren erabakiaren emaitza aurrez argi eta garbi finkatuko duten araudiko parametroei loturik. Hori gorabehera, eskatzaile bakoitzari buruzko ebazpena ematean, tartean dauden era guztietako inguruabarrak hartuko dira aintzat.

Bidezkoa denez, Udalaren jarduera eraginkorra izan dadin, Ikuskatzeko Zerbitzu indartsua izan behar du oinarrian, zerbitzu horrek zainduko baitu espazio publikoa zuzen erabiltzen den, eta, horretarako, ondo egiaztatuko baitu gaikuntza ematen duten tituluak, eta tituluak emateko ezarri diren baldintzak betetzen diren. Era berean, baimenduta ez dauden aprobetxamenduak berehala bertan behera uzteko eskatuko du, eta, hala behar denean, zehatzeko espedienteak abiaraziko ditu, eta salaketa egokia egingo du. Ikuskatzeko Zerbitzu horrek Udalaren begirune osoa du. Zerbitzua osatzen dutenek agintaritzaren agenteen moduan jokatzeko dute, eta beren ikuskaritzako aktak eta salaketak egiaztatzeko proba objektiboaren benetako egintzak dira, aski baitira baimentzen diren espazio publikoaren okupazio zehatzetan aurkitzen dituzten akatsak zuzentzeko errekerimenduak sorrarazteko, titulurik gabe hartutako espazio publikoa ofizioz eta berehala berreskuratzeko behar diren errekerimenduak sorrarazteko, edota, azkenik, zehatzeko prozedurak abiarazteko, dagozkion zehapenak arin, baina arau-hauslearen eskubideak zorrotz zainduz, ezartze aldera. Alabaina, Udalak zehatzeko duen ahalmen hori azken irtenbidea izango da espazio publikoaren erabilera bereziak eta pribatiboak era egokian antolatu eta kudeatu ahal izateko. Jakina, Ikuskatzeko Zerbitzuaren jarduera hori egin aurretik, Udalak etengabeko informazio-lana egin behar du. Horrek, ziurren, onura handiak ekarriko ditu, ordenantza ezin hobeki bete dadin, eta, hartara, zehatzeko ahalmena saihestu ahal izateko, hori azken irtenbide gisa baliatu behar baita.

Ordenantzak XI titulu ditu. Lehen tituluaren izena “Xedapen orokorrak” da. Haren lehen kapituluan Bilboko espazio publikoa definitzen du, gaiaren oinarritzko kontzeptu juridiko batzuk biltzen ditu, arauaren xedea eta ezartzeko eremua adierazten ditu, eta, era berean, Udalaren jardura arautuko duten oinarriak zehazten ditu. Bigarren kapituluan, ondokoak daude zehaztuta: erabilera publikoko ondasunen erabilera berezia eta pribatiboa gauzatzeko baliatu ahal diren tresna juridikoak; eta prozedura erkidearen oinarritzko arauak. Horien oinarriak Udalaren eta izan daitezkeen erabiltzaileen arteko elkarrekiko konfiantza, eta, halaber, izapideak egiteko arintasuna eta eraginkortasuna izango dira. Egoera horretan, Udalak izango du nagusitasuna; eta erabiltzaileei, alde batetik, behar den informazioa emango zaie, eta izapideak denik eta modurik erosoenean eta arinenean egingo zaizkie, baina, bestetik, haien asmoei buruzko informazioa eskatuko zaie, eta erantzukizuna hartzeko ere bai –berdin dio bermeak eta erantzukizuneko aseguruak eskatzen diren edo ez–. Lankidetzarik egon ezik, zentzuzkoa denez, eskatzaileari ezezkoa emango zaio, eta horretarako administrazioaren isiltasuna ere erabili ahal izango da. Bestetik, hirugarren kapituluan, erabilera guztietan aintzat hartu behar diren baldintza orokorrak daude zehaztuta, hala erabilerari eutsiko dion espazio publikoan izan daitezkeen kalteei dagozkien erantzukizunak, nola baimendutako jardueren ondorioz hirugarren pertsonen edo haien ondasunei eragindakoa. Horrez gain, zehaztapenak jaso dira espazio publikoa zedarrizteko eta seinaleak jartzeko, eta, orobat, baimendutako pertsonen eta Udalaren artean harreman estua ezartzeko.

Hurrengo tituluetan, espazio publikoa erabiltzeko ohiko kasuak arautu edo, hobeto esan, zerrendatu dira, eta, horrez gain, haiei buruzko ikuspegi generikoa ezarri da, eta, hortaz, aurrez ezar daitezkeen erabilera bereziak edo pribatiboak aipatu dira. Hori gorabehera, espazio publikoaz egin nahi diren erabilera guztiak baimenaren edo emakidaren mende egongo dira, berdin dio erabilera hori Ordenantza honen tituluen artean tipifikatuta dagoen, eta, bereziki, I. Tituluaren 5. artikuluan berariaz jasota dagoen, edo ez.

Hain zuzen, II. Tituluan jasota dauden zehaztapen batzuk espazioan egindako jardura jakin batzuei buruzkoak dira, eta horiek espazio publikoaren erabilera arruntaren perbertsioak edo aldaketak direla jo da, espazio horrekin gizalegezkoa eta begirunezkoa den erabileraren ikuspegitik hartuta, edo ia erabilera bereziak edo erabilera berezi hutsak direla jo da. Erabilera horien artean, besteak beste, honako hauek ditugu: sexu-zerbitzuen eskaintza eta eskaera, kalean litroak edatea, bide publikoan obrak egitea eta horren seinaleak jartzea. Guztiz egokia da erabilera horiek arautzea, edo oraingo arau sektorialetatik sartzea, adibidez, kalean litroak edateko ohitura. Era horretan, hobeto zainduko ditugu herritarrak, erabilera horrek eragin ditzakeen eragozpenetatik. Izan ere, gaur egun, araututa ez daudelako –sexu-zerbitzuak eskaintzea edo eskatzea, eta oinezkoen guneetatik eta espaloietatik ibiltzea–, edo arau hori oso laxoa delako –jolasak egitea eta obrak egitea–, edota arauak betetzen ez direlako –Udalarenak diren eta harenak ez diren obretan seinaleak jartzea–, kontua da egoera asko hobetu ahal izango litzatekeela. Azkenik, bakarrik adierazi behar dugu obretako seinaleak jartzeari buruzko araudiak gehitzen dituela bide publikoetako obrak baimentzen dituzten lizentzia guztiek bete behar dituzten baldintzak, edota udal-zerbitzuak eta -obrak egiteko lanak arautzen dituzten baldintzen pleguak, eta, beraz, hori betearazteko, tresna horiexek baliatu ahal direla. Alabaina, proposatzen dugun araudia, gutxieneko araudi gisa, plus bat da kalitateko espazio publikoa lortzeko Udalak duen helburua eskuratze aldera. Gero, III. Tituluan, “Gertakizun handiak” agertzen dira. Erregulazioan, jarraibide orokorrak jaso dira, hiriek hedatze turistikoa izan dezaten, gero eta sarriago egiten diren gertakizun horiek egiteko. Horren ondoren, IV. Tituluan, espazio publikoan egin daitezkeen “Herritar-, kultura-, jolas- eta kirol-jarduerak” bildu dira. Indarrean dagoen Zirkulazioari buruzko Ordenantzan jardura horiei buruz dauden arauak bete behar dituzte, egokitzen jo diren kontuak gehituta edo ezabatuta, eta “ikuskitzen publiko eta jolas-jardueren” arloan indarrean dagoen autonomia-erkidegoko araudia aintzat hartuta. Bestalde, V. Titulua ostalaritzako terrazetako buruzkoa da. Indarrean dagoen terrazetako udal-ordenantza hartzen du abiaburutzat. Aldaketaren bat sartzeko baimenen iraupenean eta indarraldian, funtzionamenduko ordutegian, horretarako ahalmena duen ostalaritzaren esparruan, eta, orobat, terrazak jartzeko baldintzetan. Era berean, artikulua batzuk ezabatzen ditu, izaera orokorreko xedapentzat hartzen baititu, eta, beraz, erabilera guztietarako balio baitute. Jarraian, VI. Titulua kalez kaleko salmentari buruzkoa da. Indarrean dagoen ordenantza aintzat hartuta, legeak eskatzen dituen zehaztapenak egiten ditu, aldi behingo azoka txikiei dagokienez, eta argi azaltzen ditu postuak esleitzeko sistemak, hala aldi behingo eta noizbehinkako azoka txikietan, nola sasoiko merkatuetan eta merkatu berezietan. Horren ondoren, VII. Tituluan, bide publikoan egiten diren beste salmenta-kasu batzuk bildu dira, esate baterako, salmenta automatikoa, jolas-makinak jartzea eta saltokiak hedatzea; azken kasu

horretan, dagokion araudia behar da. Gero, VIII. Titulua espazio publikoan jartzen diren hainbat instalaziori buruzkoa da; besteak beste, obra-hondakinetako edukiontzia, obretako beste osagai lagungarriak, eta hainbat helburutarako –etxe-aldairak, hornidurak egiteko, etab.– erreserbatutako aparkalekuak agertzen dira. Bestalde, IX. Tituluak publizitateko jarduerak, doaneko prentsaren banaketa, ikus-entzunezkoen filmazioa, eskeak eta informazioko mahaiak aztertzen ditu. Gero, X. Tituluan, espazio publikoaren iraupen luzeko okupazioak edo okupazio iraunkorrak agertzen dira. Azkenik, XI. Tituluak Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzua, Arauhausteen eta Zehapenen Araubidea, eta zehatzeko prozeduraren berezitasunak jasotzen ditu. Oso ugaria den araudi sektoriala alde batera utzita, hori finkatu behar da, 7/1985 Legeak 139.etik 142.era bitarteko artikuluetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarri dutenari jarraiki, hurrenez hurren.

Bestalde, aipatu behar da Ordenantza prestatu dela zerbitzuak egiteko eta jartzeko askatasunari buruzko 2006/123/EE Zerbitzuen Zuzentarauak finkatu duenari jarraiki. Hala, bada, zuzentarau horren eta bera lekualdatzeko barne-araudiaren oinarriak eta arauak bete dira. Baimenak emateko teknikari eusten zaio, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legeak 6. eta 84. artikuluan ezarri duenari jarraiki; era berean, administrazioaren isiltasunari eusten zaio, “Omnibus Legeak” 30/1992 Legearen 43. artikuluan egiten duen aldaketa betez. Arreta berezia jarri da espazio publikoa beren zerbitzuetako jarduerarako euskarri nagusi gisa baliatzen duten egileei –ostalariei, kalez kaleko saltzaileei, etxe-aldairak eta hornidurak egiten dituzten enpresei, eta edukiontzien enpresei– eskatu ahal zaizkien gutxieneko baldintzak bermatzeko, espazio publikoaren urritasuna eta muga oinarri nagusi gisa hartuta, hori dela-eta, zenbait kasutan eman daitezkeen baimenen kopurua mugatu behar izaten baita. Hori gertatuz gero, ondo bermatzen da baimena ematean zorrotz beteko direla partzialtasun ezaren eta gardentasunaren oinarriak, eta, orobat, baimenen iraupena mugatuta egongo dela, ez direla era automatikoan berrituko, eta baimena uzten duen egileak edo harekin zerikusia duten pertsonak ez dutela inongo abantailarik izango. Ahalegina egin da erkidegoko araudiaren aurkakoak diren baldintzak alde batera uzteko. Era berean, ezartzen diren baldintzak ez dira bereizkeriazkoak izango, beharrezkoak, neurrikoak, argi eta garbiak, objektiboak, gardenak eta eskuragarriak izango dira, eta argitara emango dira aurretiaz. Azkenik, administrazioiko izapideak ahalik eta gehien laburtu nahi dira, eta, horretarako, beharrezkoak ez diren izapideak ezabatuko dira, espazio publikoa erabiltzea errazagoa izan dadin.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.- OINARRIZKO KONTZEPTUAK, ORDENANTZAREN XEDEA ETA ESPARRUA, ETA UDAL JARDUERA ZUZENDUKO DUTEN OINARRIAK

1. ARTIKULUA.- Bilboko espazio publikoa

Bilboko espazio publikoak barne hartzen ditu kaleak, bideak, zirkulazioko bideak, plazak, hiribideak, parkeak, lorategiak, berdeguneak, basoak, zubiak, tunelak, lur azpiko pasabideak, aparkalekuak, iturriak, urmaelak, eta herritarren erabilera publikorako edo orokorrerako diren gainerako gunek, hala udalaren edo beste administrazio publiko batzuen titulartasun publikokoak, nola erabilera publikoari lotutako titulartasun pribatukoak direnak, eta, era berean, erabilera publikoko gune horietan dauden ondasun publikoak ere sartuta.

2. ARTIKULUA.- Espazio publikoaren erabilerari buruzko oinarrizko kontzeptuak

1.- **Guztion erabilera edo erabilera orokorra** da pertsona guztiei era berdinean dagokiena; horrenbestez, norberaren edo norbanakoaren erabilerak ez du besteen erabilera galarazten. Erabilera hau librea eta eskuragarria da hiritar guztientzat, dituen muga bakarrak espazio publikoaren izaeraren ondoriozkoak, eragiteko eta atxikitzeke ekintzetan ezarritakoak, eta herritarren gizalegezko jokabidea arautzen duten xedapenetan finkatuta dauden horiek dira.

2.- Aprobetxamendu bereziko erabilera edo **erabilera berezia** da, erabilera orokorra galarazi gabe, inguruabar berezi batzuk behar dituena, esate baterako, erabileraren intentsitatea, haren arriskugarritasuna, lehentasuna gabezia dagoenean, errentagarritasun berezia lortzea, eta antzeko beste inguruabar batzuk, erabilera orokorra gehiegi baliatzea edo hondatzea ekartzen dutenak. Erabilera berezia lortzeko, udalaren lizentzia edo baimena behar da.

3.- **Erabilera pribatiboak** espazio publikoaren zati bat hartzea ekartzen du, eta, horrenbestez, gainerako pertsonak ezin dute gune hori erabili edo hainbat muga dute horretarako. Erabilera pribatiboa lortzeko, administrazioaren emakida edo lizentzia behar da.

4.- **Udalaren erabilera** da udal-zerbitzuek ondasun horiek erabiltzea, oinarrizko azpiegituretako udal-zerbitzu publikoak egiteko euskarri gisa, edota udalaren eskumenak baliatzeari loturik dauden bestelako jarduerak egiteko. Udalaren erabilera lortzeko, ez da lizentziarik behar.

3. ARTIKULUA.- **Ordenantza honen xedea eta esparrua**

1.- Ordenantzaren helburua da Bilboko bide eta espazio publikoen erabilera bereziak eta pribatiboak arautzea, hau da, Bilboko espazio publikoan egin edo jar daitezkeen jarduerak, instalazioak eta okupazioak arautzea. Era berean, espazio publiko horretan dauden ondasun publikoen erabilera arautu nahi da, erabilera orokorrekin bateratzeko eta antolatzeko. Alde batera uzten dira hiriko edo auzoetako jaiak direla-eta egiten diren espazio publikoaren erabilerak eta okupazioak, horiek Jaietako Ordenantzak, eta Ikuskizun Publikoei eta Aisialdiko Jarduerari buruzko Udal Erregelamenduak arautzen baitituzte. Aitzitik, barne hartzen dira Ordenantza honetan jasotako aginduen aurkakoak diren eta espazio publikoaren arlo horretan atzematen diren arau-hausteak eta urraketak, hirigintzako lizentziak arautzen dituen ordenantzaren mende dauden eta obra pribatuetako osagai lagungarri zehatz batzuen ondoriozkoak direnak, eta, era berean, enpresa hornitzaileek egindakoak, horien okupazioak kanalizazioei buruzko udal-ordenantzaren mende badaude; hori gorabehera, bi kasuetan seinaleak jartzeko aurrerago zehaztuko diren arauak bete beharko dira. Era berean, araudi honetatik kanpo utziko dira Pasabideei buruzko Udal Ordenantzan araututa dauden okupazio guztiak.

Erabilera publikoko espazio guztietan ezarriko da ordenantza, haien titulartasuna zeinahi delarik ere. Izatezko egoerak eta indarrean dagoen plangintzak zehaztuko dute erabilera publikoa. Beste administrazio batzuek kudeatzen dituzten erabilera publikoko ondasunen erabilerek ere ordenantza honetan ezarritakoa bete beharko dute.

2.- Ordenantzak jasotzen dituen agindu batzuk herritarrek Bilboko espazio publikoan duten gizalegezko jokabide zehatzei buruzkoak dira. Agindu horiek espazioaren erabilera orokorraren oinarrizko arauak dira, edo dagozkien udal-ordenantzetan jasota ez dauden erabilera berezi batzuen arauak.

3.- Ordenantza hau ezartzeko lurralde-esparrua udal-mugartea da.

4. ARTIKULUA.- **Bilboko espazio publikoaren erabilera zuzenduko duten oinarriak**

1. Bilboko bide eta espazio publikoak pertsona guztien gozamen eta erabilera orokorrerako dira, eta pertsona guztiek behar bezala erabili behar dituzte, espazioek duten izaera, helburu eta xedearen arabera, askatasun eta berdintasunaren oinarri jarraiki, eta herritarrei dagozkien eskubideak zorrotz betez. Udalak gizalegezko balioak sustatuko ditu herritarren artean, eskura dituen baliabide guztiak erabiliz, herritarrek Bilboko espazio publikoa ahalik eta erarik harmonikoenean erabil dezaten, espazio publikoa herritarrak biltzeko eta gozamina hartzeko gunea izan dadin, eta hiri ireki, aske eta adeitsu baten irudia eman dezan, espazio publikoa baita herritarren beharrianak asetzeko gunerik egokiena. Bestalde, beharrezkoak diren jarduerak sustatuko ditu, beharra duten pertsonen –batez ere, herritarrik ahulenei eta behartsuenei– laguntza emateko.

2. Herritarrek eskubidea dute hiriko espazio publikoetan askatasunez jokatzeko, eta haien askatasunean besteen begirunea jasotzeko. Eskubide horiek zorrotz bete beharko dute ezar daiteken legeriak xedatzen duena, hain zuzen, bide, espazio eta zerbitzu publikoen erabilerari buruzko xedapenek finkatutakoa. Bestalde, begirunea erakutsi beharko diete gainerako pertsonen, eta espazio eta ondasun pribatuei eta publikoei.

Inork ezin du, bere jokabidea dela-eta, gainerako pertsonen eskubideei kalte egin, ez eta pertsona horien duintasunaren edota ekiteko askatasunaren aurka aritu ere. Pertsonak ez dute inola ere egingo gehiegikeriazko edo bereizkeriazko jarduterik, jardute arbitrarioz, ez eta

indarkeria fisikoa, edo hertsatze moral, psikologiko edota bestelakoa baliatzen duen jarduterik ere. Zehatzago:

Debekatuta dago espazio publikoan pertsonen duintasuna gutxiesten duten jarduerak egitea, edota bereizkeriazko jokabideak izatea, hala xenofoboak, arrazistak eta sexistak, nola homofoboak edo beste egoera pertsonal edo sozial batekoak, bai berez, bai idatziz, bai ahoz, irainak edo isekak eginez, nahita gogaitaraziz, hertsatze fisikoa edo psikikoa baliatuz, eraso eginez, edo bestelako jokabide iraingarriak erabiliz.

Kultura-, jai-, jolas- edo kirol-izaerako edo bestelako ekitaldi publikoren bat antolatzen dutenek ondo begiratuko dute dena, ekitaldia egiten den bitartean, aurreko idatz-zatietan aipatu ditugun jokabideak azal ez daitezten. Ekitaldi horietan horrelako jokabiderik azaltzen bada, antolatzailleek berehala jakinarazi beharko diete agintaritzaren agenteei.

3. Bide publikoan egiten diren jarduerak edo bertan jartzen diren instalazioek eta okupazioek ezin dute mugatu edo kaltetu herritarrek espazio publikoa oro har erabiltzeko duten eskubidea. Salbuespena egingo da erabilera berezi edo pribatibo horretarako bidezko lizentzia edo emakida badute, eta Udalak zuzenean edo zeharka dagozkion ahalmen teknikoak eta orokorrak betez egindako jarduerak badira.

4. Bilboko espazio publikoan erabilera pribatiboak edo bereziak izateko baimenak edo emakidak zehazteko orduan Udalak aintzat hartuko dituen irizpideek ondo begiratuko dute kasu bakoitzean dauden interes publikoak eta pribatuak era armoniatsuan bateratuta egon daitezten. Interes publikoei emango diete lehentasuna, baina interes pribatuak bazterrean utzi gabe, betiere, interes horiek ezinbestekoak badira eguneroko bizitza garatzeko edo egokiak badira udalaren interes publikoak betetzeko. Hala, bada, eskumena duen udal-agintariak, dituen ahalmenen esparruan, erabakiak hartzeko aintzat hartuko dituen irizpide nagusiak hauek izango dira: jarduerak, instalazioek eta okupazioek udalerriri eta herritarrei ekarri ahal dizkieten era guztietako onurak, horiek garatzeko hartu beharreko espazioak, eta horri lotutako onurak eta kontsumitu beharreko udal-baliabideak, pertsona edo erakunde horiekin lehenago izandako esperientziak, iraupena eta ordutegia, eta, orobat, eskatzailearen tipologia, eta erabilera horiek direla-eta tartean egon daitezkeen udal-arloen eta zerbitzuen iritziak.

5. Bilboko espazio publikoaren erabilera berezien eta pribatiboen baimenak ondo begiratuko du erabilera horiek segurtasun, osasungarritasun eta apaingarritasun publikoko baldintza ezin hobek izan ditzaten, mugikortasun eta irisgarritasunaren arloan indarrean dauden arau guztiak bete ditzaten, eta behar adina berme egon dadin erabilera publikoko ondasunak era egokian erabiltzeko, ondasun horiei kalterik eragin gabe eta, era berean, erabilera horien ondorioz pertsonak eta haien ondasunek kalterik har dezaten saihestuta.

6.- Baimentzen diren erabilera guztiek zorrotz bete beharko dituzte zarataren esparruko lege-araudia. Araudia bete ezik, baimena baliogabetuko da; eta, hori gorabehera, arauari jarraiki egokiak diren zehapenak jarri ahal izango dira.

II. KAPITULUA.- GAIKUNTZA EMATEN DUTEN TITULUAK ETA PROZEDURAKO ARAUAK

5. ARTIKULUA.- Lizentziak, emakidak, hitzarmenak eta aurretiazko jakinarazpenak

1. Bilboko espazio publikoaren erabilera berezi edo pribatibo guztiek horretarako gaitzen edo baimentzen duen titulua eduki beharko dute aurretiaz, Udalak emana, berdin dio garatu nahi den erabilera ordenantza honetako artikuluetan berariaz jasota dagoen edo ez. Espazio publikoaren erabilera pribatiboak eta bereziak egiteko gaitzen duten tituluak lizentziak, baimenak, emakidak edo hitzarmenak izango dira. Aurretiaz jakinarazteko erregimena gaikuntza ematen duen titulu bat izango da, hala ezartzen diren erabilera zehaztuta, eta aurretiazko baimena eduki beharko du, urtekoa.

2. Bilboko espazio publikoaren erabilera bereziak edo pribatiboak egiteko gaitzen edo baimentzen duten udal-baimenak espazio publikoa erabiltzeko lizentziak dira.

3. Espazio publikoaren administrazio-emakida da obra edo instalazio finkoen bidez, edota desmuntatu ahal diren instalazioen edo altzarien bidez, espazio publikoa hartzeko baimentzen edo gaitzen duen udal-egintza, betiere, emakida horren indarraldia lau urtetik gorakoa bada.

4. Espazio publikoa erabiltzeko hitzarmena pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batekin eratzen den konbentziozko tresna da, eta aukera ematen du Bilboko espazio publikoaren erabilera berezia edo pribatiboa egiteko.

5. Espazio publikoaren erabilera zehatzak egiteko aurretiaz egiten diren jakinarazpen guztiak aurretiazko jakinarazpenak dira, betiere, ondorio horretarako finkatuta dauden baldintzei eta baldintza bereziei jarraiki egiten badira. Aurretiazko jakinarazpen horrek okupazioaren titulua

izango du, udalak aurkako erantzuna ematen ez badu behintzat.

6. ARTIKULUA.- Lizentzien izaera, emateko prozedura, edukia, iraupena, araubide ekonomikoa eta baimendutako pertsonen erantzukizuna

1.- Izaera

Espazio publikoa erabiltzeko lizentziak edo baimenak udalaren iritziaren arabera egintzak dira, ez baitira nahitaez eman behar; eta ahamena ematen diote titularrari jarduera egiteko, instalazioa jartzeko edo espazio publikoa hartzeko, lizentzian zehaztutako baldintza zehatzei jarraiki.

Lizentziak pertsonalak eta besterenezinak dira, jarduera, instalazio edo okupazio bakoitzaren erregulazio berezian jasota dauden salbuespenetan izan ezik.

Lizentziak "jabetzarik gabe" emango dira, hau da, ez dute eskubide subjektiborik emango espazio publikoaren gainean, Udalaren alde bakarreko tolerantzia-ekintzak baizik ez direlako. Hortaz, bada, Udalak edozein unetan baliogabetu ahal izango ditu, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik utzi gabe, interes publikoko arrazoiak argudiatuta, baldin eta lizentziak bateraezinak badira lizentzia eman ondoren onetsitako erabilera-baldintza orokorrekin, espazio publikoan kalteak sorrarazten badituzte, interes publiko gehiago duten jarduerak egiteko espazioa erabiltzea galarazten badute, edo herritarrek espazio publiko horretaz egiten duten erabilera orokorra eta arrunta edota udalaren erabilera bera hondatzen badute, eta, betiere, jarduera horiek aurrez zurituta badaude baliogabetzeko espedientean.

Lizentziak ematen direnean, ez diote eragingo jabetza-eskubideari, eta ez diete kalterik egingo gainontzekoei, ezin izango zaie heldu onuradunak bere jarduerak egitean hartzen duen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko, eta ez dituzte titularrak aske utziko udalaren eskumenekoak ez diren beste baimen batzuk lortu beharretik, hala dagokionean.

Udal-lizentziak edo baimenak berdin babestuko ditu espazio publikoa ustiatzeko edo hartzeko jarduerak, nola desmunta daitezkeen eta espazio publikoaren erabilera egiteko baliatu nahi diren behin-behineko instalazioak jartzekoa.

2.- Ematea

Lizentziak iritziaren arabera emango ditu zuzenean eskumena duen udal-organoak, interesa duen pertsonak edo erakundeak eskatu ondoren. Hori egin aurretik, interes publikoak eta pribatuak aldi berean gertatzen diren haztatuko du, eta dagokien eran bateratuko ditu, aurreko 4. artikuluan adierazitako oinarri gidariei jarraiki. Kopurua mugatuta baldin badago, konkurrentzia bidez banatuko dira, lehiak edo zozketaz, jarduera, instalazio edo okupazio bakoitzaren araudi berezian jasota dauden espezialitateak alde batera utzita, batez ere, zenbait baimen berrizatzeko diren horiek.

3.- Edukia

Titularrak lizentzia onetsi duela argi jasoko da jarduera, instalazio edo okupazio bakoitzari dagokion aurretiazko eskaeran edo eskabidean; eta lizentziak, gutxienez, honakoa eduki beharko du:

- a.- Espazio publikoa erabiltzeko erregimen zehatza.
- b.- Baimenari dagokion erregimen ekonomikoa.
- c.- Mailegatu beharreko bermea, hala behar denean.
- d.- Kontserbatzeko eta mantentzeko gastuak, zergak, tasak eta gainerakoak bere gain hartzea, eta, orobat, ondasuna dagokion izaeraren arabera erabiltzeko eta jasotzean zegoen bezalaxe emateko konpromisoa hartzea.
- e.- Ondasuna erabiltzeko edo jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura aurrez eskuratzeko konpromisoa.
- f.- Okupazioaren ondoriozko erantzukizuna bere gain hartzea, eta, hala behar denean, aseguru-poliza, banku-abala, eskudiruzko gordailua edo berme aski uztea ezinbestekoa dela aipatzea.
- g.- Alde bakarretik baliogabetzeko aukera onestea, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik gabe, aurreko 1. idatz-zatian adierazitako interes publikoko arrazoiak direla-eta.
- h.- Jarduera, instalazioa edo okupazioa ikuskatzeko ahalmena udalarentzat gordetzea, baimena emateko baldintzak betetzen ote diren egiazta dezan.
- i.- Baimendutako jarduera, instalazio edo okupazioaren iraunaldia.

4.- Iraupena

Epe zehatz baterako emango dira lizentziak, eta sekula ere ez da lau urtetik gorakoa izango, luzapenak barne hartuta. Arrazoi bat edo beste dela-eta lizentzia emateko egintzan iraunaldia zehazten ez bada, gehienez urtebetekoa dela joko da, eta egutegiko urtearekin egingo du bat.

5.- Araubide ekonomikoa

Oro har, lizentziek okupazio pribatiboari edo aprobetxamendu bereziari dagokion udal-tasa sortuko dute, eta, horrez gain, lizentzia bera emateko behar den tasa, eta baimendutako aprobetxamendu zehatza dela-eta egin litezkeen udal-zerbitzuei dagokiena ere bai. Alabaina, ez dira lizentzia emateko tasari loturik egongo, ez okupazio pribatiboa ez aprobetxamendu berezia dela-eta, baimena jaso duen pertsonarentzat erabilgarritasun ekonomikorik ekarriko ez duten jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziak edo erabilera pribatiboak; era berean, ez dira tasari loturik egongo, erabilgarritasuna egon arren, erabilerak edo aprobetxamenduak baldintzak edo ordainak ekartzen badizkio titularrari eta, horien ondorioz, erabilgarritasuna garrantzi gutxikoa bada. Araubide ekonomiko zehatza lizentzian bertan adieraziko da.

Okupazio pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela-eta Udalak finkatzen dituen tasak gutxienezko lizentziazko-tasak direla jo ahal izango da, lizentziak lizentziazko duen lehia-prozeduraren bidez ematen direnean.

6.- Baimendutako pertsonen erantzukizuna

Espazio publikoa erabiltzearen ondorioz sor litezkeen kalteak direla-eta, zuzenean erantzungo dute, jarduera, instalazio edo okupazio bakoitzaren araudi berezian ezartzen diren erantzukizun solidarioak edo subsidiarioak alde batera utzita. Udalak zenbatuko ditu kalteak, eta, eskatzen diren bermeak edo aseguruak haren estaldura estaltzeko lain ez badira, aldea premiamendu bidez beteko da. Aurrez, dagokion epea adieraziko da ordainketa egiteko, hain zuzen, hilabetea, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Bestalde, zuzenean erantzungo dute espazio publikoa erabiltzearen ondorioz ondasun pribatuek edo pertsonak har ditzaketan kalteez; eta kalte horiek estaltzeko, hala behar denean, erantzukizun zibileko poliza eta poliza kontratatu dutela egiaztatzen duen agiria eskatuko dira lizentzia kendu aurretik. Udalaren aurka erantzukizuneko ekintzarik jarritz gero, eskumena duen udal-organoak ebatziko du, hala behar denean baimendutako pertsonari entzunaldia egin ondoren.

7. ARTIKULUA.- Baimena ematea eta baliogabetzea

1.- Baimena emateko prozedura arrunta

Baimenak emateko prozedurak ondoko arau orokorrak bete beharko ditu, erabilera zehatz bakoitzerako ezartzen diren berezitasunak alde batera utzita:

a.- Eskaera egitea

Egin nahi den jarduera, instalazioa edo okupazioa abian jartzeko eguna heldu baino gutxienez 30 eta gehienez 90 egutegiko egun lehenago igorriko dira eskabideak, erabilera-mota bakoitzaren ordenantzan jasotzen diren berezitasunak alde batera utzita. Udalak, gutxienez, eskatutako erabilera hasi baino egutegiko 15 egun lehenago emango du erantzuna, eta, erantzunik eman ezik, administrazioaren isiltasunaren bidez eskaera ezetsi dela joko da. Epe hauek oro har ezartzen dira, eskabideak bidezko epean aztertu ahal izateko eta, orobat, espazio publikoak izan ditzakeen erabilerak gehiegizko aurrerapenez egindako erreserbekin ez geldiarazteko.

b.- Eskaeraren edukia

Administrazio-prozedura erkidearen arloko araudiari jarraiki, eskaerek datu hauek eduki beharko dituzte: eskatzailearen eta, hala behar denean, haren ordezkariaren datuak; bereziki, haren nortasuna, zehazki, izena eta bi deiturak, edota sozietatearen egoitza, helbidea, jakinarazpenak bidaltzeko helbidea, eta udal-egintzak jakinarazteko bideak. Eskaerarekin batera, egin nahi den okupazioa azaltzen duen memoria aurkeztuko da, okupazioaren helburua zehaztuta, eta haren ondorioz sor litezkeen era guztietako ondorioak ebaluatuta. Era berean,

okupazioa egiteko behar diren altzariei edo instalazioei buruzko informazio teknikoa jaso beharko da, bai eta muntatzeko eta desmuntatzeko denbora ere, eta funtzionamendu-ordutegia edo jarduera egiteko ordutegia, jabari publikoko osagaiek eta pertsonak izan ditzaketan kalteak bere gain hartzeko konpromisoa, eta horretarako behar diren bermeak ere bai, hala nola, eskudiruzko fidantzak eta erantzukizuneko aseguru-polizak; bi kasu horietan, argi zehaztu beharko da zein izango den egiaztatze baliatuko den prozedura eta moldea, eta, nolana ere, lizentzia ematen den aldi berean, edo lehenago, egin beharko da beti. Zehaztapen eta eskakizun horiek bere ezik, zentzuzkoa denez, eskabideari uko egingo zaio, eta ez da aintzat hartuko. Eskaera-eredu desberdinak ezarriko dira, bide publikoan egin nahi den jarduera, instalazio edo okupazioaren izaeraren arabera. Eskabide-mota horiek onetsi ondoren, herritarrek eskuragarri izango dituzte, eskabideak betetzeko informazio-ohar egokiarekin eta haien ondoriozko erantzukizunaren irismen zehatzarekin batera. Bestalde, eskabide horietan, eskatzaileak argi utziko du 6. artikuluan adierazitako konpromisoak askatasunez eta erantzukizunez onartzen dituela.

c.- Aldeko ebazpenak jakinaraztea

Udalak ematen dituen aldeko ebazpenak ahalik eta biderik arinenak baliatuz jakinaraziko zaizkio interesdunari, hori dagokion bulegoan azal dadin. Bulego horretan, baimena ematen duen egintza jakinaraziko zaio, eta dagokion titulua emango zaio, aurrez bermeei, erantzukizuneko aseguruei eta udal-eskubideak ordaintzeari buruzko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Baldintza horiek betetzen dituela egiaztatu ezik, ez zaio titulurik emango, eta baldintzak betetzen ez dituela egiaztatzen duen zuzenmena egingo da.

d.- Administrazioaren isiltasuna

Administrazioaren isiltasuna ezezkua emateko erabiliko da; hortaz, ezin izango da espazioa erabili aurrez horretarako aukera ematen duen titulua eduki gabe.

e.- Lizentziak emateko prozedura konkurrentzia-sistemetan

Konkurrentzia-prozeduren esparruan ematen diren lizentziek edo baimenek oinarri arautzaileek ezarritako prozedura bete beharko dute, eta oinarri horiek dagokien deialdian zehaztuko dira.

2.- Baimena emateko prozedura laburtua

Espazio publikoaren joera gutxiagoko erabilera bereziak egin daitezke, ohikoak edo errepikakorrek direlako, edo eguneroko bizitzari begira beharizan edo garrantzi gutxi dutelako, esate baterako, informazioko mahaiak jartzea, instalazio, ibilgailu edo altzaririk behar ez duten edo horrelako oso gutxi behar duten ekitaldiak egitea, edukiontzia edo obretarako etxolak jartzea, aparkalekuen erreserba egitea, eta antzekoak. Espazio publikoaren erabilera berezi horietarako baimenak emateko, prozedura laburtu hau bete beharko da: udalak ondo gainbegiratu du ea zuzen bete den baimena emateko eskaera normalizatua, eta, hala baldin bada, baimena emateko titulua egingo du. Eskumena duen udal-bulegoan bertan egingo dute hori, gehienez bost eguneko epean eskabidea jasotzen dutenetik hasita, eta erabilera horiei dagokienez eskumena duen hierarkia baxuagoko administrazio-unitateko buruak sinatu beharko du. Prozedura laburtuak bide telematikoak erabiliz egin ahal izango dira.

3.- Aurretiaz jakinarazteko prozedura

Aurretiaz jakinarazteko prozedura aurretiazko urteko baimenari loturik egongo da, finkatutako baldintzen eta erabilpen zehatzen arabera egingo da, eta aukera emango du espazio publikoa erabiltzeko aurretiaz horri buruzko jakinarazpena eginez gero. Ez da horrela jokatuko, finkatutako epean udalak aurkako erantzuna ematen badu.

4.- Baimenak baliogabetzeko prozedura

Baimena baliogabetzeko, espedientea egingo da, eta, bertan, 6.1. artikuluan aipatutako interes publikoko arrazoiak egiaztatuko dira, entzunaldia egin ondoren. Titularren kopurua ikusita hala behar denean, jakinarazpen orokorra egin ahal izango da.

5.- Bide telematikoak erabiltzea

Bide telematikoaren erabilera sustatuko da, espazio publikoaren erabilera desberdinei buruzko informazioa emateko eta, orobat, dagozkien prozeduren izapideak egin ahal izateko, udalaren web orriaren bidez (www.bilbao.net).

8. ARTIKULUA.- **Administrazioaren emakidak**

1.- Emakidak konkurrentzia-erregimenean emango dira, lizitazio bidez, espazio publikoaren erabilera pribatuko aurreproiektu edo proiektu egokiaren oinarriari jarraiki. Alabaina, honako kasu hauetan emakidak zuzenean eman ahal izango dira:

a.- Emakidaduna beste administrazio publiko bat bada edo, oro har, sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko pertsona juridiko bat bada. Ondorio horietarako, sektore

publikoko zuzenbide pribatuko pertsona juridikoa merkataritzako sozietate bat da, eta haren kapitalean zuzenbide publikoko pertsona juridikoen edo administrazio baten nahiz batzuen zuzeneko edo zeharkako partaidetza da nagusi.

b.- Emakidaduna onura publikokotzat jo den irabazteko asmorik gabeko entitate bat, eliza bat, edo legez onetsitako erlijio-sineste edo komunitate bat bada.

c.- Higiezina beharrezkoa baldin bada aurreko idatz-zatietan adierazitakoa ez den pertsona batek zerbitzu publikoko zeregin bat betetzeko edo interes orokorreko xede bat gauzatzeko.

d.- Emakida esleitzeko sustatu den lehiaketa hutsik geratzen bada, edo esleipendunak dagozkion betebeharrak betetzen ez dituelako lehiaketa zapuzten bada, eta, betiere, urtebetetik gorako epea igaro ez bada lizitatzailerik egon ez zelako huts egin zuen lehiaketa egin zenetik edota esleipena izan zenetik, eta, horrez gain, zuzeneko emakida berria eskaintzan iragarritako baldintza berberekin edo huts egindako esleipenean ezarritako baldintzekin egiten bada.

2.- Administrazioaren emakidak, eman ondoren, administrazioako agirian gauzatuko dira, eta titulu hori aski izango da Jabetzaren Erregistroan sarbidea izateko.

3.- Emakidak denboraldi zehatz baterako emango dira; eta gehieneko epeak ez du 75 urtetik gora joko, luzapenak barne hartuta, betiere, arau berezien bidez beste epe laburrago bat finkatzen ez bada.

4.- Emakidak doanekoak izan daitezke, kontraprestazio edo baldintza gisa eman daitezke, edo jabari publikoaren erabilera pribatiboari edota aprobetxamendu bereziari dagokion udal-tasari lotuta egon daiteke. Azken kasu horretan, lizitazioaren gutxieneko tasa gisa erabil daiteke, lehiaketa bidez egiten diren emakiden prozeduran. Hortaz, ez dira tasari loturik egongo, ez okupazio pribatiboa ez aprobetxamendu berezia dela-eta, baimena jaso duen pertsonari erabilgarritasun ekonomikorik ekarriko ez dioten jabari publikoko ondasunen aprobetxamendu bereziak edo erabilera pribatiboak, ez eta, erabilgarritasun hori egon arren, titularrari baldintzak edo ordainak ekartzen dizkion erabilera edo aprobetxamendua ere, horren ondorioz erabilgarritasuna hutsala edo garrantzi gutxikoa bada. Araubide ekonomiko zehatza argi jasoko da emakidaren baldintza-orrietan edo klausuletan.

9. ARTIKULUA.- **Baimenak eta emakidak iraungitzea**

Emakidak eta baimenak iraungiko dira arrazoi hauek tartean daudenean:

1.- Erabiltzailea edo emakidaduna den pertsona fisikoa hiltzea, ondoren agertutako ezintasuna izatea, edota nortasun juridikoa amaitzea.

2.- Erabiltzailea edo emakidaduna den pertsonaren nortasun juridikoak aurretiazko baimenik ez izatea eskualdatzeko edota aldatzeko kasuetan –bat eginez, xurgatuz edo bereiziz–.

3.- Epea amaitu delako iraungitzea.

4.- Emakida berreskuratzea, aurrez kalte-ordaina emanda, edo baimena alde bakarretik baliogabetzea.

5.- Elkarren arteko adostasunez.

6.- Emakidaren edo baimenaren titularrak kanona eta beste udal-eskubide batzuk ez ordaintzea, edota baimenak eman zituen organoak adierazitako bestelako arau-hauste larriren bat egitea.

7.- Ondasuna desagertzea.

8.- Ondasuna zerbitzu publikotik kentzea.

9.- Baimenak edo emakidak emateko baldintza orokorretan edo berezietan jasota dagoen bestelako arrazoren bat dela-eta.

10. ARTIKULUA.- **Hitzarmenak**

Espazio publikoan egin nahi diren jardueren edo jarri nahi diren instalazioen edota okupazioen helburu zehatzak bat etortzen badira Udalak dituen xedeekin, hitzarmenak erabiliko dira, eta, era horretan, interesen arteko bat-etortze hori behar bezala antolatuko da. Hasieran, behintzat, hitzarmenak salbuespenekoak dira espazioa erabiltzeko gaitzen duen tresna gisa, eta, beraz, Udalak egokitzat jotzen dituen kasuetarako gordeko dira.

III. KAPITULUA.- **BAIMENEN ESKAKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK**

11. ARTIKULUA.- **Eskatzaileen ahalmena**

Bilboko espazio publikoan erabilera bereziak edo pribatiboak egiteko lizentziak edo

baimenak eskatzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek eta, halaber, jabari-emakidak lortu nahi dituzten horiek gaitasun juridiko osoa eta ekiteko gaitasuna eduki beharko dute, egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, gainera, ez dute zorrik izango Bilboko Udalarekin. Espazioa erabiltzeko eskaerak, hori berrizatzeko prozedura egiteak edota espazio publikoaren erabilera bera egiteak ahalmena ematen dio eskumena duen udal-unitateari administrazio egokietan egiazta dezan interesdunaren egoera zehatza, zerga eta gizarte-segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez, eta Udal honekin zorrak dituen.

Bilboko espazioa era berezian edo pribatiboan erabiltzeko gaitzen duen titulua lortzen duten pertsona fisikoek eta juridikoek, baimendutako erabilera baliatzen duten aldian, egunean izan beharko dituzte gizarte- eta zerga-betebeharrak, eta ez dira Udal honen zordun izango, betearazten ari diren edozein motatako zorrak direla-eta. Betebehar horiek bete ezik, titulua iraungi ahal izango da.

Udalak nagusigo berezia du Bilboko espazio publikoa erabiltzeko titulua duten pertsona fisiko eta juridikoen gainean, dagoen harreman juridiko bereziaren ondorioz. Hargatik, titulua eskuratzeko jarri ziren baldintzak urratuz gero, ez dira hasiko zehatzeko prozeduraren izapideak; horren ordez, XI. Tituluan finkatutakoaren arabera ezarriko dira zehapenak eta isunak.

12. ARTIKULUA.- Espazio publikoaren okupazioak mugatzea eta seinaleak jartzea

Baimendutako erabileren eraginpean dauden espazio publikoak mugatzea eta behar diren seinaleak jartzea titularren erantzukizuna da, eta ez beste inorena. Baimenek eragina baldin badute bide publikoetako gurpildunentzako galtzadetan eta ibilgailuak aparkatzeko den galtzadako aldean, neurriak zorrotz egingo dira. Aparkatzeko erreserbak egiteko eta galtzadak mozteko baimenak adierazitako eran eta moldean egingo dira, eta, praktikan, udal-agintaritzaren agenteek aldatu ahal izango dituzte. Baimena duten pertsonak ondo zainduko dute seinaleak era egokian jarririk egon daitezzen, baimenak irauten duen denboraldi osoan. Baimenaren eraginpean dagoen espazio publikoa mugatzeko, hartzeko eta seinaleak jartzeko lanetan, zorrotz bete beharko da mugikortasun eta irisgarritasunari, babes zibilari eta osasunari buruzko araudia.

13. ARTIKULUA.- Instalazioak eta altzarien eta instalazioen eredu normalizatuak

1.- Erabileretan baliatzen diren instalazioek –hala nola, agertokiek, mailek, txosnek, salmenta-postuek, erakusmahaiek, atrakzioek, mahaiek, aulkiek, toldoek, eguzkitakoek, manparak eta bestelakoek– agintari eskudunak emandako homologazio egokia eduki beharko dute; eta, hala behar denean, segurtasuneko ziurtagiriak eta instalazioaren egokitasunari buruzko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

Instalazioak egoera ezin hobean egongo dira, kokapenari eta garbitasunari dagokienez; eta betebehar hori betetzeko erantzukizuna titularrena izango da, ez beste inorena.

2.- Egokitzen jotzen duenean, Udalak hainbat instalazio eta altzariren eredu normalizatuak aurkeztuko ditu; horri jarraiki gauzatuko dira ordenantza honetan jasota dauden espazio publikoaren erabilera ugariak. Bereziki, honako hauek hartuko dira kontuan: agertokiak, karpak, mailak, hesiak, itxiturak, txosnak eta jaietako terrazak, jaietako atrakzioak, ostalaritzako terrazak –mahaiak, aulkia, eserlekuak, manparak, eguzkitakoak, toldoak, landare-ontziak, zoru bereziak eta antzekoak–, kalez kaleko salmentako postuak, saltokien hedapenen ereduak –erakusmahaiak, erakusleihoak, erakargarriak, txartelak eta antzekoak–, ateratako obra-hondakinak eta haien edukiontzia, aparkatzeko erreserba berezien seinaleak, doaneko prentsa banatzeko euskarriak, informazioko mahaiek eta altzari iraunkorrak –prentsako kioskoak eta bestelakoak–.

Udalaren zehaztapenek behar bezala zainduko dute instalazioak ahalik eta seguruen izan daitezzen, eta haien irisgarritasunari, eta kalitate praktiko eta estetikoari begiratuko diete; hala, bada, erregulazioaren sakontasuna eta irismena erabilera bakoitzak duen iraupenaren eta aldizkakotasunaren arabera izango da. Era berean, kontuan hartuko da instalazioen kostua, erabileraren denbora eta horren ondorioz inbertitutako kapitalen amortizazioa.

14. ARTIKULUA.- Erabilerak barne hartzen duen espazio publikoa garbitzea

Baimendutako pertsonak izango dute erabilerak barne hartutako espazio publikoa garbi

edukitzeko erantzukizuna, hala instalazioak muntatzean eta desmuntatzean, nola baimendutako erabilera baliatu bitartean. Hala behar denean, eskaera egingo da neurriak har daitezen gunea garbitasun aldeko baldintza ezin hobeetan egon dadin.

15. ARTIKULUA.- **Hizketakideak zehaztea**

Espazio publikoko jardueren edo okupazioen sustatzaileek eta antolatzaileek nahitaez izendatu beharko dituzte, baimen-eskaeretan, jardueri lotutako kontu guztien ardura izango duten pertsonak. Pertsona horiek aurkitzeko moduan egon beharko dute beti, eskuragarri, edozein gai nola garatu behar den galdetzeko, eta, ildo horretan, tresna egokia eduki beharko dute harremanetan jartzeko.

II. TITULUA.- **ESPAZIO PUBLIKOAN JARDUERA JAKIN BATZUK EGITEKO ARAUAK**

I. KAPITULUA.- **GIZALEGEZKOAK EZ DIREN SEXU JARDUTEAK ETA PROSTITUZIOA ESPAZIO PUBLIKOAN**

16. ARTIKULUA.- **Gizalegezkoak ez diren sexu-jarduteen eta prostituzioaren definizioa, eta debekua**

1.- Gizalegezkoak ez diren sexu-jarduteek eraso egiten diote herritarren arteko bizikidetzari, gainerako herritarrek aintzat hartzen ez dituztelako, oso barnekoak eta pertsonalak diren ekintzak jendaurrean erakutsiz; hauexek dira: herritar guztientzat horretaz ez ohartzea edo hori saihestea ezinezkoa denean, sexua esplizituki, jendaurrean eta era nabarmenean azaltzen duten jardute eta ekintza guztiak. Jardute horiek debekatuta daude.

2.- Ordenantza honen ondorioei begira, prostituzioa hauxe da: sexu-zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko egintzak, ordaindutako sexu-zerbitzuak ituntzeko xede dutenak, zerbitzu horiek negoziatzea eta gauzatzea barne hartuta. Egintza horiek eraso egite diote herritarren arteko bizikidetzari, espazio publikoaren erabilera arruntaren aurka daudenean, eta espazio hori eta inguruko auzo-erkidegoak era nabarmenean hondatzen dituztenean. Sexu-zerbitzu horiek egiteagatik zehapena jarriko da.

II. KAPITULUA.- **KALEAN LITROAK EDATEA**

17. ARTIKULUA.- **Kalean litroak edatearen definizioa eta debekua**

1.- «Kalean litroak edatea» zera da: lagun-talde batek kalean edo espazio publikoan edariak edatea –gehienbat ostalaritzako lokaletan erosi ez diren edari alkoholdunak–, eta, pertsonen metatze horren edo edatearen ondorioz, espazio publikoa erabiltzen duten pertsonen eta auzokoei enbarazu egitea, inguruneak duen lasaitasuna hondatzea edota osasungaitzak diren egoerak sortzea. Jardute hori debekatuta dago Bilboko espazio publikoan.

2.- Bereziki debekatuta dago «kalean litroak edatea», horrek larriki hondatu ahal duenean herritarren arteko bizikidetzari. Inguruabar hauek tartean daudenean, hondamen hori izaten da, bildutako pertsonen kopurua zeinahi delarik ere:

a) Leku publikoaren morfologia edo izaera dela-eta, herritarrek samaldaka edaten dutenean edo herritarrek metatzera jotzen dutenean.

b) Edateko modua azaleratzen denean, eta modu hori laidogarria denean oinezkoentzat edo espazio publikoa erabiltzen duten gainerako lagunentzat.

c) Edari alkoholdunak edateko hautatzen diren lekuak adingabeak joan ohi diren tokiak edo haurrak eta nerabeak egoten diren tokiak direnean.

III. KAPITULUA.- **KALEKO MUSIKA**

18. ARTIKULUA.- **Baimena behar duten musika-emanaldiak**

Kalean musika-emanaldiak egiteko, Udalaren baimena beharko da aurrez. Baimena salbuespen gisa emango da, oso kasu bakan, berezi eta zehatzetan. Musika-emanaldi horiek

ezin izango dira etengabe luzaro egin Bilboko espazio publikoan. Alabaina, hurrengo artikuluan aipatzen diren kasuetan emanaldiak askeak izango dira, eta, beraz, espazio publikoaren erabilera arruntaren edo orokorraren adierazpenak direla joko da.

Anplifikagailuak, bozgorailuak edo aurrez grabatutako musika erabiliz gero, soinu-emisioak ez du 70 dBA-tik gora joko, tokitik 5 metrora neurtuta.

19. ARTIKULUA.- **Musika-emanaldi askeak**

Musika jotzen dutenek baldintza hauek betetzen badituzte, ez da baimenik behar izango kaleko musika-emanaldiak egiteko:

- a) Jarduerak espazio publiko aski zabaletan egingo dira, hartara, musika jotzeak eragozpenik sor ez diezaien oinez doazen ibiltariei, inguruko saltokietako bezeroei eta langileei, eta, orobat, hiriko irisgarritasunerako eta mugikortasunerako oztopo izan ez dadin.
- b) Jarduerak 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara izango dira, eta haien iraupenak ez du 45 minututik gora joko. Denboraldi hori igaro ondoren, musika-joleak edo taldeak bide publikoko beste gune bat hautatu beharko du, jarduerarekin jarraitzeko; beraz, ezin izango du jarduera berberarekin jarraitu leku eta egun berean.
- c) Ezin izango dira kokatu ostalaritzako terrazak eta antzekoak jarrita dauden bide publikoko tokietan. Era berean, ezin izango dute modu eraginkorrean eskatu dohainik emateko, eskuzabaltasuna jasotzeko, duten edukiontzia haien ondoan jarri, besterik ezin izango dute egin.
- d) Anplifikagailuak, bozgorailuak edo aurrez grabatutako musika erabiliz gero, soinu-emisioak ez du 70 dBA-tik gora joko, tokitik 5 metrora neurtuta.

Era berean, Bilboko hiriko eta auzoetako jaiak direnean izaten diren musika-emanaldiak edota Eguberrietan –hau da, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean– egiten direnak askeak izango dira. Kasu horietan, soinu-emisioak guztira ez du 70 dBA-tik gora joko, toki horretatik 5 metrora neurtuta. Hala ere, aurreko b) idatz-zatian finkatutako ordutegia bete beharko da. Salbuespena egingo da Aste Nagusian, aste horretan ordutegiak ez baitu etenik izango 10:00etatik 22:00etara bitartean. Bestalde, emanaldi horiek ezin izango dira izan jaietako esparruek eratzen dituzten espazio publikoetan, segurtasuna, mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatzeko, eta jaietako programarekin begirunea izateko eta aintzat hartzeko.

IV. KAPITULUA.- **BESTE JARDUERA ARTISTIKO BATZUK**

20. ARTIKULUA.- **Askatasunez jarduteko eskakizunak**

Bilboko espazio publikoan, banaka edo gehienez ere binaka, bestelako jarduera artistikoak egiteko –esate baterako, mimoa, eskujokoak, pintura eta antzekoak–, ez da beharrezkoa izango aurrez udal-baimena izatea, betiere, jarduera horiek egiteko hartzen den espazio publikoak bi metro koadrotik gora jotzen ez badu, eta jarduerak oztopo ez badira pertsonak askatasunez ibiltzeko edo atsedean hartzeko, eta irisgarritasunari buruzko araudia hausten ez badute. Jarduera horiek egitean, ezin izango da inola ere soinu-emisiorik egin. Dohainik eskatuz gero, kaleko musikarako finkatuta dagoen modu berean egin beharko da. Jarduera hauek egiteko ordutegiak ez du etenik, 10:00etatik 22:00etara.

V. KAPITULUA.- **ESPALOIETATIK ETA OINEZKOENTZAKO GUNEETATIK IBILTzea**

21. ARTIKULUA.- **Espaloietatik eta oinezkoentzako guneetatik ibiltzea**

Udaleko bide publikoetako espaloiak oinezkoen zirkulaziorako izango dira, eta oinez ibiliko da. Bestalde, haurtxoen kotxeak eta aulkiak, eta ahalmen urrikoentzako gurgildun aulkiak espaloietatik joan ahal izango dira, bai eta aulki elektrikoak ere. Ikusteko edo mugitzeko urritasuna duten pertsonen lehentasuna izango dute espaloitik ibiltzeko, gainerako pertsonen aurretik.

Debekatuta dago espaloia edo oinezkoentzako gunea hartzea, era horretan oinezkoen zirkulazio arrunta oztopatzen edo galarazten bada. Bide publikoetan jende-ilarak sorrarazten dituzten era guztietako saltokiek beren kabuz antolatu beharko dituzte ilarak, oinezkoen zirkulaziorako oztopo izan ez daitezen, eta gainerako saltokietarako sarbideak edo bestelako

sarrerak eta irteerak galaraz ez ditzaten. Ildo horretan, ilara ez da inoiz egongo fatxadako lerroaren paretik, fatxada saltokiarena ez bada, behintzat.

Horretarako gaikuntza berezirik eduki ezik, erabat galarazita egongo da bide publikoetako espaloietan bizikletaz, monopatinez, patinez, ibiltariz eta antzeko gailuz ibiltzea. Era horretan, espaloietatik ibiltzen direnak lasai eta seguru egongo dira.

Oinezkoentzako guneean, bizikletak eta ibiltzeko beste gailu batzuk erabiltzean, ondorio horretarako gaitu diren aldeetatik joan beharko da. Alabaina, gune horietatik ere ibili ahal izango da, dabilen jendetza ikusita hori egin ahal bada, behintzat. Nolanahi ere, gailu horien erabiltzaileek zorrotz bete beharko dituzte segurtasuneko neurriak, oinezkoen zirkulaziora egokituko dute beren ibilera, eta ahaleginduko dira pertsonen artean sigi-saga ez ibiltzen eta ez aurreratzen bi metrotik beherako tartea utzi gabe. Oinezkoentzako gunea jendez beterik badago, lurrera jaitsi, eta bizikletaren edo ibiltzeko gailuaren ondoan joan beharko du.

Hamabi urtetik beherakoek Bilbon dauden oinezkoentzako gunek, plazak eta parkeak erabili ahal izango dituzte, bizikletaz, monopatinez, patinez eta antzeko gailuz ibiltzeko, gune horietan dagoen jendetza ikusita hala egin ahal bada, eta, betiere, adingabeko horien guraso-ahala duten pertsonen erantzukizunpean. Zazpi urtetik beherakoak badira, espaloitik ibili ahal izango dira bizikletaz, adin nagusikoa den pertsona baten kargura, betiere, pertsonen duten ibilerara egokitzen badira eta oinezkoen eragozpenik sortzen ez badiete.

VI. KAPITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAN JOLAS EGITEA

22. ARTIKULUA.- Espazio publikoan debekatuta dauden jolasak

Oro har, debekatuta dago erabilera publikoko bide, kale eta plazetan jolasak eta olgetak egitea, hori eragozpena edo arriskutsua izan ahal bada beste lagun batzuentzat, edo jolasak egiten dituztenentzat. Bereziki debekatuta dago egitura zurrun eta gogorreko kometak eta abioiak hegaldatzea –urrutitik gidatutakoak nahiz bestelakoak–, eta, orobat, bumeranak, plater hegalaria eta antzekoak aireratzea. [Debeku hau indarrean egongo da bi kasuetan, betiere, aldi baterako baimena duten gunek eta berariaz gaitutako alderdiak alde batera utzita.](#)

VII. KAPITULUA.- BIDE PUBLIKOAN OBRAK EGITEA ETA SEINALEAK JARTZEA

23. ARTIKULUA.- Bide publikoan obrak egitea eta seinaleak jartzea

Bide publikoan obrak egiteko –udalarenak nahiz udalarenak ez direnak– eta, orobat, Bilboko Udal honek emandako hirigintzako lizentziaren bidez –edo antzeko egintzaren baten bidez– baimendutako obrako osagai lagungarriak jartzeko, zorrotz bete beharko dira udalaren baldintza teknikoaren eta lizentzien pleguetan finkatuta dauden baldintzak. Hori gorabehera, une oro bete beharko dira ondoko baldintzak, bai eta ezarrita dauden gainerako arau bereziak ere:

a.- Erabilera publikoko espazio askeen irisgarritasuna mugatzen duten sakan, zanga-zulo, aldarnio, silo, karga-igogailu eta antzeko osagai guztiak era egokian babestu, eta seinaleak jarri beharko dira, pertsonen segurtasun fisikoa bermatuta egon dadin eta, horrez gain, oinezkoen zirkulazioa errazagoa eta erosoagoa izan dadin.

b.- Osagai horiek babesteko, hesi finko eta egonkorrak jarriko dira, ertz bizirik gabekoak, autoirristakorrak ez direnak eta iraulketa jasaten dutenak. Sakanen, eta metatutako materialaren, makineriaren eta antzeko osagaien perimetro osoa hartuko dute barne, eta gutxienez, 50 cm-ko tartea utziko da haietatik irtengunerik nabarmenera bitartean. Ez da onartuko, hesien orde, sokak, mailak, xingolak edo antzekoak jartzea.

c.- Babesteko osagaiak argi gorriak eduki beharko dituzte; eta egun-argia aski indartsua ez denean, argi gorri horiek piztuta egongo dira.

d.- Obrek oinezkoentzako ibilbideetan eragina badute, behar bezala bermatuko da ibilbide horietara sartzeko bidea. Ildo horretan, gutxienez 1,50 metroko tartea utziko da igarotzeko; espaloien zabalera neurri hori baino txikiagoa bada, igarobideak zabalera hori eduki beharko du gutxienez. Oinezkoentzako zirkulazioa errazteko metalezko xaflak eta antzeko osagaiak jarri nahi badira, xaflaren ingurunea ez da 2 cm baino gehiago irtengo espaloien kotatik kanpora.

e.- Aldarnioaren osagaiak 2,20 metrotik beherako garaiera duten osagaiekin txarrantzatzen badira, seinaleak jarri beharko dira eta era egokian babestu beharko dira lurreraino, luzetara ibilbidearekin erkatuta, ikusteko zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna errazteko.

f.- Obra horiei loturik dauden edukiontzia eta zakuak oinezkoen ibilbideetatik kanpo utzi beharko dira. Forma ortoedrikorik ez dutenek itxura hori hartu beharko dute, eta, horretarako,

babes-osagaiak atxiki beharko dira lurretik edukiontziazen goiko ertzeraino, hartara, ikusteko zailtasunak dituzten pertsonen erraz antzeman ditzaten ibiltzen diren bitartean. Isuritako materiala ez da inola ere aterako edukiontziazen mugen lerro bertikaletik.

g.- Obrak behar bezala identifikatu beharko dira, ondo ikusteko moduko kartel baten bidez; eta bertan argi zehaztu beharko da jabea, enpresa esleipenduna eta, hala dagokionean, udalak emandako lizentziazen aipamena. Era berean, obren helburua zehaztuko da, bai eta noiz hasiko eta bukatuko diren ere, eta harremanetarako telefono bat azalduko da.

VIII. KAPITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOA ERA DESEGOKIAN ERABILTZEA

24. ARTIKULUA.- Espazio publikoa era desegokian erabiltzea

1. Erabat debekatuta dago espazio publikoa eta haren osagaiak era desegokian erabiltzea, gainerako erabiltzaileen erabilera edo gozamina galarazteko edo zailtzeko asmoz.
2. Galarazita daude espazio publikoaren eta haren osagaien erabilera desegoki hauek:
 - a) Bide eta espazio publikoetan kanpatzea, hau da, espazio publiko horietan, edo bertan jarritako osagaietan edo altzarietan, kanpin-dendak, ibilgailuak, auto-karabanak edo karabanak jartzea; salbuespena egingo da, leku zehatz batzuetan hori egiteko baimena edukiz gero. Era berean debekatuta egongo da leku horietan egunez edo gauzez lo egitea.
 - b) Aulki eta eserleku publikoak erabiltzea, baimendutakoak ez diren erabileretarako.
 - c) Pertsona eta lagun-talde batzuek espazio publikoa era intentsiboan erabiltzea, gainerako herritarren erabilera baztertuz, haien erabileraren bidez guneak berez duen xedea mespretxatzen dutelako, eta, horren ondorioz, erabilera pribatiboa, ez-ohikoa, eta higienearen eta gizalegearen aukakoa egiten dutelako. Berezi, espazio publikoaren erabilera desegokitzat jotzen da pertsona batek edo batzuek gunearen zati zehatz bat eskuarki, etengabe eta era intentsiboan erabiltzea, eta, horrela, gainerako herritarrek espazio publikoa eskuraezina dela hautematea.
 - d) Iturri, urmael eta antzeko lekuetan garbitzea edo bainatzea.
 - e) Iturri, urmael, dutxa eta antzeko lekuetan arropa garbitzea.
 - f) Espazio publikoan janaria prestatzea, horretarako berariaz jarrita dauden lekuetan izan ezik, edo hori egiteko udalaren berariazko baimena eduki ezik.

III. TITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAN EGINDAKO EKITALDI HANDIAK

KAPITULU BAKARRA.- ANTOLAKUNTZA ETA BAIMENTZEKO ARAUBIDEA

25. ARTIKULUA.- Antolakuntza eta baimentzeko araubidea

Gertakizun handiak hauxe dira: ohiz kanpokoak izateagatik “bereziak” diren era guztietako jendaurreko ikuskizunak, olgetako jarduerak eta kirol-probak, Bilboren eraginpeko alderdia gainditzan dutenak, oihartzuna lortzen baitute estatuan edota nazioartean. Era guztietako ikuskizun eta olgetako jarduera horiek egiteko, ezinbestekoa da Bilboko espazio publikoaren okupazio pribatiboa, denboraldi zehatz baterako baina inoiz ere ez urtebetetik gorako aldirako; eta ikusleek edo herritarrek ikuskizun horietarako sarbidea izateko, oro har, sarrera ordaindu behar dute alde zurretik.

Gertakari handiak antolatzea, gertakari horien araubide juridikoa eta ekonomikoa zehazteko eskumena duen udal-unitatearen ardura da. Unitate horrek, gertakarien eragina izango duten arlo eta zerbitzu guztiak koordinatu ondoren, gertakizuna non kokatu zehaztuko du, udalak gertakizunaren garapena eta bukaera gainbegiratzeko aginduko du, eta gertakizunak hiri osoan duen eragina balioetsiko du, ikuspegi guztietatik aztertuta.

IV. TITULUA.- HERRITAR, KULTURA, JOLAS ETA KIROL JARDUERAK ETA ANTZEKOAK

I. KAPITULUA.- AZALPENEA ETA MUGAK

26. ARTIKULUA.- Baimena behar duten jardueren azalpena

Udalak emandako aurretzako baimena behar duten herritar-, kultura-, jolas- eta kirol-jarduerak hauexek dira: pertsona fisikoek edo juridikoek, irabazizko asmorik gabe, Bilboko espazio publikoan sustatzen dituzten izaera horretako jarduera guztiak, aurretiaz udalaren baimena behar dutenak, espazio publikoa erabiltzean sorraraz dezaketen arriskugarritasuna edo indarra dela-eta, espazio publikoaren erabilera arrunten ohiko garapenean eragina dutelako.

Jarduera horiek aldakorrak eta ezin aurreikusizkoak dira, eta, beraz, espazio publikoaren zati batzuk hartu behar dituzte aldi baterako edo instalazioak jarri behar dituzte; bestela, haien ondorioz, espazio publikoko gune jakin batean edo ibilbide baten luzeran jendetza handia metatuko da.

Udalak erraztasunak emango ditu jarduera horiek egiteko, herritarren espirituaren adierazpen argia eta pertsonen izaera sozialaren adierazpide nabaria direlako, eta, gainera, lagungarriak direlako herritarren prestakuntzarik zabalena lortzeko ildo horretan. Bestalde, Udalak ahalegina egingo du herritar guztiek espazioen erabilera arruntak hobeto bateratu ditzaten, eta herritarrei emango die lehentasuna.

27. ARTIKULUA.- Jardueren edukia dela-eta dauden mugak

Jarduerak begirunea erakutsi beharko dute gainerako pertsonak dituzten ideiekin eta sinesmenekin, hala dagokionean, haien protesta-izaeran kalterik izan gabe. Bereizkeriazko edukiak alde batera utziko dituzte, ez dute egingo herritarrentzat iraingarria izan daitekeen egintzarik, eta adingabekoen eskubideak errespetatuko dituzte. Bestalde, jarduerak egitean, oro har, ez da animaliarik erabiliko.

Konstituzioan jasota dagoen biltzeko eta adierazteko eskubidearen adierazgarriak diren jarduerak egiteko, ez da udal-lizentziarik beharko. Eskumena duen agintariari aurretzako jakinarazpenak egiteko, Udalari igorri beharko zaizkio, hala behar denean, erabilera horiek eta Udalak itunduta eduki ditzakeenak bateratze aldera, esate baterako, ibilbidea edo lekua edota agerraldien eta bileren kokapena aldatzeko.

Jarduerak osatzeko megafoniako instalaziorik erabiliz gero, horiek ez dute 75 dBA-tik gora joko, 5 metroko tartean neurtuta. Bozgorailuak eta baffleak jarduera egiten den guneari begira egongo dira beti. Ezin izango da megafonia erabili, norberaren sorgailua baliatuta; ez, behintzat, interes orokorrekoa den edo hirian garrantzi berezia duen inguruabarren bat tartean ez badago.

28. ARTIKULUA.- Espazioan duten garapena dela-eta dauden mugak

Galtzadan eragina duten egintzei emandako baimenak salbuespenekoak izango dira. Aurrez, zirkulazio-arloan eskumena duen udal-sailak txostena egingo du, eta baimena bakarrik izango da nahitaezkoa okupazioak dentsitate handiko edo lehentasuneko bideetan eragina duenean.

Sustatzaileak azalduko du nola garatuko den jarduera, kontuan izango du ahalik eta eraginik txikiena egin beharko diola herritarren erabilera arruntari, pertsonen mugikortasuna errazteko eta pertsona guztiek duten irisgarritasunerako eskubidea bermatzeko oinarriak hartuko ditu aintzat, eta behar bezala bermatuko du jabetzetara iristeko sarbidea, eta larrialdietako ibilgailuen eta garraibide publikoaren igarobidea eta zirkulazioa. Ekitaldiak bukatutakoan, bideak libre eta zabal geratuko dira.

Baimenetan argi jasoko dira horri dagokionez ezar daitezkeen baldintza bereziak.

II. KAPITULUA.- BAIMENA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

29. ARTIKULUA.- Baimenaren eskabideak

Tankera horretako ekitaldiak antolatu nahi dituzten pertsonak eskabideak aurkeztuko dituzte, 7.1. eta 2. artikuluan adierazitako eskabide-ereduari jarraiki. Ekitaldi horiek konplexuak badira era askotako jarduerak eta okupazioak izango dituztelako, horiek guztiak zehaztu eta justifikatu beharko dituzte, dagozkien agiriak aurkeztuta. Hala, bada, alderdi hauek guztiak zehaztuko dituzte: hartu nahi duten espazioa edo espazioak, izango duten helburu zehatza, jarri nahi dituzten instalazioak eta haien xedea, instalazioen segurtasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak eta, hala behar denean, osasun-txostenak edo ontziratutako elikagaien osasun-erregistroak, elikagaiak merkaturatzeari buruzkoak. Era berean, animaliak ikusgai jarri edo salduz gero, dagozkion txostena beharko da, animalien osasunaren esparruan eskumena duen agintariak ikus-onetsia.

30. ARTIKULUA.- Ebazpena

Eskabide horiei buruz Udalak emandako ebazpenek eta, orobat, 4. artikuluan adierazitako eskabideen baldintzek eta ebazteko irizpideek ondo hartu beharko dute kontuan ekimena sustatu duen pertsonak edo erakundeek egindako ahalegina eta, halaber, ekitaldia egiteko dagoen aukera fisikoa.

V. TITULUA.- OSTALARITZAKO TERRAZAK

I. KAPITULUA.- AZALPENA, BAIMENA ETA MUGAK

31. ARTIKULUA.- Terrazaren azalpena

Hona hemen terrazaren definizioa: sarbide askeko eta erabilera publikoko espazio publiko edo pribatuetan jarrita dauden mahaien, aulkien edo bestelako altzarien multzoa eta instalazio osagarriak –hala finkoak nola mugikorak, esate baterako, eguzkitakoak, gidari-erlekuak, toldoak, estalki ainguratuak, alboetako babesak, argiteria, bero-hornidurak, etab.–, dagozkion udal-ordenantzari jarraiki ostalaritzako legezko establezimendu edo antzekoren baten aldi baterako edo etengabeko osagarriak direnak.

32. ARTIKULUA.- Terrazak jartzeko baimena

Aurreko artikuluan aipatutako terrazak jartzeko, aurrez nahitaezko udal-baimena eduki behar da; baimen hori titulu honetan finkatutako baldintzei jarraiki emango da. Hori gorabehera, instalazioak Aste Nagusian eta auzokoetako jaietan jartzen direnean, Jaiei Buruzko Ordenantzan jasota dagoen araudia bete beharko dute. Udalerriko jaiak direla-eta ostalaritzako terraza jartzeko baimena ematean, oro har, baimen hori ematen den denboraldian, indargabeturik geratuko da titulu honi jarraiki baimenduta dagoena, espazio publikoa gehiegi ez erabiltzeko. Hala ere, Udalaren erabakiak kontuan hartuko ditu eraginpean dagoen espazioak behar dituen baldintza fisikoak eta bi terrazak bateragarri egiteak ekar ditzakeen era guztietako ondorioak.

Araudi hau era berean ezarriko zaie Udalaren administrazio-emakida baten babespean garatutako ostalaritzako jarduera nagusien osagarriak diren instalazioei; izan ere, instalazio horien baldintzek araudi hau bete beharko dute, berdin dio emakida horietan instalazioa jartzeko aukera berriaz jasota dagoen edo ez.

Terrazak jartzeko baimenak behar bezala legeztatuta dauden ostalaritzako establezimenduei eta antzekoei baizik ez zaizkie emango. Establezimenduek ez dute aurrez eskubiderik izango instalazioa jartzeko, jabari publikoa besterenezina eta preskribaezina delako, eta baimenak emateko prozedura iritziazen araberakoa delako. Berdin jokatuko da jabari publikoko lurzoruekin, zein erabilera publikoko titulartasun pribatukoak diren espazioekin. Behin-behineko izaera izango dute, hau da, bakarrik egongo dira jarrita, baimena emateko aintzat hartutako era guztietako inguruabarrak tartean daudenean, eta, interes orokorrari edo erabilera arruntari kalterik egin gabe, eraginpeko espazio publikoaren erabilera zehatzaren baimenari eustea galarazten duten inguruabar berriak agertzen ez direnean. Hortaz, lehentasunezko interes publikoko arrazoiak direla-eta, terraza aldi baterako edo behin betiko

geldiarazten bada, ez da inolako kalte-ordainik hartzeko eskubiderik izango. Hori gorabehera, jabari publikoa erabiltzeagatik kobratu diren tasen heinekoa itzuli ahal izango da.

Ez da baimenik emango jabetza pribatuko eta erabilera publikoko guneetan estalki finkoko terrazak jartzeko, horren ondorioz, lursailari dagokion eraikigarritasuna eta irabazizko aprobetxamendua handituko lirakeelako.

33. ARTIKULUA.- Baimenaren eskaera eta erantsitako agiriak

1.- Interesdunak baimenaren eskabide egokia aurkeztu beharko du Udalean, eredu ofizialari jarraiki egina; baimen horretan argi jaso beharko dira 7.1.b) artikuluan aipatutako datuak eta, orobat, honako hauek:

- a) Jarduera nagusiaren merkataritzako izena eta kokapena, kale-izendegiaren arabera;
- b) Lokal nagusiari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zenbaki finkoa;
- c) Instalazioa jartzeko nahi den epea, 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Terrazak fatxadaren lerroan ezartzen direnean, 43.2., 48.2. eta 49.2. artikuluetan ezarritako kasuetan, eskabidearekin batera, aldameneko establezimenduen baimenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Baimen hori berariaz emango da, terraza eduki nahi den denboraldirako, eta, harekin batera, Udalak baimendutako jardueraren titulartasuna egiaztatzen duen agiria jasoko da.

3.- Oro har, eskabideak aurreko ekitaldiko urriaren 15etik abenduaren 10era bitartean egin beharko dira, Udalak aurrez horretarako deialdia egin ondoren. Ez da horrela jokatu terrazen denboraldia urtebetetik beherakoa denean, kasu horretan eskabideak hilabete lehenago egin beharko baitira gutxienez, denboraldi horren hasierako eguna aintzat hartuta. Eskabidea egiteko finkatuta dauden epeak bete gabe egiten diren eskabideak iraupen laburragoko denboraldirako terrazen baimen-eskabide gisa izapidetuko dira.

Epe horietatik kanpo egiten diren eskabideak ez dira izapidetuko, salbuespeneko kasu batzuetan izan ezik; hona salbuespenak:

- a) Baimentzen diren ostalaritzako establezimendu berriak.
- b) Irekitzeko lizentziaren titulartasuna aldatzen duten establezimenduak.
- c) Izatezko okupazioa erregularizatzeko eskabideak, titularrak egoera legeztatu nahi badu, eta dudarik gabe eta eskabidea egiteaz batera egiaztatzen badu dagokion isuna ordaindu duela, jabari publikoa baimenik gabe harteagatik.

Kasu horietan, edozein unetan egin ahal izango da eskabidea, eta hilabeteko epean emango da horri buruzko ebazpena. Nolanahi ere, eskabideek aurrerago zehaztuko ditugun terraza-denboraldiei buruzkoak izan beharko dute.

Baimendutako terraza duten ostalaritzako establezimenduek deialdi edo epe orokor hau baliatuko dute terraza jartzeko denboraldian edota terrazaren egitura fisikoan bertan aldaketak proposatzeko.

34. ARTIKULUA.- Estalki finkoa jartzeko proiektua

1.- Estalki finkoa jarri nahi bada, agiriarekin batera, 46. artikuluan adierazitakoari jarraiki prestatutako proiektu teknikoa jaso beharko da, estalkiaren plano zehatzak azaltzeko; plano 1:20 eskalakoa izango da, eta oinplanoa eta altxaera zehaztuta egongo dira.

2.- Proiektu horretan, alderdi hauek azalduko dira: itxura eta dimentsioak, osatzen duten materialak, suaren aurkako erresistentzia (gutxienez M-2), sekzioak, ainguratzeak, haizearen aurkako erresistentzia (jasan dezakeen gehieneko abiadura adierazita), etab. Horrez gain, eskumena duen teknikari batek sinatu, eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi beharko du. Harekin batera, muntatze-lanaren ziurtagiria, eta eraikitze edo erosteko eta muntatzeko aurrekontua aurkeztu beharko da.

3.- Estalki finkoa jartzeko proiektua, oro har, bakarrik baimenduko da zerbitzatuko duen ostalaritzako establezimenduaren fatxadak duen luzera berbererako, eta gutxienezko azalera oinplanoko 14 m²-koa izango da.

4.- Estalki finkoa jarri nahi duten ostalaritzako establezimenduek aurrez eskatu ahal izango diote iritzia Udalari, terrazako estalkirako duten proiektu zehatzari buruz, eta, ildo horretan, instalazioa deskribatzen duen krokisa aurkeztuko diote. Bertan, argi jasoko dituzte okupazioaren neurriak, oinplanoa eta altxaera, eraginpeko espazio publiko zehatzarekin duen harremana, zerbitzuak eta inguruabarrak, eta jarri nahi den instalazioa deskribatzen duen argazki-muntaketa edo infografia. Udalaren iritzia banaka jakinaraziko zaie titularrei, behin

betiko proiektua presta dezaten, Udalaren zehaztapenak betez, eta beharrezkoak ez diren lanak eta gastuak saiheste aldera.

35. ARTIKULUA.- **Baimena ematea**

1.- Aurreko artikuluetan adierazitako moduan eskaera egin ondoren, ikuskatzeko bisita egingo da, edo harremanetan jarriko dira eskatzailearekin, terrazaren tamaina eta kokapen zehatza argitzeko. Nahitaezko txosten teknikoa eta juridikoa prestatu ondoren, eskumena duen udal-agintariak ebazpena emango du hilabeteko epean.

2.- Nolanahi ere, baimena emateko, inguruabar hauek hartuko dira kontuan: ostalaritzako establezimenduaren azalera erabilgarria eta baimendutako gehieneko edukiera. Erreferente nagusia, irizpen partikularraren mende egongo dena, hauxe izango da: baimenduko den terrazaren azalera ez du 1,5 aldiz gaindituko establezimenduaren fatxadak duen luzera. Era berean, aintzat hartuko da espazio publiko zehatz bakoitzean ostalaritzako edo beste mota bateko establezimenduren bat batera dagoen, bertan dauden zerbitzu publikoak, oinezkoen zirkulazioaren bizitasuna, bidean dagoen merkataritzako ekipamenduaren maila, etab.

3.- Txosten teknikoa agiri edo fitxa baten bidez islatuko da, eta, bertan, grafikoen bidez jasoko dira baimenduko den instalazioaren baldintza zehatzak (kokapena, okupazioaren azalera, mahaian eta aulkien kopurua, eta bestelako osagaiak).

4.- Eskatu diren eta eskumena duen administrazioko unitateak baimendu dituen osagai guztiak jasoko dira baimenetan, bai eta eskatuta egon gabe nahitaez jarri behar diren horiek ere (manparak, etab.).

36. ARTIKULUA.- **Terrazen funtzionamendu-aldia edo denbora-eremua**

Ostalaritzako terrazak jartzea denboraldi hauetan egongo da baimenduta:

-Urteko denboraldia, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

-Denboraldi luzea,..... martxoaren 1etik urriaren 31ra.

-Denboraldi ertaina,..... maiatzaren 1etik urriaren 31ra.

- Udako denboraldia,..... ekainaren 1etik irailaren 30era.

- Udako denboraldi laburra,..... uztailaren 1etik abuztuaren 31ra.

-Udako hilabeteko denboraldia,..... uztaila edo abuztua.

Denboraldi bakoitzaren barruan ezin izango da denboraldirik aldatu. Eskatzen den aldaketak hurrengo denboraldian izango du eragina.

37. ARTIKULUA.- **Berritzea**

Lizentzien indarraldiak dagokien denboraldiaren iraupena izango du, baina automatikoki berrituko dira hurrengo ekitaldiko denboraldi berbererako, titularrak aurkakorik adierazten ez bada aurreko 33.3. artikuluan edota ondorio horretarako egiten den jakinarazpen berezian adierazitako epean. Nolanahi ere, atzera egin ahal izango da, baimenduta dauden terrazaren edozein instalazioren denboraldi zehatzaren hasieran, 15 eguneko aurrerapenez.

Fatxadako lerroaren ondoan, eta aldameneko establezimenduetan eragina izanik, terraza jartzeko baimena duten establezimenduek hurrengo ekitaldirako baimena berritzen badute, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, berriztatzeko jakinarazpenean adierazitako epe barruan:

terrazza establezimendua dagoen eraikineko fatxadaren lerrotik badoa, aldameneko establezimenduen adostasun gaurkotuta, eredu ofizialari jarraiki.

38. ARTIKULUA.- **Muga orokorrak**

1.- Debekatuta dago terrazak jartzea, Udal honekin premiamendu-bidez edo prozedura betearazlearen bidez eska daitezkeen zorrak dituzten ostalaritzako establezimenduei loturik; eta horretarako baimenik eman bada, horiek indarririk gabe geratuko dira.

2.- Udalak baimendutako edo sustatutako jai-, kultura-, herritar- eta kirol-jarduerak eginez gero, baimenak aldi baterako geldiarazi ahal izango dira, I. Tituluan adierazitako izaera juridikoarekin bat etorrita. Era berean, baimenak geldiaraziko dira herri-lanak dauden bitartean, edo zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek edota espazio publikoa baliatu behar duten partikularrek obra pribatuak egiten dituztenean, obra horiek baimenduta dauden denboraldian.

3.- Era berean, debekatuta dago instalazio horiek jartzea zenbait tokiren ondoan edo aurrean;

hona tokiak: oinezkoentzako pasabideak, ahalmen urriko pertsonentzako aparkatzeko plazak, autobusen geralekuak, taxien aparkalekuen burualdea –hasieratik neurtuta 9 m-ko luzera badu–, tranbiaren plataforma –gutxienez 3 metroko tartean–, beirazko, kartoizko, zaborretarako edukiontzia, etab. Bestalde, aske utzi beharko dira ur-harguneak, sute-ahokak, estolderiako kutxatila eta erregistroak, eta gainerako zerbitzu publikoak, hala behar duten zerbitzu publikoek berehalaxe erabili ahal izan ditzaten.

4.- Oro har, debekatuta dago ostalaritzakoa ez den jarduerarik egitea, horretarako baimen berezia beharko baita, eta gutxienez 10 egun lehenago eskatu beharko da; ildo horretan, hauek dira ostalaritzako jarduerak: edariak eta janariak baizik ez zerbitzatzea, eta olgeta- eta merkataritza-izaera duten era guztietako ekitaldiak.

5.- Debeekatuta dago baimenduta dauden terrazetan soinu-iturriak (musika, girotzekoa, etab.) edota zuzeneko musika eta irudi-errepuzitzaileak izatea. Tankera horretako osagaiak jartzeko edo musikako jarduerak egiteko, aurrez eskabidea egin eta berariazko baimena eskuratu behar da. Baimen horretan, argi finkatuko dira zenbait baldintza, hala nola, ordutegia, soinu-emisioaren gehieneko maila eta egokitze jotzen diren bestelako alderdiak.

6.- Ez da inola ere terrazak jartzeko baimenik emango, dagokion sektoreko araudiak galarazten badu. Aurrez emanda dauden baimenak erabat deusezak izango dira.

39. ARTIKULUA.- **Muga bereziak**

Oro har, debekatuta dago terrazak jartzea, haien bereizgarri fisikoak direla-eta edo oinezkoen zirkulazioaren maila edo bizitasuna dela-eta, pertsonen segurtasunerako, eta haien mugikortasuna eta irisgarritasuna bermatzeko desegokia izan daitekeen lekuetan. Eskabideari buruzko ebazpena ematerakoan, honako inguruabar hauek hartu beharko dira kontuan bereziki: oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioan duen eragina, trenbidea doan ibilbidetik gertu dauden ostalaritzako establezimenduak, baimendutako ibilgailuetarako pasabideak, alderdian dauden bestelako hiri-altzari, zerbitzu, eraikin, establezimendu eta zerbitzu publikoetarako sarbideak eta larrialdietarako irteerak, eta leku horietan dauden osagai funtzionalak eta seinaleak ikusteko egon daitezkeen oztopoak.

II. KAPITULUA.- **BAIMENDUTAKO ERABILERAREN BALDINTZAK**

40. ARTIKULUA.- **Ordutegia eta funtzionamendu-arauak**

1.- Terrazak muntatzeko ordutegia 8:00etan hasiko da, eta terrazen funtzionamendu-ordua 8:30etik 23:00etara izango da. Ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan, ordubete beranduago itxi ahal izango da. Era berean, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, ordubete beranduago itxi ahal izango da. Azkenik, Aste Nagusian, ostalaritzako terrazek bi ordu beranduago itxi ahal izango dute; baina Aste Nagusiko ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan, gehikuntza ordu eta erdikoa izango da. Gehitutako ordu horiek metakorrak izango dira. Ordutegi horiek egon arren, ez dira inola ere indargabetuko eskumena duen erkidegoko agintariaren araudian ostalaritzako lokaletarako finkatuta daudenak. Instalazioak 30 minututan hustu beharko dira, funtzionamendu-ordua bukatzen denetik hasita.

2.- Oinezkoentzako aldeetan eta kaleetan, zamalanak amaitu eta ordu erdia igaro ondoren abiaraziko da instalazioa jartzeko ordua.

3.- Terrazaren funtzionamendu-ordua eta husteko aldia bukatu ondoren, bide publikoan dauden eta ainguratuta ez dauden osagai guztiak jaso beharko dira, eta ondorio horretarako dagoen lokal pribatu eta itxi batean gorde beharko dira. Osagai horiek kentzeko lanek ez dute 30 minutu baino gehiago iraungo, eta lan hori egin bitartean ez da zaratarik ez eragozpenik sortuko.

4.- Ezin izango da inola ere bide publikoa hartu, aulki, mahai, eguzkitako eta antzeko osagaien pilekin, ez eta terrazako bestelako osagai lagungarriekin ere.

5.- Udalak eskatzen badio, baimenaren titularrak edozein unetan egiaztatu beharko du jardueraren arriskuei dagokien erantzukizuneko aseguru egokia duela, 6.6. artikuluan finkatutakoa betez.

41. ARTIKULUA.- **Hartuko den azalera mugatzea eta baimena erakustea**

1.- Lizentzia lortuta, titularrak bere kabuz seinalatu beharko ditu lekuan, argi eta zehatz, baimendutako okupazioaren gehieneko azalaren mugak.

2.- Hori zehazteko, 5 cm-ko zabalerako lerro zuri bat margotuko da zoladuran, 15 cm-ko 90°ko angeluak osatuz albo bakoitzean, baimendutako okupazio-aldearen deskripzioko lerroen elkarguneetan. Lerro hori ezin izango da inola ere aldatu baimenik gabe. Seinalerik ez badago, baimena jaso duen pertsonaren erantzukizuna izango da hori, eta ez beste inorena.

3.- Mugatzeko sistema nahitaezkoa izango da terrazak fatxaden ondoan jartzen direnean. Horretarako, babes mugikorrek jarriko dira alboetan; babes horiek ez dira inola ere arriskutsuak izango hortik ibiltzen direnentzat, eta ez dute kalterik eragingo edo aldaketarik sortuko bide publikoan.

4.- Terraza jartzeko baimenaren titularrak, oro har, jendaurrean erakutsi beharko du nahitaez baimena egiaztatzen duen administrazio-agiria, eta, horretarako, establezimenduaren fatxadan edo baimendutako terrazaren esparruan jarriko du. Agiri horrek argi jasoko ditu baimendutako instalazioaren krokisa, okupazioaren azalera, altzariak eta instalazio osagarri guztiak, baimendutako denboraldia eta, hala behar denean, estalki finkoa edo ainguratua baimenduta dagoen edo ez.

42. ARTIKULUA.- Instalazioak garbitzea eta apaintzea

1.- Lizentziaren titularrak garbitasun, segurtasun eta apaindurako baldintza egokietan eduki beharko ditu baimendutako okupazioaren lurzorua, instalazioa eta osagai lagungarriak. Horretarako, beharrezkoak diren baliabide guztiak erabiliko ditu, esate baterako, paperontziak eta hautsontziak jarriko ditu, eta etengabe pasako du erratza zorutik eta garbituko ditu mahaiaik eta aulkiak.

2.- Pertsona horrek izango du terrazaren funtzionamenduaren eta erabileraren ondorioz Ingurunea babesteko Ordenantzari egin ahal zaizkion arau-hausteen erantzukizuna.

III. KAPITULUA.- IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO ESPALOIETAN JARTZEKO BALDINTZAK

43. ARTIKULUA.- Espaloiaren gehieneko luzetarako garapena eta gutxieneko zabalera

1.- Establezimendu bakoitzaren instalazioak izango duen gehieneko garapena, eraikinaren fatxada batean edo batzuetan, alboko babesak ere barne hartuta –horiek edozein izanik ere–, ez da inoiz luzetako hamabi (12) metrotik gorakoa izango.

2.- Gehieneko muga hori alde batera utzita, proiektuan jasotako instalazioak jarduera nagusia dagoen lokaleko fatxadaren luzera gainditzen badu, eta luzetarako garapena ostalaritzako establezimendua dagoen eraikineko fatxadaren aldamenean bada, behar bezala egiaztatu beharko da mugan egongo diren gainerako lokaletako titularrak ados daudela, betiere, lokal horietan jardueraren bat badago. Ostalaritzako terrazaren alboan dagoen lokalaren (edo lokalen) baimena egiaztatzeke, jardueraren titularrak sinatutako agiria erakutsi beharko da. Titularrak bere burua identifikatuko du, izena eta bi deiturak, izen soziala, NAN edo IFK, helbidea eta jarduera irekitzeko lizentzia azalduz. Horrez gain, baimen esplizitua, berariazkoa eta baldintzarik gabekoa emateko adierazpena jasoko du, terraza jarri nahi den denboraldiaren iraupen osoari dagokiona, eta ezeztazina dela berariaz agertuko du.

3.- Ezin izango da terrazarik jarri 2,90 metrotik beherako zabalera duten espaloietan, ez eta zirkulazio arinekoak diren eta galtzadako babesik ez duten bideen ondoan ere.

44. ARTIKULUA.- Okupazioa

1.- Ordenantzaren 38. eta 39. artikuluetan jasotako mugei kalterik egin gabe, terrazek eta mahaitxo oinbakarrek okupazioari buruzko baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Instalazioak une oro bermatu beharko du fatxadara bitartean gutxienez bi (2) metroko zabalerako oinezkoentzako ibilbide iraunkor bat, oztoporik gabekoa; gutxieneko ibilbide hori espaloi-zabalera hauen arabera moldatuko da:

-. 2,90 m-tik 4 m-ra bitartean, 2 m-ko oinezkoentzako ibilbide askea utziko da. Terrazaren zabalera 60 cm eta 170 cm bitartekoa izango da.

-. 4,01 m-tik 5 m-ra bitartean, 2,50 m-ko oinezkoentzako ibilbide askea utziko da. Terrazaren zabalera 120 cm eta 220 cm bitartekoa izango da.

-. 5,01 m-tik 6,30 m-ra bitartean, 3,00 m-ko oinezkoentzako ibilbide askea utziko da. Terrazaren zabalera 170 cm eta 300 cm bitartekoa izango da.

-. Azkenik, 6,30 m-tik gorakoa bada, 3,50 m-ko oinezkoentzako ibilbide askea utziko da.

Terrazaren zabalera 250 cm baino gehiago eta 4 m baino gutxiago izango ditu.

b) Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, oinezkoentzako ibilbide askea zabaldu ahal izango da, eskumena duen administrazio unitateak arrazoiz hala jotzen badu, ibiltarien zirkulazioaren bizitasuna dela-eta beharrezkoa denean.

2.- Oro har, luzetara jarriko dira espaloien ertzaren ondoan, ertzeraino hogeita hamar (30) cm-ko tartea utzita gutxienez, aparkatuta dauden ibilgailuetako pertsonen sarrera eta irteera ez oztotatzeko. Ez da horrela jokatu, ordea, babesteko hesia badago; hala izatekotan, gutxienez hamar (10) cm-ko tartea utzi beharko baita barneko proiektio bertikaletik hasita. Ibilgailuak zeharka aparkatzen badira, terraza eta espaloien ertza bitartean utzi beharreko tartea hirurogei (60) cm-koa izango da gutxienez.

3.- Behar bezala argudiatutako salbuespeneko kasuetan, terraza edo mahaitxo oinbakarra establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri behar baldin bada, hori baimendu ahal izango da, administrazio-unitate horrek adierazitako diseinuari eta baldintzei jarraiki; era berean, oinezkoentzako ibilbideen zabalera eutsi beharko zaio, lehen adierazi ditugun espaloi-zabalerak aintzat hartuta.

45. ARTIKULUA.- **Alboetako babesak**

1.- Instalazioak hartzen duen azalera zedarritu ahal izango da, esparrua mugarrituko duten alboetako babesak jarri. Horien bidez, itsuek oztopoa identifikatu ahal izango dute. Bestalde, babes horiek nahitaezkoak izango dira terrazak fatxadako lerroaren ondoan jartzen direnean eta baimenak horrela zehazten duenean.

2.- Alboetako babes horiek mugikorak izango dira, eta gardenak edo opakak, baina ingurune baldintzei ondo egokituta egongo dira beti. Egokiak diren jakiteko, eskumena duen administrazio unitateak emango du oniritzia.

3.- Ezin izango dute instalaziorako baimendu den zabalera gainditu, eta beren garaiera ez da metro (1) batetik beherakoa izango, ez eta metro bat eta berrogeita hamar cm-tik (1,50) gorakoa ere. Nolanahi ere, 5 cm luzatu beharko dira gutxienez espaloien aldatsetik.

46. ARTIKULUA.- **Estalki finkoak**

1.- Kapitulu honetako aurreko artikuluei jarraiki mugatutako gunea behin-behineko osagaiz estali ahal izango da. Osagai horiek erraz desmuntatzeko modukoak izango dira, espaloien ainguratuta egongo dira, eta, gainera, baldintza hauek beteko dituzte:

a) Gehienez, luzerako lau (4) metroko lau finkagune eduki ahal izango dituzte soilik.

b) Eskuineko oinak ezin izango dira bi (2) metro baino gehiago banandu zeharka, beren alderik urrutienetan.

c) Zutik dagoen edozein oinen eta espaloien kanpoaldeko ertzaren arteko distantzia hogeita hamar (30) zentimetro izango da gutxienez. Ez da horrela jokatu, babesteko eskudela baldin badago; hala izatekotan, hamar (10) zentimetrora kokatu ahal izango da.

d) Estalitako instalaziotik irteten diren osagai guztien beheko ertzak berrehun eta hogeita (220) zentimetroko garaieratik gora egon beharko du.

e) Instalazioaren alboetako babesak zabalik egongo dira goialdean, eta haien garaierak ez du inoiz bat eta berrogeita hamar (1,50) zentimetrotik gora joko; bestalde, ezin izango da leiho irristatzailerik jarri.

2.- Estalkiek diseinu berezia eta irekia izango dute; hor, ikusmenen iragazkortasunak izango du lehentasunak; beraz, estalkiak ez dira oztotatu izango hiria hautemateko, eta ez dute edukiontzi trinko baten modura jokatu. Ahal dela, egiturazko osagaiak altzairuzkoak izango dira (herdoilezina, galdaturiko burdina...); eta azken akabera margotuta badago, pintura hori oxidioa izango da, edo inguruan dagoen hiri-altzariak duen horixe bera bestela.

3.- Estalki finkoak ainguratzerik gabe jarri ahal izango dira, betiere, argi bermatzen bada egonkorak eta mugiezinak direla.

47. ARTIKULUA.- **Estalkiak jartzeko mugak**

Eskumena duen udal-organoak ezetza eman ahal izango dio estalkia jartzeko eskabideari, ondoko kasu hauetan:

- Bide-segurtasunerako kalteren bat ekar badezake (ikus-eremua

gutxitzea, edo gidariei arreta galaraztea, trenbidearen ustiatze-erregimena, etab.), edo oinezkoen zirkulazioa era nabarmenean zaildu ahal badu.

- Hurbil dauden eraikinen eta lokalen segurtasunean eragina izan ahal badu (husteko, etab.).
- Forma aldetik desegokia bada edo ingurunearekin bat etortzen ez bada, edota hiri-paisaiaren ulermen zuzena zailtzen badu.
- Luzetarako garapenak dena delako establezimenduari dagokion fatxadaren luzera gainditzen badu.

IV. KAPITULUA.- OINEZKOENTZAKO GUNEETAN, PLAZETAN ETA ESPAZIO LIBREETAN INSTALAZIOA JARTZEKO BALDINTZAK

48. ARTIKULUA.- Oinezkoentzako kaleak

1.- Ordenantza ezartzeari begira, oinezkoentzako kaleak zati batean edo erabat itxita daude ibilgailuentzat, ordu edo denbora aldetik, eta hori adierazten dituzten seinaleak dituzte; berdin dio haien egituratze fisikoa zein den. Instalazio bakoitzak luzetara izango duen gehieneko garapenak ez du inoiz joko luzerako 12 metrotik gora, fatxada batean edo hainbatetan.

2.- Terrazen luzerako garapena eraikinetako fatxaden ondotik badoa eta proiektuan jasotako instalazioaren luzerak dena delako establezimenduak duen fatxadaren luzera gainditzen baldin badu, orduan, aldameneko lokalek emandako baimena beharko da, 43.2. artikuluan adierazitakoarekin bat etorrira. Luzetarako garapena bidearen ardatzetik badoa eta aurrez aurre ostalaritzako establezimenduak badaude, terrazak jartzeko zabalera erabilgarria banatuko da.

3.- Terrazak eta mahaitxo oinbakarrak bakarrik onartuko dira gutxienez bost (5) metroko zabalera duten oinezkoentzako kaleetan. Bestalde, era egokian jarri beharko dira, gutxienez, hiru (3) metroko zabalera utzita, oinezkoentzako ibilbidean oztoporik egon ez dadin, eta babes zibileko ibilgailuak, garbiketakoak edota anbulantziak igaro ahal izan daitezen. Bidearen zabalaren gehieneko okupazioak ez du bidearen %40 gaindituko.

4.- Hamar (10) metroko edo gehiagoko zabalera duten oinezkoentzako kaleetan, ondo bermatuko da oinezkoentzako ibilbidea etengabe egongo dela, batere oztoporik gabe. Ibilbide horren zabalera ez da bost (5) metrotik beherakoa izango, fatxadaren lerrokadura bakoitzean; bestela, bat egongo da erdian, hiri-altzariaren baldintzen arabera.

5.- Instalazioak alboetatik zedarritu eta babestu ahal izango dira, 45. artikuluan ezarritakoari jarraiki; instalazioaren diseinua fatxadaren ondotik baldin badoa, nahitaezkoa izango da mugatzea eta babestea.

6.- Era guztietako inguruabarrek horretarako aukera ematen badute, osagai finkoekin estali ahal izango da, teknikariak horri buruz egindako txostenarekin bat etorrira. Osagai horiek lurrari ainguratuta edo ainguratu gabe egongo dira; eta eguzkitako arruntak edo antzeko osagai mugikorrek erabili ahal izango dira. Estalki mugikorrek edo finkoek ez dute inola ere murriztuko gutxienez hiru (3) metrokoa izango den igarobide askea, haien gutxieneko garaiera berrehun eta hogeita (220) zentimetrokoa izango da, lurretik neurtuta, irteten den edozein osagaiaren behealdeko ertzetik hasita.

49. ARTIKULUA.- Plazak eta espazio libreak

1.- Espazio horietan terrazak eta mahaitxo oinbakarrak jartzeko baimen-eskaerak udal-administrazioak ebatziko ditu, kasu zehatz bakoitzak dituen bereizgarriak ikusita, eta muga orokor batzuei jarraiki; hona mugak:

a) Instalazioak inoiz ez du gaindituko etenik gabeko hamabi (12) metroko luzera.

b) Behar bezala bermatuko da oztoporik gabeko oinezkoentzako ibilbide bat; ibilbide horrek gutxienez lau (4) metroko zabalera izango du fatxadaren lerrokadura bakoitzean; bestela, bat egongo da erdian, hiri-altzariaren baldintzen arabera.

c) Une oro egongo da bermatuta lokal, atari eta gainerako toki guztietara sartzeko irisgarritasuna.

2.- Gehieneko muga hori alde batera utzita, proiektuan jasotako instalazioak jarduera nagusia dagoen lokaleko fatxadaren luzera gainditzen badu, eta luzetarako garapena ostalaritzako establezimendua dagoen eraikineko fatxadaren aldamenean bada, behar bezala egiaztatu beharko da aurrean egongo diren gainerako lokaletako titularrak ados daudela, 43.2. artikuluan adierazitako eran.

50. ARTIKULUA.- Espazio libre bereziak

Espazio libre berezietan (Guggenheim Museoa, Arte Eder Museoa, Euskalduna Jauregia, Plaza Barria, Unamuno Plaza, Santiago Plaza, etab.) eskumena duen administrazioko unitateak ebatziko ditu terrazak eta mahaitxo oinbakarrak jartzeko lizentzien eskabideak, arrazoiak emanez, ingurunea, ikusmen-eragina, pertsonen eta ibilgailuen fluxua, eta egokiak izan daitezkeen bestelako inguruabarrak aintzat hartuta, eta, betiere, araudi orokorra ezartzen ahaleginduz.

V. KAPITULUA.- IRIZPIDE ESTETIKOAK

51. ARTIKULUA.- Irizpide orokorrak

Oro har, udalerrri osoan, debekatuta dago publizitatea jartzea terrazako osagaietan edo osagai lagungarrietan, ostalaritzako lokaleko publizitatea ez bada, hau da, lokalaren izena edo logoa ez bada. Lokalaren publizitate hori terraza osatzen duten altzarietan egon daiteke inprimaturik, eta gehieneko okupazioko azalerak hauek izango da:

- Toldo eta bestelako estalkietan, gehieneko okupazioa 60 cm x 20 cm izango da, aurpegi bakoitzeko hegala bakoitzean.

- Eguzkitakoen hegaletan, eta aulki, mahai eta manparetan, gehieneko okupazioa 20 x 20 cm izango da.

Hala eskabide berrietan, nola berritzeko egindako eskaeretan, argi adierazi beharko dira jarriko diren altzarien ezaugarriak, eta Udaleko zerbitzu teknikoek emandako oniritzia eduki beharko da. Horrekin batera, erabili nahi diren aulki-, mahai- eta eguzkitako-moten argazkia jasoko da, bai eta baliatu nahi diren bestelako osagai lagungarrien argazkiak ere.

52. ARTIKULUA.- Irizpide bereziak

Zazpi Kaleetan, oro har, eta, bereziki, Plaza Barrian terrazak jartzeko, arau hauek bete beharko dira:

1.- Tankera honetako instalazioetarako lizentzien titularrek ezin izango dute plastikozko altzaririk erabili.

2.- Toldo-eguzkitakoek, aurreko puntuan adierazitakoa betetzeaz gain, diseinu eta tratamendu kromatiko bateragarria izan beharko dute, inola ere ez deigarria edo nabarmena, osagai horiek baitira, izan ere, terrazen ikusmen-aldetik gehien nabarmentzen direnak eta eragin gehiago dutenak. Era berean, diseinatutako oina izango dute, hormigoizko oinarriak debekatuta baitaude.

3.- Plaza Barrian kokatuta dauden ostalaritzako establezimenduek proposamen orokor bat prestatuko dute guztiontzat, toldoen, eguzkitakoen, mahaien eta aulkien diseinua eta kolorea zehazteko. Udal-administrazioak onetsi ondoren, oinarri gisa erabiliko da hortik aurrera. Horrelako proposamenik egin ezean, Udalak berak ezarriko ditu irizpide horiek.

VI. TITULUA.- KALEZ KALEKO SALMENTA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

53. ARTIKULUA.- Kalez kaleko salmentaren azalpena

Kalez kaleko salmenta hauxe da: saltoki batetik kanpo, desmuntatu ahal diren postuetan edo instalazioetan edota horrelakorik gabe, hiriko bide publikoan edo espazio libre eta irekietan ohiko edo noizbehinkako saltzaileek egiten duten merkataritzako jardura.

Kalez kaleko salmenta aurrerago aipatuko ditugun aldian behingo edo noizbehinkako azoketan eta azoka txikietan egingo da, eta denboraldiko postu finkoetan ere bai, betiere, Udalaren nahitaezko baimena lortu ondoren, hala behar denean, baimen hori eduki gabe ezin izango baita inolako salmentarik egin. Guztiz debekatuta dago oinezko salmenta, mantarekin egiten den salmenta, eta ibilgailuekin edo kamioi-dendekin egiten dena. Baimena eman ahal izango da prestatutako janaria eta edariak saltzeko, ondorio horretarako atondutako furgonetetan edo ibilgailu berezietan, jaiak direnean, edo jardura hori arauz baimenduta duten azoka txikien barruan, denboraldi baterako edo urterako.

54. ARTIKULUA.- **Kalez kaleko salmenta-motak eta Udalaren ahalmenak**

1.- Hona hemen kalez kaleko salmentaren motak:

- a) **Aldian behingo azoka txikiak:** tradiziozkoak edo berriak diren saltzeko postuen multzo hauek espazio publikoko leku jakin eta zehatz batzuetan jartzen dira astean behin.
- b) **Noizbehinkako azoka txikiak:** saltzeko postuen multzo hauek aurrez zehaztuta ez dauden espazio publikoetan jartzen dira, azokak, jaiak edo edozein motatako hiri-gertakizunak direnean.
- c) **Denboraldiko postu finkoak:** Bilboko espazio publikoko zenbait lekutan, salgai jakin batzuk merkaturatzeko, denboraldi batez jartzen diren saltzeko postu bereziak dira.
- d) **Furgonetarekin edo ibilgailu bereziekin egindako salmenta:** furgoneta bezalako ibilgailuen edo ibilgailu berezi hauen bidez janaria eta edariak merkaturatzen dira, eta baimendu ahal dira jaiak, eta aldian behingo eta noizbehinkako azoka txikiak direnean, edota erregulartasunez.

2.- Alkate-udalburuak du baimena emateko ahalmena aldi behingo eta noizbehinkako azoka txikiak jartzeko, eta denboraldiko postu berriak eta ibilgailuen bidez egiten diren beste salmenta-mota batzuk jartzeko. Era berean, berak izango du ahalmena azoka txikiak kentzeko, lekuz aldatzeko, postuen kopurua handitzeko edo gutxiagotzeko, postuek hartzen duten azalera aldatzeko, sal daitezkeen objektuak edo gaiak aldatzeko, egokitzen jotzen dituen instalazio-ereduak ezartzeko, eta azoka txiki bakoitzaren arloan sor litezkeen auzi guztiak ebazteko. Postuak finkatuta daudela jotzen denean, saltzeko postu horiek jarri direla ordenantza honen edukian islatuko da; eta hala joko da ondoz ondoko hiru urtez jartzen direnean, edozein motatako aldaketak edo aldakuntzak eginda.

3.- Ez da hiri-perimetrorik zehazten, kalez kaleko salmentari dagokiona alde batera utzita.

55. ARTIKULUA.- **Udalaren baimena lortzeko eta atxikitzeko eskakizunak**

Kalez kaleko salmentarako baimena lortzeko eta horri eusteko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Saltzaileak alta emanda egon behar du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe egokian.
- b) Saltzaileak alta emanda egon behar du dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean, eta egunean izan behar du kuoten ordainketa. Baldintza hori bere kargura dauden langileei eta laguntzaileei ere eskatu ahal izango zaie.
- c) Dagozkion udal-eskubideak epe egokian beteko ditu.
- d) Atzeritarra izanez gero, bizilekua izateko eta lan egiteko baimenak egiaztatu beharko ditu.
- e) Ez da udal-baimena baliogabetzeko helburua izango, ordenantza honetan –batez ere 85. artikuluan– ezarritako arazoak direla-eta.

56. ARTIKULUA.- **Udalaren baimenak eta Kalez Kaleko Saltzaileen Erregistroa sortzea**

1.- Baimenak ematean, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- a) Pertsona titularraren eta, hala behar denean, bere karguan dagoen langilearen edo lankidearen identifikazioa.
- b) Azokaren izena eta postuaren zenbakia, edo, hala dagokionean, jarduera egiteko baimendu den toki zehatza.
- c) Saltzeko baimendutako produktuak.
- d) Jarduera egiteko egunak eta orduak, eta baimenaren balio-epea.
- e) Jarduera egiteko baimendutako azalera.
- f) Instalazioaren ezaugarriak.

Baimena hartzen duen titularrak jarduera egin beharko du, berak zuzenean edo behar bezala baimendutako langile edota lankideen bidez; hori guztia identifikazio-txartel egokiaren bitartez egiaztatuko du, eta une oro izango du saltokian, ikusteko moduko toki agerian.

Azoka txiki bakoitzean baimen bana emango da pertsona bakoitzeko; eta bi azoka txiki edo gehiago aldi berean eginez gero, pertsona horrek ezin izango du baimena aldi berean erabili bi azoketan, eta, beraz, azoka txikietako bat hautatu beharko du.

2.- Azoka txikietan egindako kalez kaleko salmenta kontrolatzeko eta kudeatzeko, kalez kaleko saltzaileen udal-erregistroa sortzea erabaki ahal izango da. Erregistro hori saltzaileen eta azoka txikien arabera prestatuko da. Erregistro horren antolakuntza, arautzea eta irismena alkate-udalburuak emandako ebazpenaren bidez zehaztuko da. Behin argitaratu ondoren, ordenantza honetan sartuko da, eranskin gisa.

57. ARTIKULUA.- Baimenen indarraldia

Aldian behingo azoka txikietan, kalez kaleko salmentan aritzeko baimenen indarraldia urtebete eta lau (4) urte bitartekoa izango da.

Noizbehinkako azoketan, saltzeko baimenen iraupena azokan egiten diren gertakariak eta jaiek duten iraupen berekoa izango da.

Izozkiak, txurroak, gaztainak eta bestelako jakiak saltzeko postu finkoetan, desmuntatzen edo garraiatzen diren postuetan edota ibilgailuetan saltzeko baimenak, bestalde, jarduera horietarako gero zehaztuko den denboraldian egongo dira indarrean. Dena dela, gehienez lau urterako eman ahal izango dira, modalitate bakoitzean egin beharreko inbertsioen arabera.

58. ARTIKULUA.- Instalazioen ezaugarriak

Kalez kaleko salmentan aritzeko instalazioek eta postuek baimenetan zehaztuta dauden ezaugarriak bete beharko dituzte. Nolanahi ere, behar diren baldintzak bete beharko dituzte segurtasun, garbiketa eta estetika aldetik; eta ez da onetsiko haietan publizitaterik jartzea, saltzaileari berari dagokiona izan ezik. Janaria eta edariak saltzeko instalazioek edo postuek zorrotz bete beharko dute osasun- eta merkataritza-arloko araudi berezia.

59. ARTIKULUA.- Baimenak iraungitzea

Baimena iraungitzeko 9. artikuluan aipatu ditugun arrazoiez gain, honako hauek arrazoi bereziak izango dira aldian behingo azoka txikietan eta denboraldiko postu finkoetan kalez kaleko salmentan aritzeko lizentziak edo baimenak iraungitzeko: instalazioen ezaugarri teknikoak edo estetikoak ez betetzea, postuan eta inguruneetan higienerik eta garbitasunik ez egotea, edota baimena emateko baldintzak bete ez izateagatik akatsak konpontzeko egindako hiru eskaera edo salaketa metatzea. Hori gorabehera, egokiak diren isunak jarriko dira. Eskakizun horiek egutegiko urtearen barruan egin beharko dira.

60. ARTIKULUA.- Baimenaren titularrak diren pertsonen eskubideak

Baimendutako pertsonen eskubide hauek dituzte:

- a) Baimenean adierazita dauden salmentako tokiak hartzekoa.
- b) Udalak baimendutako salmenta-jarduera jendaurrean eta era baketsuan gauzatzekoa, baimenean zehaztutako orduetan eta baldintzetan.
- c) Baimendutako azoka kentzen bada, udal-baimenaren jabe denak lehentasunezko eskubidea izango du haren ordezkari egin daitekeen azokan beste saltoki bat lortzeko, edota beste azoka batzuetan izan litezkeen postu hutsak betetzeko, betiere, eskatzen diren baldintza zehatzak betetzen baditu.
- d) Beren eskubideak eta interesak aldeztuko, eta haien merkataritzako jarduera egiten duten azokaren funtzionamendua hobetzeko egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak egiteko.
- e) Heriotza edo erretiroa dela-eta, baimenaren titulartasunean ordezkatuak izateko; kasu horretan, dagokion erregistroan inskribatutako izatezko bikotekidea edo ezkontidea, edota odolkidetasun edo kidetasun aldetik 1. edo 2. mailako senidea dena izango da ordezkaria, eta ordenantzaren finkatuta dauden baldintzak eta eskakizunak bete beharko ditu. Ordezkapena egin ahal izateko, Udalak formaz onartu beharko du, eta indarrean egongo da baimenaren iraungitze-epea amaitu arte. Inork ezin izango du inoiz ordezkaria ordezkatu.

61. ARTIKULUA.- Baimenaren titularrak diren pertsonen eskubideak

Baimena jaso duten pertsonen betebeharrak hauek bete behar dituzte:

- a) Salmenta desmuntagarriak eta erraz garraiatzeko modukoak diren saltoki edo

instalazioetan, edota taberna-furgonetetan egingo da; horiek aplikatzekoak diren legezko eta arauzko xedapenenetan ezarritako eta Udal Administrazioak eskaturiko baldintzak bete beharko dituzte. Segurtasun, osasungarritasun eta apaindurako baldintza egokiak bete beharko dituzte beti. Salgai guztiak behar bezala babestuta erakutsi beharko dira jendaurrean, gutxienez lurretik 60 cm-ko garaierara, aurrez Udalaren baimena izanda. Salbuespena izango dira, ordea, garaiera edo pisu aldetik arazoren bat sortzen duten gaiak. Merkatariek berariaz esleitu zaien espazioa baino ezin izango dute hartu beren saltokiarekin eta salgaiekin.

b) Saltokien jabeek agerian jarri beharko dute Udalak ematen dien identifikazio-txartela. Betebehar hori ez betetzen ez bada, edota baimenean zehazten ez diren produktuak saltzen badira, saltokia badaezpada itxiko da; hala behar denean, salgaia atzemango da, eta, hori gorabehera, bidezkoak diren zehatze-jarduerak abiaraziko dira.

c) Saltzaileek ikusteko moduan jarritako kartel baten bitartez jakinaraziko dute kontsumitzaileen erreklamazioei non erantzungo dieten, halakorik baldin badago. Nolanahi ere, helbide hori salmentaren ordainagirian edo egiaztagirian ere agertuko da. Udalak aurrez horrela onartzen badu, baimena jaso duen pertsona bakoitzak duen banakako betebehar horren orde, txartel bakar bat jarri ahal izango da azoka txikiko saltoki guztietarako, betiere, baimenean adierazitako eran jartzen bada.

d) Saltzaileek, merkataritza-jarduera gauzaterakoan, zorrotz bete beharko dituzte indarrean dauden unean uneko arauak osasun publikoa babesteaz, merkataritza, merkaturiko diziplinaz, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesaz xedatu dutena, zerga-araubidea eta Gizarte Segurantzaren araubidea.

e) Saltzaileak izango dira saltzen dituzten produktuen kalitatearen erantzule. Produktuek ez dituzte arriskuan jarriko kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna, eta ez dira iruzurrezkoak izango kalitatean edo kantitatean, ez eta faltsututakoak edo bereizgarririk gabeak ere. Era berean, saltzen diren produktuek merkataritzarako ezarri diren gutxienezko baldintzak beteko dituzte.

f) Salgai pisagarriak eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula eta metroak izan beharko dituzte.

g) Saltzaileek baimenak irauten duen epe osoan beteko dituzte baimena ematerakoan ezarritako betebeharrak eta baldintzak, bai eta Ordenantza honetako xedapenak eta, hala badagokio, eskumena duen udal-agintaritzak emandako jarraibideak ere bai.

h) Udaleko langileek edo agintariek eskatuta, saltzaileek eskatzen dizkieten agiriak erakutsi beharko dizkiete.

i) Saltokietan pertsona hauetakoren bat egongo da arduradun:

- Pertsona fisikoei esleitutako horietan: titularra, dagokion erregistroan inskribatutako izatezko bikotekidea edo ezkontidea, edota odolkidetasun edo kidetasun aldetik 1. edo 2. mailako senidea, edo haren kargura aritzen den langilea.

- Pertsona juridikoei esleitutako horietan: Gizarte Segurantzako erregimen egokian alta emanda dagoen erakundeko bazkidea edo haren kontura aritzen den langilea.

Saltzaile bakoitzak laguntzaile bat izendatuko du lehen adierazitako pertsonen artean, eta pertsona horrek laguntzaile-baimena izango du. Horretarako, Udalean eskaturiko betebeharrak betetzen dituela frogatu beharko du, besteak beste, familia, sozietate edo lan aldeko lotura duela titularrarekin.

Hori guztia egiaztatu ondoren, eskumena duen administrazio-unitateak baimena emango dio laguntzaile horri, eta haren nortasuna berariaz jasoko du titularrarentzat egingo den nortasun-txartelean.

Baimenik ez duen pertsonarik ezin izango da saltokian egon.

j) Azoka zabaldu aurreko bi orduetan eta azoka itxi ondoko orduan sartu ahal izango dira ibilgailuak, produktuen zamlanak egiteko. Salmenta-orduan, ibilgailuak ezin izango dira azokaren barrualdetik ibili.

k) Azoka amaitzean, kaleko merkatariek saltokiarekin harturiko lekutik alde egingo dute eta ingurua garbi utziko dute.

l) Saltokien titularrak izango dira zoruan, inguruko zuhaitzetan edo, oro har, jabari publikoko ondasunetan eragindako kalteen erantzule. Hori gorabehera, beren jardueraren ondorioz, hirugarrenen –hala ondasunei nola pertsonen– kalte edo minik egiten badiete, erantzule izango dira. Ildo horretan, erantzukizun zibileko aseguru egokia eduki eta egiaztatu beharko dute.

m) Ezin izango da ozengailurik erabili, Udalak berariazko baimena ematen duenean izan ezik.

Udalak baimena ematen badu, auzitan dauden interesak hartuko ditu kontuan

II. KAPITULUA.- ALDIAN BEHINGO AZOKAK

1. ATALA.- BOLUETAKO AZOKA TXIKIA

62. ARTIKULUA.- **Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia**

Boluetako azoka txikia Begoñako barrutiko Telleria kalean jartzen da, eta igandeetan egiten da, 9:00etatik 14:00etara. Azoka txikiaren kokapen zehatza eta postuen banaketa ordenantza honen 2.1. eranskineko planoan agertzen da.

63. ARTIKULUA.- **Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak**

Azoka txikian zedarritutako espazioan 242 saltoki jar daitezke; saltoki bakoitzak 4 metroko aurrealdea izango du, eta 1,5 metroko sakonera.

Oro har, sal daitezkeen gaiak hauek dira: erabilitako objektuak, oinetakoak eta poltsak, era guztietako ehun-gaiak, imitaziozko bitxiak, opariak eta apaingarri txikiak, eskulangintza, etxeko hornidurak eta burdinkiak, musikako gaiak eta euskarriak, ikus-entzunezkoak, jolasak eta kosmetikoak. Era berean, baimena emango da saltokiak hartuko duen azalera behar bezala homologatutako taberna-furgonetak jartzeko, komenigarritzat jotzen den kopurua jarri ere. Azken salbuespen hori alde batera utzita, azoka txiki honetan ezin izango da janaririk saldu.

2. ATALA.- OTXARKOAGAKO AZOKA TXIKIA

64. ARTIKULUA.- **Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia**

Otxarkoagako azoka txikia Julian Gaiarre etorbidean jartzen da, eta asteazkenetan egiten da, 9:00etatik 14:00etara. Azoka txikiaren kokapen zehatza eta postuen banaketa ordenantza honen 2.2. eranskineko planoan agertzen da.

65. ARTIKULUA.- **Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak**

Azoka txikian zedarritutako espazioan 103 saltoki jar daitezke; saltoki bakoitzak 4 metroko aurrealdea izango du, eta 1,5 metroko sakonera.

Oro har, sal daitezkeen gaiak hauek dira: oinetakoak eta poltsak, era guztietako ehun-gaiak, imitaziozko bitxiak, opariak, drogeria, burdinkiak eta mertzeriako gaiak, musikako gaiak eta euskarriak, ikus-entzunezkoak eta jolasak.

3. ATALA.- ZORROTZAKO AZOKA TXIKIA

66. ARTIKULUA.- **Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia**

Zorrotzako azoka txikia Fray Juan kalean jartzen da, azoka-lekuaren ondoan, eta asteazkenetan egiten da, 9:00etatik 14:00etara. Azoka txikiaren kokapen zehatza eta postuen banaketa ordenantza honen 2.3. eranskineko planoan agertzen da.

67. ARTIKULUA.- **Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak**

Azoka txikian zedarritutako espazioan 30 saltoki jar daitezke; saltoki bakoitzak 6 metroko aurrealdea izango du, eta metro bateko sakonera.

Oro har, era guztietako ehun-gaiak, oinetakoak eta imitaziozko bitxiak saldu ahal izango dira bertan.

4. ATALA.- PLAZA BARRIKO AZOKA TXIKIA

68. ARTIKULUA.- **Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia**

Zazpi Kaleetako azoka txikia Plaza Barriaren barruan jartzen da, eta igandeetan egiten da, 10:00etatik 14:00etara. Azoka txikiaren kokapen zehatza eta postuen banaketa ordenantza honen 2.4. eranskineko planoan agertzen da.

Azoka txiki hau egoitza-izaerako toki batean jartzen denez eta igandeetan egiten denez, baimendutako pertsonak ezin izango dira saltokia muntatzeko lanekin hasi 8:45 baino lehen, eta guztiz debekatuta dago Plaza Barrira ibilgailuz sartzea.

69. ARTIKULUA.- **Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak**

Azoka txikian zedarritutako espazioan tamaina desberdinetako 46 saltoki jar daitezke; saltokien tamaina bi eta zortzi metro koadro bitartekoa izan daiteke.

Oro har, sal daitezkeen gaiak hauek dira: artea, eskulangintza, enkantea, arkeologiako erreproduktzioak, filatelia, intsigniak, liburuak, diskoak, mineralak, fosilak, numismatika, bildumazaletasuneko gaiak, papergintzako gaiak, eta txoriak, betiere, eskumena duen

administrazioak txori horiek sal daitezkeela egiaztatzen badu.

5. ATALA.- AREATZAKO LOREEN AZOKA TXIKIA

70. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia

Loreen azoka txikia Areatzako kaian dagoen estalpean jartzen da, eta igandeetan egiten da, 10:00etatik 14:00etara. Azoka txikiaren kokapen zehatza eta postuen banaketa ordenantza honen 2.5. eranskineko planoan agertzen da.

Azoka txiki hau egoitza-izaerako toki batean jartzen denez eta igandeetan egiten denez, baimendutako pertsonak ezin izango dira saltokia muntatzeko lanekin hasi 8:45 baino lehen, eta guztiz debekatuta dago estalpeetara ibilgailuz sartzea salgaien zamalanak egiteko.

71. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

Azoka txikian zedarritutako espazioan 14 saltoki jar daitezke; saltoki bakoitzak 4 metroko aurrealdea izango du, eta 2 metroko sakonera.

Azoka txikian loreak, landareak eta haiek zaintzeko osagarriak sal daitezke.

6. ATALA.- SANTIMAMIKO AZOKA TXIKIA

72. ARTIKULUA.- Kokapena, egutegia eta funtzionamenduko ordutegia

Santimamiko azoka txikia Felipe Serrate kalean jartzen da, futbol-zelaiaren ondoan, eta partida dagoen egunetan egiten da, 14:00etatik 22:00etara. Azoka txikiaren kokapen zehatza eta postuen banaketa ordenantza honen 2.6. eranskineko planoan agertzen da.

73. ARTIKULUA.- Postuen kopurua, okupazio-azalera eta salgaiak

Azoka txikian zedarritutako espazioan 15 saltoki jar daitezke; saltoki bakoitzak 3 metroko aurrealdea izango du, 2 metroko sakonera, eta guztira bi eta zortzi bitarteko metro koadro hartuko ditu.

Oro har, sal daitezkeen gaiak hauek dira: banderak, lepokoak, txapelak, kamisetak, txanoak, giltzataroak, insigniak, orratzak, eta gozoki eta litxarrera txikiak, hala nola, karameluak, txikleak, krispetak eta fruitu lehorrak, betiere, dagozkien higiene- eta osasun-baldintzak betetzen badituzte. Guztiz debekatuta dago bestelako janaririk eta edozein motatako edaririk saltzea.

7. ATALA.- BAIMENAK LORTZEA

74. ARTIKULUA.- Baimenak lortzea

Baimenak emango dira ondorio horretarako sustatuko den konkurrentziako prozedurak ezarritakoari jarraiki; eta prozedura horrek zorrotz beteko ditu publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak.

Kalez kaleko salmentarako baimenak emateko onesten diren lehia-prozeduretara joate hutsak ahalmena emango dio eskumena duen udal-unitateari dena delako administrazioetan behar bezala egiaztatzeko zein den interesdunaren egoera zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari dagokionez, eta Udalaren zorduna den edo ez.

Tokiko prentsan agertuko den deialdi publikoan, baimenak emateko ezarri den lehia-prozedura zehatza adieraziko da. Deialdi horiek, ahal dela, irailetik azarora bitartean egingo dira.

75. ARTIKULUA.- Postu hutsak sortzea eta esleitzea

Postu hutsak dituzten eta aldi behingo azoka txikikoak ez diren guneetan baimenak eskuratzeko aukera emango zaie interesdunei, eta, horretarako, iragarkia argitaratuko da tokiko prentsan. Eskabideak aurkezteko epea ekitaldi bakoitzeko azaroaren 1etik 30era bitartean egongo da zabalik. Eskabideak ebatziko dira, ondorio horretarako finkatzen den konkurrentziako prozedurari jarraiki.

III. KAPITULUA.- NOIZBEHINKAKO AZOKAK

1. Atala.- Hitzarmen bidez antolatutako noizbehinkako azokak

76. ARTIKULUA.- Santo Tomaseko azoka

Santo Tomaseko azoka abenduaren 21ean da, egutegia dela-eta egunez aldatzen ez

bada; Plaza Barria, San Nikolas plaza, Areatzako pasealekua eta kaia, eta Pio Baroja bitarteko eremuan egiten da. Saltzeko ordutegia 9:00etatik 21:00etara da, baina saltokiak eta salgaiak prestatzeko lanak 6:30etik aurrera has daitezke. Azpiegitura handia eta saltokien kopurua hazia denez, azokaren bezperan muntatu ahal izango dira saltokiak, ekitaldi bakoitzean Udalak zehazten dituen irizpideei jarraiki.

Azokan saltzen diren gaiak baserriko, nekazaritzako elikagaien ustiapenetako eta upategietako ohiko produktuak dira, hala nola, barazkiak eta frutak, eskuz egindako urdaitegiko gaiak, sagardoa eta txakolina, eskuz egindako ogia eta pastelak, kontserbak, ezta, mermelada, arrautzak, likoreak eta antzekoak, eta, era berean, kapoiak eta barraskiloak bezalako animaliak ere bai.

Azoka antolatzeko, dagokion hitzarmena egingo da azoka antolatzen duen erakundearekin, eta, hala, erakundeak konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

- Erakusketari-saltzaile guztiak kasu bakoitzean ezarri behar den sektoreko araudiaren arabera homologatuta dauden egiaztatzea. Saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko dira; eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko du.
- Behar bezala bermatuko du azokan parte hartzen dutenek produktuak zuzenean ekoizten dituztela, edo produktu horiek ekoizten dituzten sozietateen eta kooperatiben kontura lan egiten dutela, edota lehen sektoreko ekoizleak biltzen dituzten elkarteetako kideak direla.
- Saltokiei eta salgaiei buruzko osasun-arloko araudia zorrotz betetzen dela egiaztatuko du.

Erakunde antolatzaileak eskatzen den aseguru-poliza sinatuta duela eta Udaleko kutzak eskatzen duen bermea duela egiaztatuko du, gaitzen duen titulua egin aurretik.

77. ARTIKULUA.- Liburu-azokak

Kaleratu Berriko Liburuen Azoka eta Liburu Zaharraren eta Merkezurreko Liburuen Azoka udaberrian eta udazkenean egiten dira, hurrenez hurren, eta Areatza inguruan edo antzeko gune batean jartzen dira. Azokak 10:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik. Azpiegitura handia eta saltokien kopurua hazia denez, azokaren bezperan muntatu ahal izango dira saltokiak, ekitaldi bakoitzean Udalak zehazten dituen irizpideei jarraiki.

Azoketan, liburuak baizik ez dira salduko.

Azoka antolatzeko, dagokion hitzarmena egingo da sektorea ordezkatzeko duen eta gertakizuna antolatzen duen elkartearekin; eta, hala, elkarteak bere gain hartuko du saltzaile bakoitza salmentan aritzeko ahalmena duela egiaztatzeko konpromisoa. Eskabidea egitearekin batera, antolatzaileak zerrenda bat aurkeztuko du, parte-hartzaileen nortasunarekin eta helbidearekin, erabiliko diren instalazioen deskribapen zehatzarekin, eta azokan egin nahi diren jardueren zerrenda osoarekin. Saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko dira; eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko du.

Erakunde antolatzaileak eskatzen den aseguru-poliza sinatuta duela eta Udaleko kutzak eskatzen duen bermea duela egiaztatuko du, gaitzen duen titulua egin aurretik.

78. ARTIKULUA.- Eskulangintzako azoka

Eskulangintza Azoka Eguberrietan egiten da, abenduaren 19tik hurrengo urteko urtarrilaren 6ra bitartean, eta Arriaga Antzokiaren inguruan, Areatzan edo antzeko gune batean jartzen da. Ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara dago zabalik. Azpiegitura handia eta saltokien kopurua hazia denez, azokaren bezperan muntatu ahal izango dira saltokiak, ekitaldi bakoitzean Udalak zehazten dituen irizpideei jarraiki.

Eskulangintzako gaiak baizik ezin izango dira saldu, azokan kokatuta dauden saltzaileek berek egindakoak.

Azoka antolatzeko, dagokion hitzarmena egingo da gertakizuna antolatzen duen Bizkaiko Eskulangileen Elkartearekin; eta, hala, elkarteak bere gain hartuko du elkarteko kideek saltzaile-izaera onetsita dutela eta salmentan aritzeko ahalmena dutela egiaztatzeko konpromisoa. Eskabidea egitearekin batera, antolatzaileak zerrenda bat aurkeztuko du, parte-hartzaileen nortasunarekin eta helbidearekin, erabiliko diren instalazioen deskribapen zehatzarekin, eta azokan egin nahi diren jardueren zerrenda osoarekin. Saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak

bermatuko dira; eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko du.

Erakunde antolatzaileak eskatzen den aseguru-poliza sinatuta duela eta Udaleko kutxak eskatzen duen bermea duela egiaztatuko du, gaitzen duen titulua egin aurretik.

79. ARTIKULUA.- Azoka txiki eta merkatu bereziak

Azoka eta merkatu txiki bereziak hauexek dira: hiribilduan, normalean herritarrentzat doan egiten diren jolas-izaerako ikuskizunei eta jardueri loturik, antolatzaile pribatu batek sustatzen dituen merkataritzako esparruak edo gunek. Azoka eta merkatu txikiak salbuespenez baimenduko dira; eta baimena emateko zorrotz begiratuko dira muntatzearen kalitatea, eta eskaintzen diren jarduerak, atrakzioak eta alboetako ikuskizunak. Eskabidean merkataritzako ekitaldiari buruzko xehetasun guztiak adierazkiko dira; eta ondo bermatuko da, saltzaileak hautatzean, publizitate, objektibotasun, inpartzialtasun, gardentasun eta norgehiagokaren oinarriak bermatuko direla, eta erakunde antolatzaileak hori guztia behar bezala betetzen dela jakinaraziko duela aurrez.

Erakunde antolatzaileak eskatzen den aseguru-poliza sinatuta duela eta Udaleko kutxak eskatzen duen bermea duela egiaztatuko du, gaitzen duen titulua egin aurretik.

2. Atala.- Lehia bidez antolatutako noizbehinkako azokak

80. ARTIKULUA.- Eguberrietako azoka txikia

Eguberrietako azoka txikia Eguberri garaian egiten da, abenduaren 15etik hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 6ra bitartean; eta Bailen kalean kokatzen da, geltokiaren aurrean, edo antzeko gune batean. Azoka 10:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Udala arduratuko da azpiegituraz, eta muntatze- eta desmuntatze-lanez; eta baimendutako pertsonen bidaliko die gastua. Eskuragarri dauden postuen kopurua dagokion deialdian emango da jakitera.

Baimenak emateko, jendaurreko lehia-prozedurari jarraituko zaio; eta zozketa, lehiaketa edo enkante bidez ebatziko dira, dagokion deialdi publikoan zehazten denaren arabera.

81. ARTIKULUA.- Aste Nagusiko azoka txikia

Aste Nagusiko azoka txikia Aste Nagusian egiten da, jaien iraunaldi ofizialean, eta Epaltzaren alargunaren kalean jartzen da, Areatzako lorategien aurrean, edo antzeko gune batean. Azoka 10:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Udala arduratuko da azpiegituraz, eta muntatze- eta desmuntatze-lanez; eta baimendutako pertsonen bidaliko die gastua. Eskuragarri dauden postuen kopurua dagokion deialdian emango da jakitera.

Baimenak emateko, jendaurreko lehia-prozedurari jarraituko zaio; eta zozketa, lehiaketa edo enkante bidez ebatziko dira, dagokion deialdi publikoan zehazten denaren arabera.

82. ARTIKULUA.- Erljio-jaiak direla-eta izaten den kalez kaleko salmenta

San Blas, San Jose, Erramu-igande, San Felicisimo, San Antonio de Padua, San Joan Bataiatzailearen Jaiotze, Karmengo Andre Maria, Andre Mariaren Igokunde, Begoñako Andre Maria eta Domu Santu erlijio-jaiak direla-eta, tradizioz jai horiek ospatu izan diren elizen ondoko espazio publikoetan ohikoak diren produktuen salmenta baimendu ahal izango da egun horietan. Baimenduko diren saltokien kopuru zehatza, gehieneko okupazioko azalera, eta instalazio-motak ondorio horretarako egiten diren deialdi publikoetan zehaztuko dira, eta, nolana ere, jaiak ospatu baino astebete lehenago ebatzi beharko dira baimenak.

Gune fisiko aski baldin badago eskuragarri, baimenak zuzenean emango dira; bestela, egokiagotzat jotzen den lehia-prozedurari jarraituko zaio.

3. Atala.- Noizbehinkako beste salmenta batzuk

83. ARTIKULUA.- Barruti edo auzoetako jaiak direla-eta izaten den kalez kaleko salmenta

Hiribilduko auzoetako jaiak direla-eta egongo den kalez kaleko salmenta bakarra hurrengo azoka txikietakoa eta jai-esparruetan baimentzen diren saltokietan egiten dena izango da; horiek guztiak gune horietan kokatzen diren instalazioak eta jai-atrakzioak esleitzen diren era eta modu berean esleitu dira.

84. ARTIKULUA.- Barazki-frutako, eskulangintzako eta bestelako noizbehinkako azoka txikiak

Auzoetako elkarateek, dendarien elkarateek eta beste pertsona eta erakunde batzuek noizbehinkako azoka txikien antolakuntza sustatu ahal izango dute, hiribilduko auzo eta barruti bakoitzean egiten diren tradiziozko gertakizunak daudenean. Azoka txiki horien iraupenak ez du hamar egunetik gora joko.

Erakunde antolatzailea arduratuko da salgai dauden produktu zehatzen arabera ezarriko den sektoreko araudia betearazteaz, dagozkion udal-eskubideen ordainketaz, kasu bakoitzean eskatzen diren bermeak jartzeaz, erantzukizun zibileko polizak sinatzeaz, eta parte hartuko dutenak banan-banan identifikatzeaz.

IV. KAPITULUA.- SASOIKO POSTU FINKOAK ETA IBILGAILUETAKO SALMENTA

85. ARTIKULUA.- Izozkien, txurroen, gaztainen eta beste jaki batzuen salmenta

Izozkien, txurroen eta gaztainen salmenta ondoren adieraziko den denboraldian egingo da., Saltokiak esleitzeko sustatzen duen lehia-prozeduran, eskumena duen organoak ondorio horretarako zehazten dituen tokietan jarriko dira postu desmuntagarriak edo eramangarriak. Baimenen indarraldia urtebete eta lau urte bitartekoa izango da, eta, hori gorabehera, saltokiko salmenta eta instalazioa bera denboraldiaren iraupenera egongo da mugatuta, saltokia muntatzeko eta desmuntatzeko lanetarako baimentzen diren egunetan izan ezik. Udalak saltoki-eredu jakin bat finkatu ahal izango du oro har edo toki jakin batzuetarako, eta lizitatzailerek eta esleipendunek nahitaez bete beharko dute. Lehia-prozeduraren oinarritzko osagaietako bat lizitazio-tasaren goranzko lizitazioa izango da, eta dagokion zerga-ordenantzan finkatutako tasaren zenbatekoak zehaztuko du hori.

Izozkiak saltzeko postuetan, izozkiez gain, alkoholik gabeko edariak eta freskagarriak saldu ahal izango dituzte; saltzeko denboraldia ekitaldi bakoitzeko martxoaren 1etik urriaren 31ra bitartean izango da.

Gaztainak saltzeko postuek gaztaina erreak baizik ez dituzte salduko, eta haien denboraldia urriaren 15etik otsailaren 28ra edo 29ra bitartean izango da.

Txurro-dendetan, txurroak, kauserak, gofreak, patata frijituak, ura eta alkoholik gabeko edariak saldu ahal izango dira, eta haien denboraldia abenduaren 1etik urtarrilaren 31ra bitartean izango da.

Oro har salmentarako ezarri diren denboraldiak gorabehera, luze edo laburragoak izango diren bestelako denboraldiak finkatu ahal izango dira.

Ibilgailuen edo saltoki desmuntagarrien bidez bestelako jakiak saldu ahal izango dira, horrela finkatuta dagoen kasuetan. Aurrez, deialdi publikoa egingo da, eta, bertan, baimenak emateko erabiliko den lehia-prozedura zehatza adieraziko da. Salmentako kokalekuak zehatzak edo alderdikakoak izango dira.

VIII. TITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAN IZATEN DIREN BESTE SALMENTA MOTA BATZUK

86. ARTIKULUA.- Jolas-makinen eta gaien salmenta automatikoa

Oro har, debekatuta dago espazio publikoa hartzea, era guztietako gaiak saltzeko makinak jarritz.

Jolas eta aisialdirako gailuak ere debekatuta daude, baina salbuespen gisa baimendu ahal izango dira, jarri nahi diren espazio publiko zehatzak horretarako aukera ematen badu, eskumena duen administrazio-unitatearen iritziz, ez duelako ezertan oztopatuko oinezkoen ohiko ibilbidea.

87. ARTIKULUA.- Izaera iraunkorra duten saltokien hedapenak

Merkataritzako establezimenduek jarduera espazio publikoan hedatu nahi badute, Udalaren baimena eskuratu beharko dute aurrez. Baimen hori emango da, eraginpean egongo den espazio publikoak horretarako aukera ematen badu, herritarren mugikortasuna eta irisgarritasuna aintzat hartuta, eta, betiere, zatiaren okupazioari loturik dagoen merkataritzako jarduerak nahitaezko udal-baimena badu.

Zati hori soilik atzemango da merkataritzako saltokiaren funtzionamendu-orduan. Establezimenduaren hedapenak egitura estetiko bikaina eta egituratze fisiko zorrotza eduki beharko du, jende guztien irisgarritasuna bermatzeko eta oinezkoentzako ibilbideetan oztoporik edo aldaketarik ez eragiteko modukoa.

88. ARTIKULUA.- Noizbehinkakoak diren saltokien hedapenak

Hiriko alde, auzi eta barrutietako saltzaileen elkarteek salgai-hondarren, denboraldiko hondarren eta antzeko gaien azoka txikiak sustatu ahal izango dituzte establezimenduen aurrealdearen ondoan dagoen espazio publikoan, lau egunetan egutegiko urte bakoitzean, eta egun horietatik bi ondoz ondoko egunak izan ahal dira. Bestalde, salbuespen gisa, beste espazio publiko batzuetan ere egin ahal izango dute. Elkarte sustatzaileak ekimenari atxikita dauden eta parte hartzen duten saltokiak identifikatuko ditu. Bestalde, azoka txikia egiteaz batera, bide publikoan bestelako jarduerak egiteko eskatzen bada, jarduera horiek zehatz-mehatz azaldu beharko dituzte, bai eta erabili nahi dituzten espazio publikoko zati zehatzak ere.

Azoka txikia sustatu duen saltzaileen elkartearen lurralde-eremuan kokatuta dauden eta elkarteko kideak ez diren saltzaileek bat egin ahal izango dute ekimenarekin, dagokion udal-baimenaren babesean, eta, beraz, baimen hori banan-banan eskatu beharko dute.

IX. TITULUA.- ESPAZIO PUBLIKOAREN BESTE OKUPAZIO BATZUK

I. KAPITULUA.- EDUKIONTZIAK JARTZEA ETA LAN HONDAKINAK ATERATZEA

89. ARTIKULUA.- Azalpena

Edukiontzia haxe dira: garraio espezializatuko ibilgailuen gainean zamatze eta husteko bereziki diseinatuta dauden eta hondakinak –gehienbat obra-hondakinak– jasotzeko xedea duten ontzi normalizatuak.

Industria-zaku normalizatuak, bestalde, 1 m³-tik beherako edukiera duten eta zurrunik ez diren ontziak dira.

90. ARTIKULUA.- Baimena eta motak

Arrazoi profesionalak edo industrialak direla-eta, espazio publikoan hondakin geldoen edukiontzia jartzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek Udalaren baimen egokia eduki beharko dute aurrez. Baimen hori egutegiko urte bakoitzarekin bat egiten duen denboraldirako emango da gehienez, eta era automatikoan berritu ahal izango da. Baimenak emango zaizkie eredu ofizialari jarraiki eskabidea egiten duten eta beharrezkoak diren agiriak aurkezten duten horiei. Industrialariaren aurretiazko eskaerarekin batera, baimen horren helburu bakarra izango da jarduteko protokoloa finkatzea, industria- eta udal-jarduera errazteko. Urteko baimen bakarraren babespean, jarriko den edukiontzi bakoitzaren aurretiazko jakinarazpena egingo da, gutxienez 48 ordu lehenago, postaz edo bide telematikoak erabiliz, jakinarazpenaren eredu normalizatuan jasoko diren zehaztapenak betez. Industrialari bakoitza arduratuko da aparkatzeko erreserbari dagozkion seinaleak jartzeaz, eta Udalak finkatzen dituen baldintza teknikoan arabera egin beharko du.

Dagoeneko baimenduta dagoen obra baten esparruan baldin badago, ez da udal-baimenik eduki beharrik izango aipatutako edukiontzia bide publikoan jartzeko.

Lehen adierazitako urteko baimenei kalterik egin gabe, baimen zehatzak emango zaizkie jarduteko urteko baimenik ez duten industrialariei. Kasu horretan, eskaera eredu ofizialari jarraiki egin beharko da, bost (5) eguneko aurrerapenez, eta aurretiaz udal-eskubideei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko da. Eskaera hori behar den moduan bete ezik, izapideak bertan behera utziko dira. Nolanahi ere, interesduna arduratuko da erreserban seinaleak jartzeaz.

[Bide publikoan edukiontzia jartzeko urteko baimena duten industrialariak, eta osagai horien errentariak/erabiltzaileak beren nortasuna jakinaraziko diote Administrazioari, instalazioa jarri aurretik egin beharreko jakinarazpenetan, Ordenantza honetako 94. artikuluan adierazitako ondorioei begira. Betebehar horixe bete beharko dute baimen zehatzak eskatzen dituztenek, ondorio bereberei begira.](#)

91. ARTIKULUA.- Urteko baimenaren eskabideak

Interesdunek ondorio horretarako ezarritako ereduari jarraiki egin beharko dituzte urteko baimen-eskaerak, eta, horrekin batera, egokiak diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, jardueran aritzeko baimena dutela egiaztatze aldera. Hori edozein unetan aurkeztu ahal izango da, egutegiko urte bakoitzaren barruan.

92. ARTIKULUA.- Baimen zehatzen eskabideak

Bide publikoan edukiontziak edo zaku industrialak jartzeko baimen zehatzen eskaera, horiek jarri baino bost egun lehenago egin beharko da gutxienez, ereduari jarraiki eta datu hauek jarrita:

a) Eskatzailearen eta behar bezala egiaztatutako ordezkariaren identifikazioa (izena eta bi deiturak edo sozietatearen izena, NAN edo IFZ, helbide fiskala, jakinarazpenak bidaltzeko helbidea eta harremanetarako telefonoa).

Horrez gain, edukiontziak jartzeko eta garraiatzeko industrialaria dela egiaztatu beharko du.

b) Nahitaetzko obra-lizentziaren izapideak eta obren zenbatekoa jasotzen dituen administrazioko espedientea, aurkeztutako aurrekontuaren edo proiektuaren arabera egina, betiere, 6.000,00 €-tik gora jo beharko duena.

c) Zein erabilera izango duen; nolana ere, argi eta garbi jasoko da zein hondakin-motak diren.

d) Edukiontzian jarriko den isuri baimendua.

e) Edukiontzia zenbat egunetan egongo den bide publikoan.

f) Edukiontziak edo zakuak zein helbidetan egingo duen zerbitzua.

Eskumena duen bulegoan jasoko da eskabidea, betebeharreko baldintzak betetzen direla eta dagozkion udal-eskubideak ordainduta daudela egiaztatu ondoren. Eskaeran akatsen bat baldin badago, zuzentzeko eskatuko da, eta ohartaraziko da, akatsa zuzendu gabe 72 ordu igarotakoan, eskaera artxibatu egingo dela.

Behin-behineko baimenen babesean bide eta espazio publikoetan edukiontziak jartzeko, aurrez berme-biltegia eratzeko edo uzteko eskatu ahal izango da, era horretan ondo bermatzeko espazio publikoan izan daitezkeen kalteak ordainduko direla.

93. ARTIKULUA.- Urteko baimena ematea

Urteko baimenak 15 eguneko epean emango dira gehienez, eskabidea Erregistro Orokorrean aurkeztzen den egunetik hasita; eta balioa izango dute haien jakinarazpena egiten denetik dagokien ekitaldiko abenduaren 31ra arte. Baimenak urtero luzatu ahal izango dira, betiere, legez finkatutako arrazoiak direla-eta, baimena baliogabetzen ez bada edo hari uko egiten bazaio.

94. ARTIKULUA.- Baimenaren eta erabilera bereziaren baldintza orokorrak

1.- Edukiontzia jartzea eta kentzea, eta edukiontzia egitea

Edukiontziak jartzean eta kentzean, ez da oztoporik sortuko oinezkoen eta ibilgailuen trafikoan, zirkulazioa zati batean edo osorik eragotziz. Lan horiek baimendutako industrialariaren ardura izango dira, eta, lanez gain, behar den aparkalekuaren edo parkingaren erreserba berezia ere egin beharko da.

Galtzadan edukiontziak jartzeko, horren seinalea jarri beharko da, edukiontzia paratu baino 48 ordu lehenago gutxienez; berdin dio galtzada ibilgailuen aparkalekua den edo ez den. Hain zuzen, 103. artikuluan aparkaleku-erreserbak egiteko zehazten diren seinaleak jarri beharko dira.

Baimena indarrean dagoen bitartean, edukiontzia jarri eta kendu ahal izango da, beharrezkoa den aldi guztietan, mukururaino beteta dagoenean.

Baimena egiaztatzen duen agiria ikusgai jarri beharko da edukiontzian bertan, erreserba adierazten duten seinaleetan, edo obrak egingo diren higiezinako, atariko edo lonjako fatxadan.

Edukiontziak bide publikotik kenduko dira kasu hauetan:

a) Lizentziak instalazioa jartzeko baimentzen duen denbora bukatzen denean.

- b) Beteta daudenean, hustu ahal izateko, eta, betiere, edukiontzia bete den egunaren biharamuneko 9ak heldu aurretik.
- c) Ostiraleko 20:00etatik astelehenero 7:00ak bitartean; eta ostiralak edo aurreko egunak edota astelehenak edo hurrengo egunak jaiegunak baldin badira, edukiontzia kentzeko aldia luzatu egingo da, lehen eta azken egun baliodunera arte.

2.- Edukiontzien erabilera

Edukiontzia baimenean adierazitako helbururako baizik ezin izango dira erabili. Edukiontzien erabilerari buruz xedatutakoa bete ezean, horren erantzukizuna era solidarioan izango dute edukiontzien errentariak, obrak egiten diren higiezinako jabeak, obren sustatzaileak edo kontratistak, eta obra-lizentziaren titularrak.

Edukiontzia eta zakuak era egokian eskuztatu beharko dira, haien edukia bide publikora eror ez dadin, edota haizeak altxatu edo barreiatu ez dezan.

Edukiontzietako hondakinak edukitako ez du inola ere gaudituko finkatuta dagoen gehieneko muga; eta, era berean, galarazita egongo da osagai gehigarriak erabiltzea, zamatzeko edukiera edo tamaina handitzeko.

Edukiontzia bete ondoren, era egokian estali beharko dira berehala, hondakinak kanpoaldera eror ez dadin.

Bestalde, lan-ordutegia bukatzean, eta edukiontzia erabiltzen ez diren bitartean, nahitaez estali beharko dira.

Edukiontzia kendu ondoren, bete duen bide publikoaren azalera garbi-garbi utzi beharko da.

95. ARTIKULUA.- Edukiontzien baldintzak

Edukiontzia behar bezala egiaztatuta egon beharko dute abian jartzeko, haien kokapena kontuan izanik Udalak dagokion baimenean zehazten dituen baldintza teknikoak bete beharko dituzte, eta, orobat, baldintza ezin hobekak bete beharko dituzte estetikari dagokien aldetik.

Edukiontzia eta zakuak datu hauek eduki beharko dituzte kanpoaldean, argi ikusteko moduan: jabearen edo enpresa arduradunaren izena edo izen soziala eta telefonoa, eta edukiontzien identifikazio-zenbakia. Horrez gain, edukiontzia ikusteko era nabarmenduko duten kolorez margotuta egongo dira.

Edukiontzia egoera ezin hobekian egongo dira estetikari dagokien aldetik –xafla eta margoa– eta garbitasun eta apaindura aldetik.

Baimendutako industrialariak estalki zurrin edo malgu bat eman beharko diete edukiontzien erabiltzaileei, hala finkatuta dagoen kasuetan estal ditzaten.

96. ARTIKULUA.- Edukiontzien kokapena

Aparkatzea baimenduta dagoen bide publikoetako galtzadetan jarriko dira edukiontzia.

Ahal dela, dagokien obraren aurrealdean edo ahalik eta hurbilen jarriko dira, ibilgailuen ikuspenera inola ere oztopatu gabe, batez ere bidegurutzetan; ildo horretan, Zirkulazioaren Kodeak aparkalekuei begira finkatu dituen tartekak bete beharko dituzte.

Edukiontzia ezin izango dira jarri oinezkoen pasabideetan edota haien aurrealdeetan, ahalmen urriko laguntzako pasabideetan eta behearamenduetan, ez eta aparkalekuen erreserbetan eta geralekuetan ere; salbuespena egingo da, ordea, aparkatzeko erreserba horiek obrak berak eskatu dituztenean.

Edukiontzia ezin izango dira inola ere zati batean edo osorik jarri zerbitzu publikoetako sarbideen estalkietan, sute-ahoretan, zehazten txorrotetan, edo, oro har, egoera arruntetan edo larrialdietan oztopoak izan ditzakeen hirigintzako edozein osagaiaren gainean.

Edukiontzia jartzean, alderik luzeena espaloiarekin paraleloan kokatuko da, zeharkako aparkalekuetan izan ezik, leku horietan bat egingo baitute lerroak diren eremuekin.

Espalotik 0,20 m-ko tartera paratuko dira; eta ez dute inola oztopatuko azaleko urak xukaderara iristea eta hortik ibiltzea, hurbilen dagoen kainu-zuloraino iritsi arte.

Edukiera txikiko edukiontziei dagokienez, haiek kentzean zoladuran kalterik eragiteko arriskurik ez badago, espaloia gainean jarri ahal izango dira, espaloia horren zabalerak horretarako aukera ematen badu, hau da, edukiontzia jarri ondoren gutxienenez bi (2) metroko tarte askea uzten baldin bada igarotzeko.

Salbuespen gisa, baimena eman ahal izango da espaloien edo oinezkoentzako guneen gainean edukiontzia jartzeko, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazio-baldintzak ikusita hori egitea egokia denean; kasu horretan, neurri egokiak

hartuko dira zoladura babesteko.

II. KAPITULUA.- OBRETAN LAGUNGARRIAK DIREN BESTELAKO OSAGAI BATZUK JARTZEA

97. ARTIKULUA.- **Obretako etxolak**

Salbuespen gisa, baimena eman ahal izango da obren lagungarri izango diren etxolak jartzeko, hala langileen aldagela modura baliatzeko, nola materialak eta lanabesak gordetzeko, batez ere dena delako obrak jabetza horizontaletako baterako osagaiei badagozkie, esate baterako, teilatuak, fatxadak, igogailuak jartzeko edo ordezkatzeko lanak badira, eta, horrez gain, obren lizentzia duen titularrak edo jabeen erkidegoak –buruaren bitartez– egiten badu eskaera, dena delako esparrua erkidegoaren jabetzaren barruan –atarian, patioan edo baterako osagaien batean– jartzea ezinezkoa dela egiaztatzen duen agiria aurkeztuta.

Baimena emateko, dagokion obra-lizentzia lortu beharko da aurrez, eta etxola jartzeko epeak ez du inoiz gaindituko obrak egiteko emandako epea.

98. ARTIKULUA.- **Bestelako osagaiak**

Salbuespen gisa, espazio publikoa kasu zehatz batzuetan betetzeko baimena eman ahal izango da, guztiz pribatuak diren nahiak betetze aldera. Kasu horietan espazio publikoa betetzean, beharrezkoak diren osagaiak erabiliko dira; lanak egin bitartean zorrotz beteko dira pertsonen eta ondasunen segurtasuna babesteko neurriak, eta, orobat, zehatz-mehatz bete beharko da irisgarritasun eta mugikortasun arloko araudia.

Baimena emateko, egin nahi diren beharrezkoen egiaztagiria aurkeztu beharko dira aurrez, beste era batean jokatzeko hautabiderik ez dagoela frogatu beharko da, eta, gainera, eskatzaileak behar diren bermeak hartu beharko ditu bere gain.

III. KAPITULUA.- APARKALEKUA ERRESERBATZEA

99. ARTIKULUA.- **Aldairak**

Aldairak egiteko industria-zerbitzuak egiten dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek Udalaren baimen egokia eduki beharko dute; baimen horren gehieneko epeak egutegiko urte bakoitzarekin egingo du bat, baina, hala ere, epe berbererako berritu ahal izango da. Baimenak emango zaizkie eredu ofizialari jarraiki eskabidea egiten duten eta beharrezkoak diren agiriak aurkezten duten industrialariei. Industrialari interesdunaren aurretiazko eskaerarekin batera, baimen honen helburu bakarra izango da jarduteko protokoloa finkatzea, industria-jarduera eta Udalaren kontrol-jarduera errazteko. Aldaira egiteko jarduera bakoitzaren aurretiazko jakinarazpena egingo da, gutxienez 48 ordu lehenago, postaz edo hautazko bide telematikoak erabiliz, jakinarazpenen eredu normalizatuan jasoko diren zehaztapenekin (kokapena, hartu beharreko azalera, eta horren iraupena, ordutan adierazita). Interesa duen industrialariak arduratu beharko du erreserbari dagozkion seinaleak jartzeaz, Udalak finkatuko dituen eta behar den eran argitaratuta egongo diren eskakizun teknikoek jarraiki.

100. ARTIKULUA.- **Baimen zehatzak aldairak egiteko**

Lehen adierazitako urteko baimenak alde batera utzita, baimen zehatzak emango zaizkie jarduteko urteko baimenik ez duten industrialariei edo aldaira zehatzak egin nahi dituzten partikularrei. Kasu horretan, eskaera ereduari jarraiki egin beharko da, (5) bost eguneko aurrerapenez, eta aurretiaz udal-eskubideen zenbatekoa ordaindu beharko da. Eskatzailea arduratuko da erreserban seinaleak jartzeaz.

101. ARTIKULUA.- **Berogailuetarako erregaiei hornidura**

Berogailurako erregaia hornitzen duten enpresek nahitaezko baimena eduki beharko dute hornitze-lanak egiteko. Baimen hori egutegiko urtearekin bat etorriko den eperako emango da, baina, hori gorabehera, epe berbererako luzatu ahal izango da. Baimena eredu ofizialari jarraiki eskatuko da; bertan, enpresa hornitzailearen identifikazioa jasotzeaz gain, zerbitzua hartzen duten bezeroen zerrenda aurkeztuko da, eta erregaia zamatzeako aho bakoitzaren

kokapen zehatzari buruzko grafikoak ere jasoko dira. Bezero berriak hartuz gero edo bajak egonez gero, dagokion ereduaren arabera jakinarazi beharko zaio Udalari.

Ahal dela, hornitze-lanak gauez egingo dira, 23:00etatik 6:30era.

Hornitzeko zerbitzu zehatz bakoitzaren berri jakinarazi beharko zaio Udalari, bide telematikoz eta 48 orduko aurrerapenez; eta, aparkatzeko erreserba behar izanez gero, zerbitzu zehatz horren jakinarazpenean erreserbaren beharrezana egiaztatu beharko da, gutxienez 72 orduko aurrerapenez. Enpresa hornitzailea arduratuko da erreserbari dagozkion seinaleak jartzeaz, eta erreserbatutako espazioa hartu baino 48 ordu lehenago egin beharko du gutxienez.

102. ARTIKULUA.- Aparkatzeko beste erreserba batzuk

Bestelako beharrezanek direla-eta aparkatzeko beharrezkoak diren gainerako erreserbak –hala nola, ekitaldi publikoak edo bestelakoak egiteko behar diren instalazio desmontagarrien zama-lanak, garabi mugikorrek jartzekoak, autobusak era masiboan hartzea, zinemagintzako filmazioak eta horrelakoak–, 72 ordu lehenago jakinarazi beharko dira gutxienez, betiere, erreserba horien beharrek loturarik ez badu bestelako jarduera edo ekitaldiekin. Hala izatekotan, ekitaldiaren baimen orokorraren eskaeran egingo da eskakizun hori, aurrerapen berberaz egin ere.

103. ARTIKULUA.- Aparkalekuen erreserbetan seinaleak jartzea

Banalerroan zehar jarriko dira seinaleak, errodadurako galtzadaren eta ibilgailuak aparkatzeko dagoenaren artean. Hain zuzen, seinale-balizak jarriko dira, gutxienez bi erreserba bakoitzeko. Balizen oinarria piramide-itxurakoa edo zilindrikoa izango da, gehienez 45 cm-ko garaierakoa eta gutxienez 20 kiloko pisukoa; oinarri horren gainean, masta bat jarriko da, eta, haren akabera gisa, aparkatzeko debekua adierazten duen seinalea. Seinalearen beheko alde 1,2 metroko garaierara egongo da gutxienez, galtzadako sestraren gainetik (R.308 seinalea, Zirkulazioaren Araudi Orokorrari jarraiki). Masta bakoitzaren erdialdean, dagokion plaka jarriko da, ertzik gabekoa. Bertan udal-baimenaren kopia finkatuko da, erreserbari dagokion eguna eta ordutegia, edota erreserbak izango duen iraunaldia azaltze aldera. Aparkatzeko debekua adierazten duten seinaleen behealdeak batu egingo dira, argi ikusteko moduko xingola plastikoa jarri. Erreserbak 10 metro linealetik goragoko azalera gainditzen badu, baliza berriak jarri beharko dira 5 metro lineal bakoitzeko edo mugarrizten den galtzadako zatiki bakoitzeko.

X. TITULUA.- PUBLIZITATEKO JARDUERAK, DOAKO PRENTSA, IKUS-ENTZUNEZKO JARDUERAK, ESKEAK ETA ANTZEKOAK

I. KAPITULUA.- PUBLIZITATEKO JARDUERAK

104. ARTIKULUA.- Merkataritzako publizitate-jarduerak

Merkataritzako publizitate-jarduerak hauexek dira: irabazteko asmoa duten pertsonak edo erakundeek, zuzenean edo agentzia espezializatuen bitartez, eta merkataritzakoa baizik ez den xedea izanik, merkaturatzen dituzten produktu eta zerbitzuetako bezeroak erakartzeko tresna gisa, egiten dituzten jarduera guztiak. Berdin dio zein baliabide diren jardueraren euskarri, esate baterako, inprimatutako dokumentazioak, ikusmen- eta soinu-proiektzioak, erakargarri bizidunak, publizitateko ibilgailuak eta karabanak, tresna aerostatikoak eta Udalaren aireko espazioa baliatzen duten bestelako gailuak, eta, orobat, publizitate arloko eduki nabarmena duten beste jarduera berritzaile batzuk.

Bereziki, Udalaren nahitaezko eta aurretiazko baimena eskuratu beharko da, espazio publikoan dauden aldamioren eta bestelako egituren gainean publizitateko olanak jartzeko.

Bilboko espazio publikoan egin nahi diren publizitateko merkataritzako jarduera guztiak, oro har, debekatuta egongo dira. Dena dela, salbuespena egin ahal izango da, salbuespen gisa emango den aurretiazko udal-baimena eskuratuta. Horretarako, aintzat hartuko dira kasu bakoitzean dauden inguruabarrak eta interes publikoak eta pribatuak, eta jarduera horiek guztion erabileran eta, bereziki, herritarren lasaitasun eta segurtasunari begira izan dezaketen eragina. Hala ere, Udalak merkataritzako aurkezpenak eta antzeko ekitaldiak egiteko egokiak diren espazio publikoak zehazteko prozesua bultzatuko du.

Eskaerak 15 eguneko aurrerapenez egin beharko dira gutxienez, eta proiektatutako

jardueraren irismena zehatz-mehatz jaso beharko da, bai eta, hala dagokionean, ondasunei eta pertsoneri kalteak eragiteko aukeraren eta jarduera zehatzaren izaeraren arabera, interesdunak eskaintzen dituen bermeak ere.

105. ARTIKULUA.- Merkataritzakoak ez diren publizitate-jarduerak

Hertsian merkataritzakoak ez diren publizitateko jarduerak hauexek dira: sektore publikoko erakundeei zuzenean edo zeharka loturik dauden pertsonak edo erakundeek berehalak, zuzenean edo era nabarmenean irabaziak izateko asmorik gabe egiten dituzten jarduerak, zehazki, era guztietako programak, zerbitzuak edo jarduerak –informaziokoak, jolas eta olgetakoak, kirol eta kultura arlokoak– zabaltzeko edo ezagutzera emateko erakunde horiek beren eskumenak erabiliz egiten dituzten horiek.

Eskabidea 15 eguneko aurrerapenez egin beharko da gutxienez, eta proiektatutako jardueraren irismena zehatz-mehatz jaso beharko da, bai eta, hala dagokionean, ondasunei eta pertsoneri kalteak eragiteko aukeraren eta jarduera zehatzaren izaeraren arabera, interesdunak eskaintzen dituen bermeak ere.

106. ARTIKULUA.- Araubide ekonomikoa

Hertsian merkataritzakoak diren eta interes pribatua baizik ez duten publizitateko jarduerak salbuespen gisa baimentzeko, publizitateko jardueraren onura jasoko duen pertsonak edo erakundeak udalerriri zuzenean edo zeharka eskainiko dizkion kontraprestazioak hartuko dira aintzat. Baimenaren sustatzaileak eskaintzen dituen kontraprestazioek haren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa zehaztuko dute, edo salgaietan egindako eskaintzen ezaugarriak argi zehaztuko dituzte.

Eskaintza horiek inoiz ez dira izango dagokion zerga-ordenantzan erabilera horiei begira finkatuta dauden tasak baino txikiagoak.

Hertsian merkataritzakoak ez diren publizitateko jarduerak doakoak izango dira.

II. KAPITULUA.- DOAKO PRENTSA BANATZEA

107. ARTIKULUA.- Azalpena eta baimena

Doako prentsa banatzea hau da: espazio publikoan aldi behingo argitalpenak banatzea, hau da, titulu berberaren azpian, jarraian, eta ondoko zenbakiak izanik eta egunetan banatzen diren eta gehienbat informaziorako diren argitalpenak. Ezaugarri horiek betetzen ez dituzten gainerako argitalpenak publizitateko inprimakiak direla joko da.

Doako prentsa banatzeko, udal-baimena behar da; eta baimena jasotzeko eskabidea aurrez aurkeztu beharko da, urte bakoitzeko urrian. Argitalpen berriekin, berriz, ez da horrela jokatu. Ereduari jarraiki egin beharko da eskabidea, eta, gainera, alderdi eta baldintza orokor hauek zehaztu eta egiaztatu beharko dira:

- Banaketaz arduratzen diren langileen Gizarte Segurantzako erregimenaren alta, izenen zerrenda eta bi argazki.
- Banaketa egiteko hautatu diren hiriko gunek
- Argitalpenak garraiatzeko eta jendeari aleak banatzeaz arduratzen direnei hornidura egiteko erabiliko den instalazio mugikorra.
- Espazio publikoan jarri nahi diren prentsa banatzeko tresnak, eta tresna horiek jartzeko eta kentzeko sistema.

108. ARTIKULUA.- Baimenen indarraldia eta jardueraren kokapena

Emango diren baimenen indarraldia bat etorriko da egutegiko urte bakoitzarekin; baimenak luzatu ahal izango dira, ezer esan gabe, urtebeteko denboraldietarako, gehienez lau ekitaldi bete arte. Laugarren ekitaldiko urrian, baimen berria eskatuko da; eta denbora aldeko baldintza berberekin emango da hori.

Udalak finkatuko ditu jarduera egiteko hautatuko diren hiriko gunek. Udalak zuzenean aldatu ahal izango ditu eskatu diren gunek, baimena ematerakoan, irisgarritasun eta mugikortasunari lotutako arazoak argudiatuta. Baimendutako gunek bakoitzak 2 metro koadratu hartzeko aukera emango du.

Nolanahi ere, banatzeko tresnak Udalak baimentzen dituen bideko gunetan jarriko

dira.

109. ARTIKULUA.- **Baimenaren baldintzak**

Baimendutako pertsonen eskubide hauek dituzte:

- a) Egunkaria banatuko dute, finkatuta dagoen tokian, urteko egun guztietan, hiriko, autonomia-erkidegoko edo estatuko jaiegunetan izan ezik, 6:30etik 11:30era bitartean.
- b) Banatzaileek banatzen dituzten argitalpenei buruzko publizitatea erakutsi ahal izango dute jantzetan.

Baimendutako pertsonen betebeharrak hauek hartuko dituzte beren gain:

- a) Prentsa baimendutako tokian banatu beharko dute; ildo horretan, adierazitako puntutik 5 metro baino gehiagotara dagoen tokitik egiten badute, betebeharra hautsi dutela joko da.
- b) Jarduera egingo dute, oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatu gabe.
- c) Ezin izango dira egunkariak kalez kaleko salmentan bezala banatu, ez eta ibilgailuetatik ere, eta, era berean, ezin izango diete banatu ibilgailuen edo garraiobide publikoen barruan daudenei. Doako prentsa banatzeko tresnak jarri ahal izango dira garraio publikoen barruan, betiere, enpresak horretarako baimena ematen badu.
- d) Ezin izango da euskarririk erabili –adibidez, mahaiak, astoak, aulkiak edo bestelako osagaiak, hiri-altzarikoak ere barne hartuta–. Salbuespen gisa, gurditxo bat edo bi erabili ahal izango dira: bi gurpil izango ditu, eta haren gehieneko neurriak 0,50 metroko zabalera, 0,5 metroko sakonera eta 1,20 metroko garaiera izango dira. Argitalpenak gordetzeko biltegi gisa baliatu ahal izango da, eta banaketa bukatu ondoren kendu beharko da. Gurditxo horrek dagokion euritakoa eduki beharko du, edo jarri beharko zaio bestela.
- e) Debehatuta dago egunkarien banaketa ozen hitz eginez iragartzea, bozgorailuak edo beste soinu-anplifikatzailearen bat erabiliz.
- f) Egunkariak ezin izango dira bide publikoan bertan behera utzi; banaketaz arduratzen diren langileek 10 metroko erradioan sakabanatuta daudenak jaso beharko dituzte. Betebehar hori bete ezik, Udalak alderdia garbitzeak eragindakoa gastuak ordaintzeko eskatu ahal izango dio baimenaren titularrari, jarritako fidantzaren kargura.
- g) Jendearen artean doako banaketa egiten dutenei aleak ematean, Trafikoari buruzko Araudi Orokorrak finkatutakoa eta, orobat, alderdi bakoitzean zehaztuta dauden zabalera eta altueraren arauak bete beharko dira, eta ibilgailuak ezin izango dira ibili haientzat gaituta dauden galtzadetatik kanpo.
- h) Dagozkien zergak ordainduko dituzte, zehazten den eran eta kopuruan.
- i) Berariaz debehatuta dago doako prentsaren banaketakoa ez den bestelako jarduerarik bide publikoan egitea.
- j) Banaketa egiten duten langileei identifikazio-txartela emango die, eta langile horien artean dauden ordezkariak jakinaraziko ditu, gertatu aurretik.

III. KAPITULUA.- **IKUS-ENTZUNEZKO JARDUERAK**

110. ARTIKULUA.- **Azalpena eta baimena**

Ikus-entzunezko jarduerak hauexek dira: Bilboko espazio publikoan egiten diren zinemako filmak, telebistako programak, dokumentalak, publizitateko iragarkiak, bideoak, argazkigintzako erreportajeak edo ikus-entzunezko bestelako produktuak filmatzea edo grabatzea.

Espazio publikoa mugarritzeko, grabazioetarako osagaiak espazioan jartzeko edo oinezkoen nahiz ibilgailuen zirkulazioa mugatzeko beharra duten jarduerak egin nahi izanez gero, aurrez, nahitaezko baimena lortu beharko da. Alde batera utziko dira grabatzeko makina eramangarriak eskuan edo lepo gainean erabiliz egiten diren baina guztion erabileran lehen adierazitako eraginak izango ez dituzten filmazioko eta argazkigintzako jarduerak.

111. ARTIKULUA.- **Eskabidea**

Goiko 7.2. artikuluan finkatutako baldintzak gorabehera, interesdunak ahalik eta informazio gehien erantsi beharko dio bere eskabideari; eta, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko ditu:

- Eragina jasoko duten espazio publikoak, egingo diren okupazioen ordutegia eta iraupena, eta espazio publikoaren egitura fisikoan eta estetikoan gerta daitezkeen aldaketak, altzariak zehaztuta.
- Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioan izango duen eragina.
- Hala behar denean, izan daitezkeen soinu-mailak.
- Hartuko diren segurtasun eta autobabeserako neurriak, eta ondorio horretarako kontratatu diren erantzukizun zibileko aseguruaren egiaztagiriak.

IV. KAPITULUA.- BEHIN-BEHINEKO INFORMAZIOKO INSTALAZIOAK ETA ESKEAK

112. ARTIKULUA.- Azalpena eta baimena

Onurak jasotzeko xedea izanda funtsak eskatzeko espazio publikoan egiten diren jarduerak eskeak dira. Eskea kalez kale egin daiteke, edo zeregina erraztuko duten instalazioak edo altzariak jar daitezke, bestela.

Informaziorako instalazioak edo mahaiak hauek dira: gizarte edo antzeko izaerakoak diren gobernu kanpoko erakundeen zeregina zabaltzeko eta ezagutzera emateko –ez publizitatea egiteko– edo proiektuen aldeko sinadurak jasotzeko espazio publikoan egiten diren okupazioak. Era berean, barne hartuko dira, irabazteko asmoa izanda edo horrelakorik gabe, herritarrei publizitatekoa ez den informazioa emateko, eta herritarren garrantziaren arloan herritarrak mentalizatzeko helburu bakarrarekin bestelako erakundeek egiten dituzten okupazioak –hala nola, ingurumen, osasun, hezkuntza, kultura, pertsonen arteko berdintasun eta kulturen arteko desberdintasun arlokoak–. Informazio-mahai horiek ez dute inoiz sustatuko oinarrizko eskubideen aurkako ideiarik.

Jarduera horiek egiteko, aurrez, Udalaren nahitaezko baimena eskuratu behar da. Baimena emateko, ondo arrazoitutako eskabide zehatza aurkeztu beharko da, jarduera egin baino lehenago, 15 eguneko aurrerapenez gutxienez.

XI. TITULUA.- OKUPAZIO IRAUNKORRAK EDO IRAUPEN LUZEKOAK

I. KAPITULUA.- BAIMENAREN BIDEZ LORTUTAKO OKUPAZIO IRAUNKORRAK

113. ARTIKULUA.- Okupazio iraunkorrerako baimena zuzenean emateko kasuak

Okupazio iraunkorrerako baimena zuzenean emango da instalazio desmuntagarriekin egitekoak diren eta gehienez lau urte arteko aldietarako diren erabilera pribatiboetarako, irabazteko asmorik ez duten erakundeek egiten badituzte, edota, irabazteko asmoa izanda ere, erkidego osoarentzat onuragarria izango den eta gizarte-izaera nabarmena duen ekintza baten euskarri baterako erabilera pribatiboa bada.

Era berean, tankera honetako baimenetarako egokiak dira udalerrian berritzaileak diren jolas- eta aisialdi-izaerako espazio publikoaren erabilpenak, horiek egiteko aukera aldi baterako ematea egokia bada, etengabe uzteko bideragarriak diren neurtze aldera.

114. ARTIKULUA.- Okupazio iraunkorrerako baimena lehiaketa bidez emateko kasuak

Okupazio iraunkorrerako baimena lehiaketa bidez emango zaie, gehienez lau urteko eperako, irabazteko asmoa duten erakundeei, instalazio desmuntagarriak baliatuz erabilera pribatiboak egin ditzaten.

II. KAPITULUA.- EMAKIDA BIDEZ LORTUTAKO OKUPAZIOAK

115. ARTIKULUA.- Jabari-emakida emateko kasuak

Emakidapean egongo dira lau urtetik goragoko eperako ematen diren erabilpen pribatiboak, edo espazio publikoa obra edo instalazio finakoekin hartzea babesten duten erabilpenak, lehiak edo zuzeneko prozeduren bidez ematen badira. Gaitzen diren erabilera zehatzak osorik arautuko dira dagozkien baldintza-pleguetan edo preskripzio tekniko eta juridiko-administratiboen pleguetan, horiek emakida bakoitzak berekin ekarriko duen harreman

juridiko, eta behartze eta benetako harreman guztiei buruzkoak izango baitira. Jabari-emakidak dagozkien administrazio-agirian formalizatuko dira. Haien epea ez da 75 urtetik gorakoa izango, luzapenak barne hartuta.

116. ARTIKULUA.- Lehiaketa bidezko emakidak

Bilboko espazio publikoa publizitateko ustiapenari buruzko hiri-altzariarekin hartzeko –hala nola, komuna publiko, erloju eta termometroekin–, eta irabazteko asmoa duten jardueri lotutako bestelako okupazioak egiteko –esate baterako, prentsako kioskoak, ostalaritzako kiosko finkoak, telefonoko kabinak, posta-zerbitzuetako postontziak eta antzekoak–, aurrez, dagokion emakida beharko da, eta hori lizitazioa arautzen duten eta baldintza-pleguetan jasota dauden oinarrien arabera ebatziko da.

117. ARTIKULUA.- Zuzeneko emakidak

Emakiden tituluak zuzenean banatuko dira, murrizketak jarritz, eta legez aurrez jasota dauden salbuespenetan. Bereziki, emakidak zuzenean banatuko zaizkie sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko pertsona juridikoei edo administrazio publikoei, erabilgarritasun publikotzat jo izan diren irabazizko asmorik gabeko erakundeei, edo zerbitzu publiko edo interes orokorreko zereginak egiten dituzten eta horretarako emakidari dagokion espazio publikoa ezinbestez behar duten erakundeei edo pertsoneri.

XII. TITULUA.- IKUSKATZEKO ARAUBIDEA, ZEHAPENAK EZARTZEA ETA ZEHATZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA.- IKUSKATZEKO ZERBITZUA

118. ARTIKULUA.- Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzua

Udaltzainek eta Udaleko zerbitzu teknikoetako funtzionarioek dituzten zereginen kalterik egin gabe, Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzua izeneko administrazio unitatea arduratuko da Bilboko espazio publikoan egiten diren erabilera bereziak eta pribatiboak gainbegiratzear, alde batetik, baimenduta ez dauden horiek egin ez daitezen, eta, bestetik, baimenduta dauden horiek bete beharreko baldintzak osorik bete ditzaten.

119. ARTIKULUA.- Ikuskatzeko Zerbitzuaren jarduera

Zerbitzuari atxikitako funtzionarioak agintaritzaren agenteak dira, eta Udalaren jabari publikoan Udalak dituen eskumenak gauzatzear arduratuko dira, Ordenantza honetan ezarritakoa osorik beteko dela zainduz. Ondorio horietarako, eskumen osoa eta erabatekoa izango dute erabilera bakoitza egiteko baliatzen diren instalazioak eta materialak ikuskatzeko.

Espazio publikoa ikuskatzen duten langileak ondo egiaztatuta egongo dira, eta Udalaren esku-hartzearen irismenari buruzko informazioa emango dute, nahitaezko udal-baimenean jasota ez dauden jarduerak edo okupazioak berehala eteteko eskatuko dute, eta erabilera horren ondorioz egon daitezkeen zehapenak adieraziko dituzte; horrez gain, horri buruzko akta egingo dute, eta dagokion txostenarekin osatu ahal izango dute. Hori berehala bete ezean edo baimendu gabeko erabileretan errepikapenen bat dagoela ikusiz gero, horren berri jasoko dute, arau-hausleari dagokion erantzukizuna leporatzeko. Ikuskatzeko aktetan eta txostenetan jasotako salaketek balio osoa izango dute, proba gisa, horrela jasotako gertakariei begira.

Erabilera horiekin jarduten ari diren pertsonak beren burua identifikatu beharko dute espazio publikoko ikuskatzaileen aurrean, eta laguntza eman beharko diete ikuskatze-lanetan; nolana ere, lan hori erabilerari eta erabilerak espazio publikoan duen eraginari lotuta egongo da une oro. Borondatez identifikatu ezean, udaltzainen laguntza beharko da.

120. ARTIKULUA.- Salgaiak, instalazioak eta erabileran baliatutako bestelako gaiak atzematea

Espazio publikoko ikuskatzaileek –haiek zuzenean edo udaltzainen laguntzaz– behar diren neurriak hartuko dituzte baimenik ez duten erabilera bereziak edo pribatiboak egin ez

daitezen, eta, orobat, baimena duten baina, baldintzak era nabarmenean hautsi dituztelako, geldiarazteko edo erregulatzeko eskakizuna jaso duten erabilera horiek egin ez daitezen.

Kasu horietan, arau-hauslearen esku dauden instalazioak, salgaiak edo dirua konfiskatzeko edo atzemateko aginduko da. Ondasun horiek udal-biltegira eramango dira, iragankorrak diren gaiak izan ezik, horiek suntsitu egingo baitira. Atzemandako ondasunak ez dira atzera itzuliko, harik eta dagokion zehapena edo zenbatekoa ordaindu arte, eta, betiere, jabetza egiaztatzen bada eta haien salmenta bidezkoa bada. Ondasunak konfiskatzeak eta udal-biltegian edukitzeak eragindako gastuak edo udal-tasak erabiltzaileak ordaindu beharko ditu, atzera eskuratu aurretik; eta, hori gorabehera, isunaren ordainketari buruz ezarritakoa bete beharko da.

Jabetza intelektualaren aurkako delitua egiteko aukera dagoela atzemanaz gero, arau-hauslea nor den identifikatu ondoren, eskumena duen segurtasun-gorputzari jakinaraziko zaio, eta dagokion ministerio fiskalari edo agintaritzak judizialari salaketa jarriko zaio.

II. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEAK EZARTZEA ETA ARDURADUNAK

121. ARTIKULUA.- Arau-hausteen motak

Ordenantza hau urratzen dute bertan jasotako artikulua eta baimenei dagozkien baldintza zehatzak adierazitakoaren aurka doazen arau-haustek; sailkapenaren arabera, arau-hauste arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondorioei begira, zehatzeko moduko ekintza independentea izango dira Ordenantza honetan xedatutakoaren aurka doazen eta denboran edo espazioan bananduta dauden jarduera guztiak.

Zehapenak ezartzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak xedatutakoa beteko da, ondoko artikuluetan jasota dauden arau-hausteei finkatutako legezko urraketen zehaztapen argiak direlako. Izan ere, Bilboko espazio publikoaren erabilpenaren aldetik, gizalege eta bizikidetzako harremanen araudia hausten dute, bereziki, espazio horren erabilera arrunta aintzat hartzen ez dutelako, eta erabilera bereziak edo pribatiboak egiten dituztelako baimenik izan gabe edo erabilerari lotutako baldintzak bete gabe.

Zehatzeko araubide hori gorabehera, dagokion legedi sektorialean jasotzen diren arau-hausteei legedi horretan finkatzen diren zehapenak ezarriko zaizkie.

122. ARTIKULUA.- Arau-hausteen erantzuleak

Arau-hausteen erantzuleak izango dira ekintza edo omisio horien erantzukizuna duten pertsona fisikoak eta/edo juridikoak; bestalde, baimenaren titularrak izango du bere ordezkari, lankideari, ordezkariari edo langileari egotzi ahal zaizkion ekintzen edo omisioen erantzukizuna, ordenantza honetako artikuluetan finkatutako erantzukizun solidarioari edo subsidiarioari kalterik egin gabe.

Arau-hausleak identifikatzeko beharrezkoak diren eginbideak egin ondoren, ezinezkoa baldin bada arau-haustean parte hartu duten subjektuen parte-hartzearen maila zehaztea, erantzukizuna solidarioa izango da.

Egindako arau-haustek 18 urtetik beherako lagun batek egin baditu, era solidarioan hartuko dute erantzukizuna haren aitak, amak, tutoreak, hartzaileek eta legezko edo izatezko zaintzaileek, hurrenkera horri jarraiki, haiek ez baitute bete betebeharrak zutena, hau da, adingabekoei egotzitako administrazioko arau-hauste bati aurrea hartzea.

123. ARTIKULUA.- Arau-haustek direla-eta egindako kalteen erantzukizuna

Arau-hausleek izango dute arau-hausteen bidez pertsonari edo ondasunari egiten dizkieten kalteen erantzukizuna; ondasunen barruan barne hartuko dira ondasun publikoak, hala nola, espazio publikoa bera eta bertan kokatutako altzariak. Ondasun publikoari kalterik eraginez gero, arau-hausleak berak Udalak baimendutako eran zuzentzen ez baditu, eskumena duten zerbitzu teknikoek kalteen tasazioa egingo dute, eta kalte-ordainak egiteko eskatuko dizkiote. Ordainketa egiteko epea hilabetekoa izango da, eta epe horretan kalteak ordaindu ezik, bide betearazleak baliatuko dira ordainketa lortzeko.

124. ARTIKULUA.- Arau-hauste arinak

Ondoko egintzak edo omisioak egitea arau-hauste arina izango da:

A) ESPAZIO PUBLIKOAN EGINDAKO JARDUERA ZEHATZ BATZUEN ARLOAN

- 1.- Espazio publikoan musikako edo arte-arloko ekitaldiak egitea, behar den baimena izan gabe.
- 2.- Espaloietatik eta oinezkoentzako guneetatik ibilgailu mekanikoekin, bizikletekin eta ibiltzeko beste gailu batzuekin mugitzea, 21. artikuluan adierazitakoa hautsiz, eta, orobat, artikuluan horrexetan jasota dauden gainerako debekuak edo adierazpenak ez betetzea.
- 3.- Herritarren bizikidetza baketsua kaltetzeko eta/edo hankaz gora jartzeko arrisku edo eragozpen izan daitezkeen jolasak, kirolak, jostaketak eta bestelako jarduerak egitea.
- 4.- Bilboko espazio publikoan egiten diren obrak adierazten dituzten txarteletan 23 g) artikuluan adierazitako datuak ez agertzea.
- 5.- Kalean litroak edatea 17.1 artikuluan azaldutako eran, parte hartzea eraginkorra edo pasiboa izan arren.
- 6.- Sexu-jarduerak eta/edo exhibizionismoko jokaerak izatea, eta sexu-zerbitzuak eskaintzea eta eskatzea espazio publikoan, era esplizituan eta nabarmenean, herritar guztiak ikusteko moduan.

Goiko 3., 5. eta 6. idatz-zatietan adierazitako arau-hausteen erantzukizuna jardueretan parte-hartzen duten pertsonak izango dute, nor banaka.

Bestalde, 4. idatz-zatian azaldutako arau-haustearen erantzule solidarioak izango dira obren jabea, kontratista edo sustatzailea.

Adingabekoez egiten dituzten arau-hausteen erantzukizuna, bestalde, haien guraso-ahala, zaintza edo legezko tutoretza duten pertsona izango da.

B) TERRAZEN ARLOAN

- 1.- Jarduera hasteko edo ixteko ordutegia ez betetzea, ordu erditik beherako aldiari.
- 2.- Terraza jartzeko eta kentzeko lanetan, zarata ateratzea.
- 3.- Baimendutakoa baino azalera gehiago hartzea, edo baimendutakoa baino mahai edo aulki gehiago jartzea, betiere, gehiegizko kopuru horrek azaleraren edo baimendutako osagaien – mahaien eta aulkien– kopuruaren %10 gainditzen ez badu.
- 4.- Baimendutako terraza eratzen duten instalazioak pixka bat hondatzea edo ez garbitzea.
- 5.- Baimendutako terraza kokatuta dagoen espazio publikoa eta ingurumariak garbi ez izatea, hala terraza abian dagoen bitartean, nola jarduera amaitu ondoren.
- 6.- Udalaren baimena egiaztatzen duen agiria ondo ikusten den lekuan ez erakustea, bezeroek, auzokoez eta agintaritzaren agenteek ikus dezaten.
- 7.- Terraza jartzea edo kokatzea baimendutako era ez den modu batean.
- 8.- Establezimenduaren ondoan edo hari erantsita dauden hiri-apaingarriak eta altzariak arinki hondatzea, lizentziari dagokion jardueraren ondorioz.
- 9.- Instalazioen ondoan materialak, ontziak edo bestelako lanabesak metatzea, eta, era berean, mahaiak, aulkiak edo antzekoak bide publikoan pilatzea, terraza abian dagoen bitartean.
- 10.- Ordenantza honetan finkatutako edo baimena ematen duen tituluan adierazitako debekuak haustea eta betebeharrak ez betetzea, hori arau-hauste larri edo oso larri gisa berariaz sailkatuta ez badago.

C) KALEZ KALEKO SALMENTAREN ETA BIDE PUBLIKOKO BESTELAKO SALMENTEN ARLOAN

- 1.- Kalez kaleko salmentarako ezarrita dagoen ordutegia ordu erditik beherako aldiari ez betetzea, hala instalazioa muntatzeko eta desmuntatzeko lanetan, nola jarduera bera gauzatzean.
- 2.- Salgaia lurrian jartzea, gutxienez lurreraino utzi beharreko 60 cm-ko garaiera bete gabe, edo salgaia behar den babesik gabe erakustea.
- 3.- Salgaiak pisatuta edo neurtuta saltzen direnean, baskularik edo metro-sokarik ez izatea.
- 4.- Azoka txikitik ibilgailuz ibiltzea, azoka egiten ari den bitartean.
- 5.- Saltokian soinu-gailuak erabiltzea, hala nola, musikako ekipamenduak, megafonia eta antzekoak.
- 6.- Baimenaren identifikazio-txartela jendeak ikusteko moduko toki agerian ez izatea.
- 7.- Merkataritzako ordutegian, saltokiaren barruan jatea edo edatea.
- 8.- Baimendutako salmenta automatikorako edo olgetako zerbitzuetako makina ez ibiltzea, edo behar den moduan ez ibiltzea.
- 9.- Establezimenduak hedatzeko arloan finkatutako ordutegia ez betetzea.
- 10.- Establezimendua beste era batean hedatzea, baimendutakoa ez den modu batean, edo baimendutakoa baino azalera gehiago hartuz, betiere, baimendutako azalera %15 gainditu

gabe.

11.- Merkataritzako hedapenak barne hartzen duen espazio publikoa behar bezain garbi ez izatea, jardunean aritu bitartean, edota jarduera bukatu eta instalazioa kendu ondoren.

12.- Kalez kaleko salmenta sustatzea eskaintzen diren artikuluak erosiz.

13.- Legezkoa ez den salmenta estaltzeko lanak egitea, agintaritzaren agenteak ba ote dauden begiratzuz eta legez kanpoko saltzaileei horretaz ohartaraziz.

D) OBRETAN LAGUNTZEKO DIREN OSAGAIEN ETA APARKATZEKO ERRESERBEN ARLOAN

1.- Nahitaezkoak diren identifikazioko datuak ez dituzten edukiontzia jartzea.

2.- Edukiontzia baimendutakoa ez den gunean eta baimendutakoa ez den era batean jartzea, betiere, horrela oinezkoen joan-etorria eta herritarren irisgarritasuna eta mugikortasuna oztopatzen ez bada.

3.- Egitura, pintura eta garbitasun aldetik egoera kaxkarrean dauden edukiontzia jartzea.

4.- Urteko indarraldiko baimen edo lizentzia baten babespean edukiontzia jarriko dela aurrez behar den moduan jakitera ez ematea.

5.- Edukiontzia edukiera gainditzea, goiko planoa gaindituz.

6.- Hala egin behar denean, edukiontzia ez estaltzea.

7.- Edukiontzia ondoko espazio publikoa behar den bezain garbi ez edukitzea, eta, era berean, guztiz garbi ez uztea behin edukiontzia kendu ondoren.

8.- Edukiontzira isurtzeko lanak egitean bide publikoa zikintzea, edo lan horiek egitea haizearen egoera dela-eta ibiltarientzat gogaikarria izan daitekeenean.

9.- Edukiontzia betetik daudenean ez kentzea.

10.- Baimendutakoak ez diren hondakinak botatzea.

Goiko 5., 6., 7., 8. eta 9. idatz-zatietan adierazitako arau-hausteen erantzule solidarioak izango dira edukiontzia errentaria, obrak egiten diren higiezinako jabea, obren jabea, kontratista edo sustatzailea, eta obra-lizentziaren titularra.

E) DOAKO PRENTSAREN ARLOAN

1.- Baimenduta ez dagoen leku batean banatzea, leku horren eta baimendutako banatze-puntu edo -tokiaren artean 50 metro baino gutxiago daudenean.

2.- Espazio publikoa hartzean eta banatzean, oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa oztopatzea.

3.- Banatzeko puntuen kopurua gehitzea, baimena ematen duen tituluan finkatutakoari dagokionez, betiere, gehikuntza horrek %10 gainditzen ez badu guztira baimendutako puntuen.

4.- Prentsa banatzea ibilgailuetan edo garraiabide publikoetan daudenen artean, eta, era berean, prentsa banatzea aparkatuta edo mugitzen ari diren ibilgailuen barnetik.

5.- Hiri-altzariak edo baimenduta ez dauden bestelako euskarriak baliatzea egunkariak bermatzeko edo biltegitartzeko gailu gisa.

6.- Prentsa doan banatzen dela iragartzea oihuka edo soinu-anplifikagailuren bat baliatuz.

7.- Baimendutako jarduerari dagokion prentsa banatzeko erabiltzen den lekua apain eta garbi ez egotea, eta banatze-lanak bukatu ondoren prentsa bertan behera uztea.

8.- Baimenduta ez dauden orduetan edo egunetan prentsa banatzea.

9.- Ordenantza honek finkatzen duen eran, banatzailearen identifikazioa egiaztatzen duen txartela toki agirian edukitzeko betebeharra ez betetzea.

10.- Ordenantza honetan eta baimena ematen duen tituluan jasota dauden debekuak haustea edo betebeharrak ez betetzea, betiere, hori arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

F) ORO HAR

1.- Baimendutakoa baino azalera gehiago hartzea, gehikuntza horrek baimendutakoaren %15 gainditzen ez badu.

2.- Baimendutako ordutegia ez betetzea, baina ordu erdiko aldia gainditu gabe.

3.- Udalaren ereduari jarraiki baimendutako jarduera deskribatzeko txartelak ez jartzea, baldin eta baimenean horrela eskatu bada.

4.- Baimendutakoak gainditzen dituzten soinu-mailak emititzea, betiere, baimendutakoa %10 gainditzen ez bada.

5.- Espazio publikoa behar bezain garbi ez edukitzea jarduera egin bitartean eta bukatu ondoren.

6.- Espazio edo ondasun publikoei kalteak eragitea, erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz, betiere, kalte horiek 3.000 eurotik beherakoak badira.

7.- Eskumena duten agintariek edo agintaritzaren agenteek edota funtzionarioek, beren betebeharrak betetzean, eskatzen duten informazioa emateari uko egitea, horri aurre egitea, edo zehatza ez den informazioa ematea.

8.- Ordenantza honetako artikuluen aurka eta, hala dagokionean, dagozkien baimenek dituzten baina aurreko idatz-zatietan jasota ez dauden baldintza berezien aurka doazen ekintza edo omisio guztiak.

125. ARTIKULUA.- Arau-hauste larriak

Ondoko egintzak edo omisioak egitea arau-hauste larria izango da:

A) ESPAZIO PUBLIKOAN EGINDAKO JARDUERA ZEHATZ BATZUEN ARLOAN

1.- Gogaikarriak edo arriskutsuak diren edo debekatuta dauden jolasak egitea, horien ondorioz pertsonak edo ondasun pribatuak edota ondasun publikoak kalteak hartzen badituzte eta kalte horiek 3.000 eurotik gora jotzen ez badute.

2.- Espazio publikoan egin nahi diren obrak edo osagai lagungarriren bat espazio publikoan jarri behar delako espazio publikoan eragina izango duten obrak identifikatzeko txartela ez jartzea.

3.- Sexu-jarduerak eta/edo exhibizionismoko jokaerak izatea, eta sexu-zerbitzuak eskaintzea eta eskatzea espazio publikoan, era esplizituan eta nabarmenean, herritar guztiek ikusteko moduan, betiere, adingabeak, haurrak eta nerabeak maiz joaten diren lekuetan egiten badira, eskolak, egoitza-guneak edo merkataritza-guneak dauden lekuetatik 200 metrotik beherako distantziara dagoen leku batean egiten badira, edo jarduera horien ondorioz hiriko altzariak edo ekipamendua hondatzen bada.

4.- Klean litroak edatea, 17.2 artikuluko idatz-zatietan jasotako inguruabarretako bat edo batzuk tartean direla.

B) TERRAZEN ARLOAN

1.- Baimenaren indarraldian edo egutegiko urte bakoitzaren barruan arau-hauste arinak bi aldiz egitea edo errepikatzea.

2.- Baimendutakoa baino azalera gehiago hartzea, edo baimendutakoa baino mahai edo aulki gehiago jartzea, betiere, gehiegizko kopuru horrek azaleraren edo baimendutako osagaien kopuruaren %30 gainditzen ez badu.

3.- Establezimenduaren ondoan edo hari erantsita dauden hiri-apaingarriak eta altzariak larriki hondatzea, lizentziari edo emakidari dagokion jardueraren ondorioz, eta, betiere, hori arau-hauste arina edo oso larria ez bada.

4.- Ordenantza honek ezarritakoari jarraiki, lanaldia bukatu ondoren kanpoaldeko altzariak ez kentzea.

5.- Publizitatea duten mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, olanak eta antzekoak jartzea.

6.- Txartelak, publizitateko hesiak edo erakartzeko diren bestelako osagaiak jartzea, eta, orobat, publizitatekoak ez izan arren, trenkadak, landare-ontziak, loreontziak, upelak eta baimenduta ez dauden antzeko osagaiak jartzea.

7.- Baimendutakoak ez diren altzariak jartzea eta/edo erabiltzea.

8.- Merkataritzako edo zerbitzuetako eraikinetara eta lokaletara, ondo seinalatutako oinezkoentzako bideetara, larrialdietarako irteeretara eta Udalak baimendutako gurdien sarreretara heltzea edota zirkulazioko seinaleak ikustea galarazten edo zailtzen duten osagaiak jartzea.

6.- Ureztatzeko ahoak, sute-ahoak, estolderiako erregistroak, garraiobide publikoko geralekuak, eraldatzeko zentroak eta zerbitzu publikoetako erregistroko kutxatilkak hartzea, eta, era horretan, zerbitzu publikoak berehala erabili ahal izan ditzaten galaraztea.

10.- Baimena emateko aintzat hartu diren baldintza bereziak ez betetzea.

11.- Irudia, soinua edo soinu-bibrazioak erreproduzitzeko gailuak edo anplifikagailuak terrazetan jartzea.

12.- Udal-baimenik gabe musikako ekitaldiak egitea.

13.- Auzokoei eta ibiltariei eragozpenak egitea, behin eta berriz eta ondo egiaztatuta, instalazioaren funtzionamenduaren ondorioz.

14.- Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzuak emandako betebeharrak, jarraibideak edo ohartarazpenak ez betetzea.

15.- Aireko konexio elektrikoak egitea.

16.- Baimena lortzeko asmoz aurkeztutako datuak edo agiriak estaltzea, manipulatzeko edo faltsutzea.

17.- Lizentziaren agiria edo antzekoren bat ez erakustea udaltzainei edo hala eskatzen duten ikuskaritza-zerbitzuko agenteei.

18.- Irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, ordu erditik gorako baina ordubetik beherako aldian.

19.- Terraza ustiatzeko emakida titularra ez den pertsona bati lagatzea.

C) KALEZ KALEKO SALMENTAREN ETA BIDE PUBLIKOKO BESTELAKO SALMENTEN ARLOAN

1.- Titularra, edo haren lehen edo bigarren mailako senidea, enplegatua edo lankidea ez den pertsona batek postuaren ardura izatea.

2.- Baimendutakoak ez diren salgaiak saltzea.

3.- Baimendutakoa ez den gunea hartzea.

4.- Merkataritzako establezimenduaren hedapena baimendutakoa ez den era batean eratztea, eta, horrela, eragozpenak eragitea oinezkoen zirkulazioari, irisgarritasunari edo mugikortasunari.

5.- Establezimenduaren hedapena eratztean, baimendutako azalera gainditzea %15 baino gehiago hartuz.

D) OBRETAN LAGUNTZEKO DIREN OSAGAIEN ETA APARKATZEKO ERRESERBEN ARLOAN

1.- Edukiontzia jartzea edo obra-hondakinak ateratzea, horretarako behar den udal-lizentzia izan gabe.

2.- Lizentzian zehaztu den epea bukatzean ez kentzea.

3.- Aparkalekuak erreserbatzea, horretarako behar den udal-lizentzia izan gabe.

E) DOAKO PRENTSAREN ARLOAN

1.- Emandako baimenari jarraiki, jabari publikoa banatzeko eta ustiatzeko lanak zuzen betetze aldera Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzuak edo Udaltzaingoak ematen dituzten aginduei edo ohartarazpenei entzungor egitea.

2.- Egutegiko urte bakoitzean hiru arau-hauste arin edo gehiago egitea.

3.- Banatzaileak baimendutako egunkariari ez dagokion publizitatea erakustea.

4.- Doan banatzea baimendu den egunkaria ez den beste produkturen bat saltzea edo doan banatzea.

5.- Baimenduta ez dagoen leku batean prentsa banatzea, leku horren eta baimendutako banatze-puntu edo -tokiaren artean 50 metro baino gehiago daudenean.

6.- Banatzeko puntuen kopurua gehitzea, baimena ematen duen tituluan finkatutakoari dagokionez, betiere, gehikuntza horrek guztira baimendutako puntuen %10 gainditzen badu.

F) ORO HAR

1.- Espazio edo ondasun publikoei kalteak eragitea, erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz –berdin dio baimenduta dagoen edo ez–, betiere, kalte horiek 3.000 eurotik gorakoak baina 6.000 eurotik beherakoak badira.

2.- Erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz –berdin dio baimenduta dagoen edo ez–, ondasun pribatuetan kalteak sortzea.

3.- Hala behar denean, espazio publikoaren erabilera bereziari edo pribatiboari dagozkion diru-ordainak edo gaikuntza ematen duen baimena edo lizentzia egiteari dagozkion ordainak ez ordaintzea; hori gorabehera, diru-arloko erantzukizunak zehaztu ahal izango dira dirua biltzeko prozeduretan.

4.- Eskumena duten agintariek edo agintaritzaren agenteek edota funtzionarioek, beren betebeharrak betetzean, eskatzen duten informazioa emateari uko egitea, horri aurre egitea edo zehatza ez den informazioa ematea, betiere, egutegiko urte berean horrelako beste arau-hauste bat egin bada.

5.- Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzuak edo Udaltzaingoak baimendutako erabileren garapena zuzentze aldera egindako lehen eskakizunari jaramonik ez egitea.

6.- Baimendutako erabileren harira, baimenduta ez dauden jarduerak egitea edo okupazioak hartzea.

7.- Udal-agintaritzak edo haren agenteek emandako betebeharrak, jarraibideak edo ohartarazpenak ez betetzea.

8.- Baimendutako jardueraren eta/edo erabileraren arriskuak estaliko duen erantzukizun zibilaren aseguruak ez izatea, hori beharrezkoa izan arren.

126. ARTIKULUA.- Arau-hauste oso larriak

Ondoko egintzak edo omisioak egitea arau-hauste oso larria izango da:

A) TERRAZEN ARLOAN

- 1.- Baimenaren indarraldian edo egutegiko urte beraren barruan bi arau-hauste larri bi aldiz egitea edo errepikatzea.
- 2.- Baimendutakoa baino azalera gehiago hartzea, edo baimendutakoa baino mahai edo aulki gehiago jartzea, betiere, gehiegizko kopuru horrek azaleraren edo baimendutako osagaien kopuruaren %30 gainditzen badu.
- 3.- Terraza jartzea, nahitaezkoa den udal-lizentziarik gabe eta legeztatzeko aukera izan arren, mota horretako instalazioek betetzen dituzten baldintzak betetzeagatik.
- 4.- Terraza jartzea, nahitaezkoa den udal-lizentziarik gabe eta legeztatzeko aukera izan gabe, mota horretako instalazioek betetzen dituzten baldintzak betetzen ez direlako, edo erabilitako espazio publikoan finkatuta dauden baldintzak betetzen ez direlako.
- 5.- Terraza jartzea baimendutakoa ez den denboraldi batean.
- 6.- Ikuskatzaileekin eta udaltzainekin begirunezko falta larria izatea, irainak, laidoak edo mehatxuak eginez.
- 7.- Lizentziaren indarraldia bukatzean edo udal-agintariek eskatzen dutenean instalazioak ez desmuntatzea.

- 8.- Instalazioa berehala geldiarazteko agindua ez betetzea, eta, horren ondorioz, bizikidetza era nabarmenean hondatzea, beste pertsona batzuen legezko eskubideak edo lasaitasuna larriki, berehala eta zuzenean kaltetuz, ezar daitekeen araudia betetzen duten era guztietako jardueren ohiko garapena nahastea, edo osasungarritasun eta apaindura publikoa nahasaraztea, eta, era horretan, zerbitzu publiko baten erabilera edo funtzionamendua galaraztea edo oztopatzea, edota zerbitzu, espazio edo instalazio publikoetako ekipamenduak eta azpiegiturak edo bestelako instalazioak larriki hondatzea.
- 9.- Irekitzeko edo ixteko ordutegia ez betetzea, ordubetetik gorako aldian, eta, horren ondorioz, bizikidetza era nabarmenean hondatzea, beste pertsona batzuen legezko eskubideak edo lasaitasuna larriki, berehala eta zuzenean kaltetuz, ezar daitekeen araudia betetzen duten era guztietako jardueren ohiko garapena nahastea, edo osasungarritasun eta apaindura publikoa nahasaraztea.

B) KALEZ KALEKO SALMENTAREN ETA BIDE PUBLIKOKO BESTELAKO SALMENTEN ARLOAN

- 1.- Kalez kaleko salmentan aritzea, nahitaezkoa den udal-lizentzia izan gabe.
- 2.- Baimenduta ez dauden jakiak eta edariak saltzea.
- 3.- Espazio publikoan salmenta automatikoko edo olgeta-zerbitzuetako makinak jartzea, nahitaezkoa den udal-lizentzia izan gabe.

C) DOAKO PRENTSAREN ARLOAN

- 1.- Jardueran aritzea nahitaezkoa den udal-lizentzia izan gabe; berdin dio banaketa-postuen kopurua zenbatekoa den.
- 2.- Egutegiko urte bakoitzean hiru arau-hauste larri edo gehiago egitea.

D) ORO HAR

- 1.- Espazio edo ondasun publikoetan kalteak eragitea, erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz –berdin dio baimenduta dagoen edo ez–, betiere, kalte horiek 6.000 eurotik gorakoak badira.
- 2.- Erabilera bereziaren edo pribatiboaren ondorioz –berdin dio baimenduta dagoen edo ez–, pertsoneri kalteak eragitea.
- 3.- Espazio publikoa hartzea edo bertan jarduerak egitea, nahitaezkoa den udal-baimena izan gabe.
- 4.- Jendea edota ibiltariak begirunez ez hartzea, hertsatzea edo mehatxatzea, edota jokabide horietan izatea udal-agintaritzaren, haren agenteen edo funtzionarioen aurrean, dagozkien zereginak betetzen ari diren bitartean.
- 5.- Eskumena duten agintariek edo agintaritzaren agenteek edota funtzionarioek, beren betebeharrak betetzean, eskatzen duten informazioa emateari uko egitea, horri aurre egitea edo zehatza ez den informazioa ematea, betiere, egutegiko urte berean horrelako beste arau-hauste baten errepikapena bada.
- 6.- Manipulatutako edo faltsututako agiriak ematea.
- 7.- Espazio Publikoa Ikuskatzeko Zerbitzuak edo Udaltzaingoak baimendutako erabileren garapena zuzentze aldera egindako bigarren eskakizunari jaramonik ez egitea.
- 8.- Baimendutako erabileren harira, baimenduta ez dauden jarduerak egitea edo okupazioak hartzea, betiere, jarduera edo okupazio horiek izaera ekonomikokoak badira, edo dagozkien baimenean berariaz ukatu edo debekatu badira.
- 9.- Aurretiazko jakinarazpen edo adierazpen arduratsuekin aurkeztutako edo horiei erantsitako

datuak, adierazpenak edo agiriak zehatzak ez izatea, faltsuak izatea edo daturen bat ezkutatzea; edota Udalari aurretiazko jakinarazpen edo adierazpen arduratsurik ez aurkeztea hala behar denean; hala izatekotan, dena delako erabilpena edo jarduera eten beharko da.

10.- Beren eskumeneko eginkizunak betetzen, eta Ordenantza honi jarraiki, espazio publikoaren ikuskatzaileek edo udaltzainek kontrolatzeko, ikertzeko edo zehatzeko egiten dituzten lanak oztopatzeko ekintzak edo omisioak egitea.

11.- Udal-agintariak, haren agenteek edo espazio publikoaren ikuskatzaileek emandako agindu edo eskakizun bereziak ez betetzea.

III. KAPITULUA.- ZEHAPENAK ZEHATZEA

127. ARTIKULUA.- Zehapenen zenbatekoa

Arau-hauste arinak egiteagatik, 750 € bitarteko isuna jarriko da, arau-hauste larriak egiteagatik 1.500 € bitarteko isuna, eta arau-hauste oso larriak egiteagatik, azkenik, 3.000 € arteko isuna.

128. ARTIKULUA.- Zehapenak finkatzea

Zehatzeko espediente izapidetu bitartean atzeman daitezkeen inguruabar zehatzak haztatu arren, hori gorabehera, isunak mailakatuko dira, alderdi hauek aintzat hartuta: erabilerak irabazizko asmoa duen edo ez, arau-hauste zehatzak espazio publikoaren erabilera arruntean eta orokorrean duen garrantzia udal-zerbitzu publikoak era arruntean garatzeko eta bizikidetzaren publikoko harremanetan izandako eragina ikusita.

Agintaritzako agenteek arau-hausteak saihesteko emandako adierazpenei eta egindako eskakizunei uko eginez gero, hori bereziki hartuko da kontuan zehapenen zenbatekoa finkatzeko. Hala ere, agintaritzako agenteek ordenantza honetan xedatutakoari jarraiki emandako aginduei uko egitea arau-hauste arrunta edo ohikoa izan daiteke, betiere, arau-hauste penala ez bada.

Nolanahi ere, zehapenen zenbatekoa finkatzean, egokitasunaren printzipioa izango da kontuan, eta goian aipatutako inguruabarrez gain, nahitakotasuna, berriz egitea eta errepikatzea hartuko dira aintzat.

129. ARTIKULUA.- Zehapenen xedea

Sexu-zerbitzuak eskaintzeko eta eskatzeko esparruan finkatzen diren diru-zehapenen bidez bildutakoa, udal-programak finantzatzeko edo behar bezala eratutako erakundeei diruz laguntzeko erabiliko da, betiere, haien xedea kalean prostituzioan aritzen diren pertsonen taldeari laguntza ematea edo haiekin lankidetzan jardutea baldin bada.

Kalean litroak edateagatik finkatzen den diru-zehapenaren bidez bildutakoa, berriz, gazteentzako aisialdiko programak finantzatzeko baliatuko da.

IV. KAPITULUA.- ZEHATZEKO PROZEDURA, ZEHAPENA BETEARAZTEA ETA PRESKRIPZIOA

130. ARTIKULUA.- Zehatzeko prozedura

Zehatzeko prozedura orokorra –hau da, gaitzeko titulurik tartean ez dagoenean erabiltzen dena– ofizioz jarriko da abian, dagokion salaketaren harian, prozedura abiarazteko ebazpenaren bidez. Zehatzeko proposamen zehatza jasoko duen ebazpen hori ustezko erantzuleari helaraziko zaio, bere eskubideak babesteko egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan 15 eguneko epean. Prozedura abiaraziko duen ebazpenak prozeduraren instrukziogilea izendatuko du, eta pertsona hori arduratuko da zehapena emateko ebazpen-proposamen zehatza egiteaz, aurkeztutako alegazioak ebatziko ditu, egokitzat jotzen dituen jardueren bidez, eta egokia den isuna zehaztuko du azkenik, kasu bakoitzean dauden inguruabar bereziak aintzat hartuta.

Udal honetako espazio publikoa erabiltzeko baimena jaso duten edo Udalaren jabari publikoaren emakida izan duten pertsonen zehapena emateko prozedurak izapidetzen badira, emandako baimenetan edo emakidetan finkatutako baldintzak hautsi dituztelako, lehenik, zehatzeko prozedura adieraziko zaio egotzitako arau-haustearen erantzuleari, eta egutegiko 10 eguneko epea emango zaio alegazioak egin ditzan. Prozedura burutzeko, dagokion ebazpena

emango da, isuna ezartzeko edo baimendutako pertsonaren erantzukizun eza argitzeko.

131. ARTIKULUA.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

Arau-hauste arinak sei hilabetera preskribatuko dira, larriak bi urtera, eta oso larriak hiru urtera.

Arau-hauste arinengatik jarritako zehapenak urtebetera preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik jarritakoak bi urtera, eta arau-hauste oso larriengatik jarritakoak hiru urtera.

Zehapenen preskripzio-epea noiz hasten den eta noiz eteten den erabakitzeke, administrazio-prozedura erkidearen araudiak agindutakoari jarraituko zaio.

132. ARTIKULUA.- Zehapenak betearaztea

Zehapenak hilabeteko epean betearazi beharko dira, administrazio-bidean irmo bilakatzen diren unetik, hau da, zehatzeko ebazpenaren aurka jar daitekeen birjartzeko errekursoari dagokion ebazpena jakinarazten denean, edota batere errekurtsorik jarri ez bada zehatzeko ebazpena jakinarazi eta hilabete igarotakoan.

Zehapena betearazte aldera, interesdunak dagozkion bulegoetara jo beharko du ordainagiria eskuratu eta ordainketa egiteko, hilabeteko epean, zehapena irmo bilakatzen denetik. Bestela, zehapena bide betearazleen bidez ezarriko da, egokiak diren errekarquak eta interesak gehituta.

Baimena edo emakida duten pertsonen ezarritako zehapenak guztiz edo zati batean betearazi ahal izango dira pertsona horiek espazio publikoa zuzen erabiltzeko berme gisa jarri duten fidantzen kargura. Alabaina, zehapena finkatutako epean betearazten ez bada, gaitzen duen titulua baliogabetzeko edo iraungitzekeo prozedura abiaraziko da.

133. ARTIKULUA.- Zehapen jakin batzuk geldiaraztea

Sexu-zerbitzuak eskaintzeko edo eskatzeko eta kalean litroak edateko arloan finkatuta dauden diru-zehapenak kasu hauetan indargabetu ahal izango dira:

a) Sexu-zerbitzuak eskaintzen araua hautsi duen pertsonak parte hartzen baldin badu espazio publikoetan prostituzioari uzteko lagungarriak diren gaitasun eta trebetasun pertsonalak eskuratzeko programetan edo jardueretan.

b) Kalean litroak edaten araua hautsi duen pertsonak onartzen baldin badu Udalak erkidegoaren onurari begira ezarritako lanak edo jarduerak egitea, edota parte hartzen baldin badu alkoholaren kontsumoari aurre egiteko eta alkoholak osasunari begira dituen ondorioei buru Udalak zehazten dituen ikastaroetan.

134. ARTIKULUA.- Zehapenak geldiarazteko prozedura

1. Zehapenak geldiarazteko espedienteak hasteko eta ebazteko, eta, orobat, geldiarazteko zehapena noiz bukatuko den erabakitzeke eskumena duen agintaria zehapena jarri zuen horixe bera izango da.

2. Prozedura abiaraziko da arau-hausleak, dagokion eskaera betez, aditzera ematen duenean prest dagoela erkidegoaren onurari begira dauden lanak edo jarduerak egiteko, edota ikastaroetan parte hartzeko, aurreko artikuluan adierazitakoari jarraiki.

3. Geldiaraztearen aldeko ebazpena emanez gero, eskumena duen agintariak zehapenaren preskripzio-epea ere bertan behera utziko du, lanek, jarduerak edo ikastaroak izan behar duten iraunaldian.

4. Geldiarazita dagoen bitartean, eskumena duen agintariak egokitzat jotzen duen jarraipena egin ahal izango du, dagozkion zereginetan bertaratu den eta izan dituen emaitzak jakiteko.

5. Bildutako informazioaren arabera arau-hausleak bere gain hartutako konpromisoa era egokian bete duela ulertzen bada, agintari eskudunak finkatutako zehapena edo zehapenak osorik edo zati batean barkatzea erabakiko du.

6. Zehapena osorik edo zati batean betetzen ez bada, edo izaera bereko beste arau-hauste bat egiten bada, eskumena duen agintariak zehapena betearazteke espedienteari jarraipena ematea ebatziko du.

V. KAPITULUA.- BAIMENAK BALIOGABETZEA ETA BAIMEN BERRIRIK EZ EMATEA

135. ARTIKULUA.- **Baimenak baliogabetzea eta baimen berririk ez ematea**

Ordenantza honetako 6.1. eta 9. artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe, espazio publikoaren erabilera pribatiboak eta bereziak egiteko baimenak baliogabetuko dira, titularrak arau-hauste larriren bat egin duelako zehapen irmoa jasotzen baldin bada, urtebeteko epean, zehapenaren irmotasuna kontuan izanda, beste arau-hauste oso larri bat egiteagatik berriz era irmoan zehatzen badute. Egokitzat jotzen baldin bada, baliogabetzeko ebazpenak zehaztuko du zein epetan ez zaion pertsona horri baimen berririk emango espazio publikoa erabiltzeko.

Era berean, nahitaezko baimenik ez duten pertsonak oso arau-hauste larriak egiten badituzte, zehapena emateko ebazpenean finkatuko da zein epetan ez zaion pertsona horri baimenik emango espazio publikoa erabiltzeko, eta, nolana ere, epe hori inoiz ez da urtebetetik beherakoa eta lau urtetik gorakoa izango.

Edonola ere, beren baimenen babesean, arriskutsuak diren, bizikidetzak hankaz gora jartzen duten edota guztion interesaren aurkakoak diren jarduerak eta gehiegikeriak egiten dituzten pertsonen aurka, terrorismoaren alde, eta biktimen duintasunaren aurka doazen txartelak, ikurrak edota argazkiak erabiltzen dituzten horiei, baimena baliogabetuko zaie, eta/edo baimen berriak eskuratzeko gaikuntza kenduko zaie, eskumena duen agintariak zehatzen duen epean, eta epe hori ez da inoiz ere bi urtetik beherakoa izango. Hori gorabehera, horri dagokion zehapen-prozedura betearaziko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA.- Ordenantza hau betetzeko eta, orobat, interpretatzeko ardurak alkate-udalburuari dagokio; bera zuzenean jardungo du, edo baten bat eskuordetuko du. Era berean, alkateari dagokio Ordenantza honen aldarazpenak onartzea, hari buruzko artikulua, kapituluak edota tituluak ere gehituz edo ezabatuz, bai eta Ordenantza honetako eranskinen aldarazpenak onartzea ere, hain zuzen, honelakoak: karpek eta txosnek bete beharreko baldintzak, instalazio horiek muntatzeko ziurtagiriaren ereduak, behin-behineko edota aldi baterako ostalaritzako instalazioen higiene- eta osasun-baldintzak, elikagaien jarduera deskribatzeko osasuntxostenaren eredu-mota, aldian behingo azoka txikiak deskribatzeko planoak, aparkatzeko erreserbak deskribatzeko krokisa eta, halaber, egokitzat jotzen diren gainerako arau bereziak, eskaeren agiri-ereduak eta bestelakoak. Ordenantzaren egiten diren eranskin edo aldaketa horien berri eman beharko zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari.

BIGARRENA.- Ordenantza honetako I. eta XI. tituluetan jasota dauden aginduak osorik ezarriko zaizkie, titulua izanda edo titulurik gabe, Bilboko espazio publikoa erabiltzen duten pertsonen, bereziki, hiribilduko eta haren auzoetako jaietan erabiltzen badute. Bereziki, erabilerari dagokion udal-titulua edukitzeagatik gailentzen delako Udal honek pertsona jakin batzuekin kontuan izan behar duen zehatzeko araubide berezia ezarriko zaie.

HIRUGARRENA.- Indarrean dagoen udal-titulua eduki gabe Bilboko espazio publikoaren erabilera berezia edo pribatiboa eginez gero –esate baterako, prentsako kioskoak, ONCE elkartearen kioskoak, telefonoko kabinak, postontziak, estankoak, eta instalaziorik gabeko egunkarien kalez kaleko salmenta bezalako erabilera bereziak–, Ordenantza hau indarrean sartu eta 10 hileko epean arautuko dira. Ildo horretan, erabilera bereziaren edo pribatiboaren baimen edo emakida zuzena emango da, eskumena duen udal-organoak finkatzen dituen prozedurei jarraiki, horien xedea erabileren betebeharrak argitzea izango baita.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA.- Bigarren xedapen gehigarrian jasotako arautzea egin arte, Bilboko espazio publikoan izatez –hau da, titulurik gabe– egiten diren erabilera bereziak edo pribatiboak egongo dira indarrean, betiere, erabilera horiek Udal honek noizbait emandako udal-emakida edo baimen baten ondorio badira, eta, halaber, espazio publikoari dagokion emakida eskuratu zuen pertsonak –edo haren ezkontideak, inskribatutako izatezko bikotekideak edota seme-alabek– egiten bada, eta ez beste inork.

BIGARRENA.- BILBON “SEGWAY” GAILUA ERABILTZEA

“Segway” eta antzeko gailuak Bilboko espazio publikoan erabili ahal izango dira, baldintza hauek betez gero:

1.- Era guztietako bide publikoetatik ibili ahal izango da, batez ere espaloietatik, oinezkoentzat diren bestelako guneetatik (ibilgailuen zirkulaziorako diren kaleetako espaloietatik, oinezkoentzako kaleetatik, eta ibiltoki, plaza eta espazio libreetatik), eta bidegorrietatik ere bai. Galarazita egongo da ibilgailuen zirkulaziorako baizik ez diren galtzadetatik ibiltzea, trafikoa arloan indarrean dagoen araudiaren arabera segway bezalako gailuak ez baitira ibilgailuak. Bide horietatik ibiltzeko –bidegorriak alde batera utzita–, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Espaloietatik ibiltzean, ibiltzeko abiadurak ez du inoiz gaindituko 4 km/h abiadura, eta, nolatan ere, ibilerak bat egin beharko du oinezkoen joan-etorriarekin; bestelako bideetatik ibiliz gero, ez da inola ere 6km/h abiadura gainditu behar.

b) Ibiltzean, begirune osoa eduki beharko zaie oinezkoiei, eta, ildo horretan, ahaleginak egingo dira bat-bateko maniobrarik ez egiteko, sigi-saga ez gidatzeko, eta ausarkeriaz edo eragozpenak sortuz ez aurreratzeko.

c) Gailuaren erabiltzailea izango da ibiltzearen ondorioz pertsonak edo ondasunak hartu ahal dituzten kalteen erantzule bakarra.

2.- Bidegorrietatik ibiltzean, zorrotz bete beharko da bide berezi horiek erabiltzeko dagoen araudia.

3.- Bost edo lagun gehiagoko taldeek honelako gailuak erabiltzen badituzte ibilbide turistikoak edo bestelakoak egiteko, aurrez udal-baimena beharko dute, era horretan espazio publikoaren erabilera berezia egiten ari direlako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Udal-ordenantza eta araudi hauek indargabetuta geratuko dira:

1.- Kalez kaleko salmenta arautzen duen Ordenantza, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1996ko azaroaren 29an egindako akordioaren bidez onetsitakoa (BAO, 232 zk., 1996ko azaroaren 29a).

2.- Ostalaritzako terrazak jartzeko tokiko Ordenantza, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1990eko martxoaren 15ean egindako akordioaren bidez onetsitakoa, eta, orobat, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1998ko uztailaren 23ean (BAO, 177. zk., 1998ko irailaren 16a), 2002ko apirilaren 25ean (BAO, 92. zk., 2002ko maiatzaren 16a), eta 2007ko urriaren 24an (BAO, 222. zk., 2007ko azaroaren 14a) egindako akordioaren bidez aldatutakoa.

3.- Bilboko espazio publikoan litroak edatea galarazteko udal-jarduera arautzen duen tokiko Ordenantza, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2006ko irailaren 28an egindako akordioaren bidez onetsitakoa (BAO, 194 zk., 2006ko urriaren 10a).

4.- Era berean, indargabetuta geratuko dira Ordenantza honek xedatutakoaren aurka doazen edo kontraesanetan dauden udal-xedapen guztiak, batez ere, Hiria garbitzeko Udala Ordenantzak –Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1995eko abuztuaren 18an egindako akordioaren bidez onetsitakoak– eta Zirkulazio eta Garraioari buruzko Ordenantzak –Udalbatzaren Osoko Bilkurak 1999ko apirilaren 13an egindako akordioaren bidez onetsitakoak– jasotzen dituzten aginduak edo artikuluak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da, haren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta egutegiko 15 egun igaro ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 65.2. artikuluan ezarritakoa betez, 70. artikuluan finkatutakoarekin bat etorrira.

0 ZENBAKIKO ERANSKINA.- KARPAK JARTZEKO BALDINTZAK ETA MUNTATZE LANA

1.- KARPEK ETA TXOSNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK **GEHIENEZ 25 m² DITUZTEN KARPAK ETA TXOZNAK**

Su-itzalgailu bat izango dute, 21 A- 113 B eraginkortasuneko

25 m² eta 50 m² BITARTEKO KARPAK, alboetako itxiturarik gabeak

Su-itzialgailu bat izango dute, 21 A- 113 B eraginkortasunekoak

Sabaietako olanek suarekin izango duten erresistentzia M 2 izango da.

50 m² BAINO GEHIAGO DITUZTEN KARPAK, EDO 25 m² BAINO GEHIAGO eta alboetako itxiturak dituztenak

Su-itzialgailuak izango dituzte, 21 A- 113 B eraginkortasunekoak. Zehazki, su-itzialgailu bat egongo da 50 m²ko edo karpa irekiko zati bakoitzeko; edota 25 m²ko edo alboetako itxiturak dituen karpa-zati bakoitzeko.

Sabaietako olanek suarekin izango duten erresistentzia M 2 izango da.

Segurtasunari buruzko ziurtagiria aurkeztuko da, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia.

Muntatze-lanei buruzko ziurtagiria aurkeztuko da, teknikari eskudunak eredu ofizialari jarraiki sinatua.

Behe tentsioko instalazio elektrikoaren ziurtagiriaren kopia ere aurkeztuko da.

2.- KARPAK ETA TXOSNAK MUNTATZEKO ZIURTAGIRIAREN EREDUA

Ikuskizun Publikoei eta Jolas Jardueri buruzko 4/1995 Legeak 15. artikuluan ezarritakoari jarraiki, jolas-ikuskizunak eta jarduerak egiteko baliatu nahi diren aldi baterako instalazioak edo eramangarriak diren egiturak eta instalazioak baimentzeko, segurtasuneko baldintzak egiaztatu beha dira, **teknikari eskudunak egindako ziurtagiria** aurkeztuz.

**50 m² BAINO GEHIAGO DITUZTEN KARPAK, EDO 25 m²
BAINO GEHIAGO ETA ALBOETAKO ITXITURAK DITUZTEN
KARPAK MUNTZATZEKO ZIURTAGIRIA**

KARPA ETA/EDO TXOSNAK MUNTATZEKO ZIURTAGIRIA

----- jaunak/andreak, Arkitekto, Ingeniari, Arkitekto Tekniko edo Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialeko ----- zenbakiko elkargokidea denak, honakoa

ZIURTATZEN DU:

Karpa bat jarri dela, ... m x ... m tamainakoa (...m²), ... aldean, ... egunetan egingo den ekitaldirako, eta karpa horrek baldintza hauek betetzen dituela:

- Egiturako eta finkatzeko osagaiek ondo bermatzen dute jarritako karparen egonkortasuna eta edukiera, Eraikinaren Kode Teknikoaren "DB SE-AE. Egintzak eraikinean" agirian ezarrita dauden egintzak eta zamak aintzat hartuta. Egiturak ----- km/orduko haize-boladak jasango ditu gehienez.
- Karparen eta bestelako eraikinetako fatxadaren arteko tartea 3 m-tik gorakoa da.
- Sabaiko eta hormetako eguzki-oihalak edo olanak M2 kalifikazioa du suarekiko duen erreakzioari dagokionez, UNE 23727-1990 arauari jarraiki. Erantsitako ziurtagiria jarritako olanaren mota berekoa den olanari dagokio.
- Alboetako itxiturak dituzten karpetan, kanpora joateko irteerak erraz egin ahal izango dira barrualdetik. Suteen aurkako Segurtasuneko Oinarrizko Agirietan (DB SI 3) eta Erabiltzeko Segurtasunari buruzko agirietan (DB SU 1 eta 4) xedatutakoa eta, orobat, UNE 23.034 arauak finkatutakoa bete beharko dute.
- Behe Tentsioko Instalazio Elektrikoari buruzko Ziurtagiriaren kopia (ITC BT-34).
- Behar adina su-itzalgailu ditu, gutxienez 21 A-113 B eraginkortasunekoak direnak, eta era egokian jarrita daude, hartara, su-itzalgailu bat aurkitzeko ibili behar den bidea 15 m-tik gorakoa izan ez dadin.

Hau sinatzen duen teknikariak jakitera ematen du goiko alderdiak egiaztatu direla, eta egokiak direla Ikuskizun Publikoei eta Jolas Jardueri buruzko 4/1995 Legeak eskatzen dituen segurtasuneko baldintzak egiaztatzeko.

Bilbon,(e)ko(a)(r)en(e)an.

Teknikari eskudunaren sinadura

1. ERANSKINA.- JANARI ARLOKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK

1.- BEHIN-BEHINEKO ETA/EDO ALDI BATERAKO OSTALARITZAKO INSTALAZIOAK JARTZEKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK (OSTATU ITXURAKO JATETXEAK, TXOSNAK, TALDEKO JANTOKIAK ETA ANTZEKOAK, ELIKAGAIK, BARAZKI-FRUTAK ETA ESKULANGINTZAKO PRODUKTUAK SALTZEKO POSTUAK, ETA TXURROAK, GAZTAINAK ETA IZOZKIAK SALTZEKO POSTUAK)

OSTATU ITXURAKO JATETXEAK, TXOSNAK, ALDI BATERAKO TALDEKO JANTOKIAK ETA ANTZEKOAK

OSASUN BALDINTZA TEKNIKOAK

Aldi baterako bi establezimendu-multzo bereizten ditugu, eta bakoitzak osasun-baldintza tekniko desberdinak bete beharko ditu:

A) TXOSNAK ETA ANTZEKOAK: establezimendu hauek haien prestakuntzak mugatzen dituzte, gutxi eskuztatuta dauden eta osasun aldeko arrisku txikikoak diren edariak eta jakiak baizik ez baitituzte saltzen, esate baterako:

- Ogitartekoak edo pintxoak, produktu hauekin eginak: txorizoa, txistorra, odolostea, bacona edo hirugiharra, solomo onduta, hanburgesa, saltxitxa, jaki hotzak, urdaiazpiko ondua, hegaluze, hegalabur eta sardinen kontserbak, gazta onduak edo erdi onduak eta antzekoak. Letxuga erabiliz gero, 4. sortakoa hautatuko da (hau da, poltsaratuta, garbituta eta zatituta).
- Tortillak edo arrautzopilak (arrautza pasteurizatua erabili behar da).
- Industria-prestakuntzako beste jaki ontziratu batzuk
- Aipatutakoen artean ez dauden beste gaiak saltzeko, osasun-zerbitzuekin jarriko beharko da harremanetan, berariazko baimena lortzeko.

Era horretako establezimenduek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte, 17. zenbakikoa izan ezik.

B) ALDI BATERAKO TALDEKO JANTOKIAK: haien prestakuntza mugatzen ez dituzten establezimendu hauek aipatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, 17. idatz-zatia ere bai.

OSASUN ARAUAK

- 1.- Sukaldeko langileek **Osasun Prestakuntzako Ziurtagiria** edukiko dute (Elikagaiak eskuztatze txartela zena). Jantziak garbi egongo dira, eta zeregin horretarako baizik ez dituzte erabiliko. Barran edo antzeko zerbitzuetan jarduteko ez da osasunaren arloko prestakuntza-egiaztagirik behar.
- 2.- Janari eta edariekin zerikusia duten jarduera guztiak (produktuak gorde, manipulatu eta saltzea) **teilatua duten instalazioetan edota etxoletan** egingo dira. Instalazio horiek **eguraldi txarretik babestuta** egongo dira; era berean, ondo babestuta egongo dira, jendeak jakiak gorde eta manipulatzeko aldeetara iristerik izan ez dezan. Zikinkerietatik, kutsatutako edo osasunaren kalterako izan daitekeen edozertatik behar bezain urrun egongo dira jarrita.
- 3.- Biltegiak, hozkailuak, manipulazio-guneak, lanerako lekuak eta antzekoak lan-bolumenari egokituta egongo dira.
- 4.- Janariak eta/edo edariak prestatzen dituzten establezimenduek (taldeko jantokiek, txosnek, ostatu itxurako jatetxeek...) iturriko ura eduki beharko dute **harrasketara**

eta/edo konketetara konektaturik, lan-tresneria garbitzeko, eta langileen eta instalazioaren garbiketarako, behar adina kopuru eduki ere. Garbiketarako gauzak ere edukiko dituzte (xaboi likidoa eta paperezko eskuoihalak). Harraskak eta/edo konketak jarriko dira sukaldean eta barran, erraz iristeko moduko tokietan. Janaririk prestatzen ez dituzten **txosnek**, hau da, ontziraturako edariak eta/edo jakiak zerbitzatu baizik egiten ez duten horiek, egun baterako ere jartzen ez badira, ez dute iturriko uraren hartunerik eduki beharko; aski izango da garbitzeko tresnak eta iturria duen bidoian ura izatea.

- 5.- **Lurzorua** leuna eta etengabea izango da, erraztatze eta garbitzeko erraza.
- 6.- **Jakiak prestatzeko azalerak** erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoak izango dira (formika, melanina edo altzairu herdoilgaitza...), eta ezin izango da egurrezkorik erabili. Ondo bereiziko dira janari gordinak eta higienizatuak, sukaldatuak edo prestatuak.
- 7.- Jendearentzako **edalontziak**, platerak eta mahai-tresnak erabilera bakarrekoak izango dira (erabili eta botatzekoak). Behin baino gehiagotan erabiltzekoak diren edalontziak, platerak eta mahai-tresnak erabili ahal izango dira bakar-bakarrik ontzi-garbigailua edukiz gero.
- 8.- Produktuak hozkailuan gordetzekoak badira, hozkailuak eduki beharko dira.

Janaria ezin da edari-hozkailuetan gorde; bestelako hozkailuak eduki behar dira, beren beregi janariak gordetzekoak.

Erreferentziako tenperatura:

- Hoztutako elikagaiak: 2° - 6° C.
- Izoztutakoak: -18° C-tik behera.

Oro har, **hozkailu-mota hauek eduki beharko dituzte:**

- Edarietarako hozkailua –botilategia–.
- Janari gordinerako edo higienizatu gabeko janarietarako (okela, hanburgesak, etab...) hozkailua.
- Higienizatutako edo kontsumitzeko prest dauden janarietarako hozkailua.

Janari gordinak eta prestatuak ez dira bata bestearen ondoan egongo, ez dira ukitzen egongo.

- 9.- Establezimendu hauek eskuratzen dituzten **lehengai** eta janari guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira: ontziraturako lehengaiak badira, **etiketak** edukiko dituzte; eta soltean eskuratutakoak badira, fakturak edo merkataritzako beste dokumentu batzuen bidez identifikatuko dira.
- 10.- Establezimendu hauek eskuratzen dituzten sandwichak, pintxoak, tortillak eta bestelako janariak behar bezala identifikatuta egongo dira: ontziraturako lehengaiak badira, **etiketak** edukiko dituzte; eta soltean eskuratutakoak badira, fakturak edo merkataritzako beste dokumentu batzuen bidez identifikatuko dira.
- 11.- Elikagaiak eta horiek jasotzeko ontziak ez dira **lurzoruaren gainean** jarriko, ez biltegitatzeko prozesuan, ezta manipulatzeko edo prestatzeko prozesuan ere.
- 12.- **Janariak gordetzeko eta manipulatzeko aldea** bereizita egongo da zerbitzu higienikoak dauden aldetik, eta, gainera, horretarako bakarrik erabili ahal izango da; beraz, ezin izango da balliatu lo egiteko edo dagokion eginkizunarekin zerikusirik ez duen beste ezertarako.
- 13.- Erakusgai jarrita dauden produktuak behar bezala babestuta egongo dira jendearengandik; horretarako, **erakusleihoak**, ontziak edo bilgarriak erabiliko dira. Beharrezkoa bada, erakusleihoa hozkailua ere izango da.

- 14.- Lanaldi bakoitzaren ondoren, esparrua garbitu eta desinfektatuko da, bai eta erabilitako tresna guztiak ere. Janariak behar bezala babestuta gordeko dira.
- 15.- Poltsak dituzten zaborrontziak eduki behar dira, **zaborrak eta hondarrak** botatzeko. Poltsak egunero botako dira edukiontzira, ondo itxi ondoren.
- 16.- **Salmenta-prezioak** agerian jarriko dira kartel batean, **ondo ikusteko** moduko tokian.
- 17.- Aipatutako alderdiez gain, **B ataleko taldeko jantokiek ondokoak eduki behar dituzte sukaldeetan:**
- Lurzorua leuna, iragazgaitza, etengabea eta garbitzeko modukoa izango da.
 - Iturriko ura, hotza eta beroa, harraskan.
 - Manipulatuzaileek bakarrik erabiliko duten konketa (harraska nagusitik berezita); pedalaren bidez edo beste sistemaren baten bidez eragingo zaio.
 - Janariak eta edariak gordetzeko biltegia egongo da, sukaldetik kanpo.
 - Aldagela egokia egongo da.
 - Sukaldean aireztapen egokia egongo da, bero, hezetasun eta kondentsazio handiegirik egon ez dadin.
 - Behin baino gehiagotan erabiltzekoak diren edalontziak, platerak eta mahai-tresnak erabili ahal izango dira bakar-bakarrik ontzi-garbigailua edukiz gero, eta, betiere, zerbitzuaren premiak betetzeko adinako edukiera badu, eta ontzi horiek erabiltzeak jendearentzako istripu-arriskurik ekartzen ez badute (esaterako, beira apurtzearen ondorioz).
 - Elikagaien Ikuskaritza Zerbitzuek osasun-arrisku handia dakarten janariak prestatzeko baimena kendu ahal izango du, horretarako arrazoirik egonez gero.
- 18.- Saltokia behar bezain **garbi, txukun eta atonduta** eduki behar da jarduera egiteko.

OSASUN ARLOKO BESTE ALDERDI INTERESGARRI BATZUK

- ~ **Hanburgesak:** behar bezala sukaldatuko dira, “ondo eginda” egon arte, hartara elikagaiek eragindako toxiinfekziorako arriskurik egon ez dadin.
- ~ **Barazki gordinak:** txosnetan eta antzeko guneetan, bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte barazki gordinak jatorri industrialekoak badira (garbitu, desinfektatu, zatitu, ontziratu eta etiketatutako letxugak eta barazkiak).
- ~ **Tortilla:** arrautza pasteurizatua erabiliko da tortillak egiteko, edo baimendutako industrietatik ekarriko dira (osasun-erregistroa duten horietatik).
- ~ Egunero-egunero kontrolatu beharko dira elikagaien hozkailuetako tenperaturak, eta **termometroa** eduki beharko da horretarako (erreferentziako tenperatura: 2-8° C).
- ~ Era honetako instalazioak jartzeko, egoki den **OSASUN MEMORIA** bete behar da.

ERREFERENTZIAKO ARAUDIAK

- ❖ Ikuskizun publikoak eta aisiako jarduerak arautzen dituen Udal Araudia (BAO, 1993-01-19).

- ❖ Prestatutako janariaren higiene-arauak, 3484/2000 ED, BAO, 2001-01-12.
- ❖ Elikagaien higieneari buruzko 852/2004 EE Erregelamendua.

NEKAZARITZAKO AZOKAK (ELIKAGAIAK, BARAZKI-FRUTAK ETA ESKULANGINTZAKO PRODUKTUAK SALTZEKO POSTUAK)

SUSTATZAILEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Sustatzaileak ondo zainduko du nekazaritzako azokan erakusten eta saltzen diren produktu guztiek osasun- eta kontsumo-arloan indarrean dagoen legeria bete dezaten. Hargatik, sustatzaileak aurrez finkatuko ditu nekazaritza edo abeltzaintzako elikagaiei oro har eskatuko zaizkien osasun-baldintzak, hala nola, produktua Osasun Erregistro Orokorraren bidez identifikatzeko eta etiketatzeko beharra, produktua zatikatuz gero iturria edukitzeko betebeharra, etab.

POSTU GUZTIEK BETE BEHARREKO HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZA OROKORRAK

- Elikagai guztiak, frutak eta barazkiak izan ezik, ondo etiketatuta eduki eta erakutsiko dira. Salmenta zatikatua egiten denean, jatorrizko ontzia etiketarekin gorde beharko da salmenta bukatu arte, salgaien legezko jatorria ondo identifikatuta egon dadin beti.
- Elikagaiak ez dira inola ere lurzoruaren gainean egongo.
- Ontziratu gabe eta kontsumitzeko prest dauden elikagaiak jendearengandik ondo bereizirik jarriko dira ikusgai, erakusleihen edo antzekoen bidez. Alde batera utziko dira frutak eta barazkiak.
- Saltokiak du ardura elikagaiak mantentzeko eta hozteko etiketan agertzen diren baldintzei eusteaz, hala garraiatzean nola erakusleihoan biltegitartean. Hozkailuek behar adinako edukiera izango dute, eta termometroa izango dute kontrolatzeko. Oro har, erreferentziako hozte-tenperatura 0°C eta 8°C bitartekoa da.
- Ontziratu gabeko elikagaiak prestatzen eta/edo saltzen dituzten manipulatzaileek manipulatzaileen agiria edo osasun-prestakuntzako ziurtagiria eduki beharko dute.
- Langileek jantzi egokia eramango dute lanean, janariak prestatzean; jantzi hori horretarako baizik ez dute erabiliko, eta ahal dela zuria izango da.
- Langileek beren garbitasuna zainduko dute eta arropa garbiak erabiliko dituzte; jarduerarako behar dituzten tresnak ere garbi egongo dira beti.
- Janaria manipulatu den edo janaria ukitzen duen azalera erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoa izango da.
- Eskaintzen diren janarien eta edarien salmenta-prezioak agerian jarriko dira kartel batean, ondo ikusteko moduko tokian.
- Era berean, kartel bat jarriko da ikusgai, saltokiko arduradunaren izenarekin, helbidearekin eta, hala behar denean, produktuen jatorriekin.
- Saltokia behar bezain garbi, txukun eta atonduta eduki beharko da jarduera egiteko.
- Elikagaiak zatika saltzen badira, saltokiak instalazio egokiak eduki beharko ditu higie zuzena izateko: iturriko ura eta hustubidea duen harraska, edota iturria duen ur-biltegia, edukiera aski duena, eta hustubide gisa pertz bat duena; horrez gain, garbitzeko tresnak (xaboia eta paperezko eskuoihalak).

**BALDINTZA BEREZIAK. BALDINTZA OROKORRAK BETETZEAZ GAIN,
TANKERA HONETAKO INSTALAZIOEK ARAU HAUEK BETE BEHARKO DITUZTE:**

- **Ogia, ogi bereziak, euskal gozopila eta pastak dituzten saltokiak**
 - ✓ Ogia eta ogi bereziak (arto-ogia, etab.) banaka bildu beharko dira, eta bilgarrian informazio hau jaso beharko da gutxienez: izen soziala eta helbidea.
 - ✓ Euskal gozopila eta gozogintzako produktu guztiak ontziratu eta etiketatu behar dira.
- **Hestebeteko saltokiak**
 - ✓ Produktuak ondo babestuta egongo dira, kontsumitzaileengandik bereizita, erakusleihu edo antzeko gailu baten bidez.
 - ✓ Produktu guztiek dagozkien etiketak izango dituzte.
 - ✓ Zatikatzea egiten den aldea ondo garbitzeko eta desinfektatzeko modukoa izango da.
 - ✓ Etiketan hozkailuan gordetzeko beharra jasota duten hestebeteak hozkailuan gorde eta erakutsi beharko dira. Hozkailuak behar adinako edukiera izango dute, eta termometroa ere izango dute; erreferentziako tenperatura 0°C eta 8°C bitartean egongo da.
- **Haragiko saltokiak**
 - ✓ Haragia merkaturatzeko, ontziratuta, hoztuta eta etiketatuta egon beharko du. Jatorrizko ontziak ez dira zatikatuko.
 - ✓ Hozkailuak behar adinako edukiera izango dute, eta termometroa ere izango dute; erreferentziako tenperatura 0°C eta 7°C bitartean egongo da.
- **Fruten eta barazkien saltokia**
 - ✓ Erakusleihoan dauden produktu guztiak osorik egongo dira, kalterik gabe eta hondatu gabe (alde batera uzten dira, usteldurak edo aldaketak izan dituztelako, kontsumorako gai ez diren produktuak), garbi, eta kanpoko ezohiko hezetasunik, eta usain eta zapore arrarorik gabe.

Era honetako instalazioak jartzeko, egoki den **OSASUN MEMORIA** bete behar da.

ALDI BATERAKO TXURRO DENDETARAKO OSASUN BALDINTZA TEKNIKOAK

- Ontziratu gabeko elikagaiak prestatzen edo merkaturatzen aritzen diren langileek elikagaien higienari buruzko **prestakuntzako ziurtagiria** eduki beharko dute (elikagaien manipulazailen txartela zena).
- Langileak, lanean ari diren bitartean, lanerako baizik erabiliko ez den kolore argiko **arropaz** jantziko dira.
- Produktuak gorde, manipulatu eta saltzearekin zerikusia duten jarduera guztiak **teilatua duten instalazioetan** edo etxoletan egingo dira. Instalazio horiek eguraldi txarretik babestuta egongo dira; era berean, ondo babestuta egongo dira, jendeak janariak gorde eta manipulatzeko aldeetara iristerik izan ez dezan. Zikinkerietatik, kutsatutako edo osasunaren kalterako izan daitekeen edozertatik behar bezain urrun egongo dira jarrita.
- Biltegiak, hozkailuak, manipulazio-guneak, lanerako lekuak eta antzekoak **lan-bolumenari** egokituta egongo dira.
- Manipulazio-guneetan iturriko ura eduki beharko dute harrasketara eta/edo konketetara konektaturik, eta estolderia-sarera doan hustubidea izanik, lan-tresneria garbitzeko eta langileak eta instalazioak garbitzeko, behar adina kopuru eduki ere. Garbiketarako tresnak (xaboi likidoa eta paperezko eskuoihalak) garbigarriak eta, oro har, garbiketa orokorra egiteko behar diren lanabesak egongo dira.
- Edateko ura erabili beharko da beti.
- Lurra erraz garbitzeko eta hondakinak (solidoak nahiz likidoak) ez pilatzeko modukoa izango da. Leuna, iragazgaitza, etengabea eta garbitzeko modukoa izango da.
- Janariak manipulatzeko edo erakusteko lekua material leun, inerte, ez xurgatzaileekin eginda egongo da, eta erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoa izango da (formika, melanina edo altzairu herdoilgaitza...); ezin da egurrezkorik erabili.
- Lanabesak material egokiz eginda egongo dira (altzairu herdoilgaitzez edo antzeko gai batez), eta garbi edukiko dira.
- Produktuak hozkailuan gordetzekoak badira, hozkailuak eduki beharko dira, edukiera egokikoak, eta behar adina eduki ere, bertan gorde behar diren elikagaiak gordetzeko. Gailu horien tenperatura termometro bidez kontrolatuko da; erreferentziako tenperatura 0° C eta 4° C bitartekoa izango da hoztutako janariarentzat eta -18° C-tik beherakoa, berriz, izoztutako elikagaiarentzat. Edari hotzak zerbitzatuz gero, hozkailu bereziak erabili beharko dira edarietarako, janariak gordetzekoak ez direnak.
- Poltsak dituzten zaborrontziak eduki beharko dira, zaborrak eta hondarrak botatzeko. Poltsak egunero botako dira edukiontzira, ondo itxi ondoren.
- Elikagaiak eta horiek jasotzeko ontziak ez dira lurzoruaren gainean jarriko, ez biltegiratzeko prozesuan, ezta manipulatzeko edo prestatzeko prozesuan ere.
- Erakusgai jarrita dauden produktuak behar bezala babestuta egongo dira jendearengandik; horretarako, erakusleihoak, ontziak edo bilgarriak erabiliko dira. Beharrezkoa bada, erakusleihoa hozkailua ere izango da.
- Establezimendu hauek eskuratzen dituzten lehengaiak behar bezala identifikatuta egongo dira: ontziraturako lehengaiak badira, etiketak edukiko dituzte; eta soltean eskuratutakoak badira, fakturak edo merkataritzako beste dokumentu batzuen bidez identifikatuko dira.
- Lan-jardun bakoitzaren ostean, esparrua garbitu eta desinfektatuko da; baita erabilitako tresna guztiak ere. Janariak gorde egingo dira.
- Eskaintzen diren produktuen salmenta-prezioak agerian jarriko dira kartel batean, ondo ikusteko moduko tokian.

- Janariak gordetzeko eta manipulatzeko aldea bereizita egongo da zerbitzu higienikoak dauden aldetik, eta, gainera, horretarako bakarrik erabili ahal izango da; beraz, ezin izango da baliatu lo egiteko edo dagokion eginkizunarekin zerikusirik ez duen beste ezertarako.
- Saltokia behar bezain garbi, txukun eta atonduta eduki beharko da jarduera egiteko.
- Establezimenduaren barruan, jendearentzako zerbitzu- eta aisia-gunea eta janariak gordetzeko eta manipulatzeko aldeak ondo bereizita egongo dira; janariekin arituko dira horretarako ardura duten langileak.
- Frijigailua toki egokian kokatuko da, eta sabaiak behar bezala paratuko dira, kondentsaziorik egon ez dadin.
- Debehatuta dago animalia- edo landare-gantzak erabiltzea; era berean, debehatuta dago gantz horiek baimendutako landare-olioekin nahastuta lortzen den nahasketarik, edo prestatutako produktuen olio errerik baliatzea.
- Establezimendua jartzeko lekua erabakitzeke orduan, kontuan hartuko da esparruaren lurrian ez dela ur-putzurik sortu behar.
- Era honetako instalazioak jartzeko, egoki den osasun-memoria bete behar da.
- **Galarazita dago txurro-dendaren kanpoaldean sukoiak diren materialak metatzea.**
- **Frijituzko jakien olio erreak**
 - Erabiltzen diren olioak eta produktuak goi-mailako kalitatekoak izango dira, eta produktu berriekin ordezkatu beharko dira, osasun- eta kontsumo-arloko arauak finkatzen duten garaian.
 - Kontzesiodunek ontzi egokia eduki beharko dute erretako eta baztertutako olioak biltzeko eta birziklatzeko; bestela, zerbitzu hori kontratatu edo adostu beharko dute horretarako dauden enprekin.
 - Guztiz debehatuta dago baztertutako olioak alderdiko saneamenduko saretik botatzea (isurbide edo estolderietatik), eta hala jokatuz gero isun larria jarriko da.

GAZTAINAK SALTZEKO ALDI BATERAKO SALTOKIEN OSASUN BALDINTZA TEKNIKO ORIENTAGARRIAK

1. Saltzen diren frutak (gaztainak) hondatu gabe egongo dira, baimendutako biltegi edo saltokietatik eramango dira, eta haien jatorria behar bezala egiaztatu beharko da, ontziaren etiketarekin edo dagozkion fakturak aurkeztuz.
2. Elikagaiak eta horiek jasotzeko ontziak edo zakuak ez dira lurzorua gainean jarriko, ez biltegitratzeko prozesuan, ezta manipulatzeko edo prestatzeko prozesuan ere.
3. Paperezko bilgarria berria izango da, eta toki garbian edukiko da gordeta (ez lurrean).
4. Poltsak dituzten zaborrontziak eduki behar dira, sortzen diren zaborrak eta hondarrak botatzeko. Poltsak egunero botako dira edukiontzira, ondo itxi ondoren.
5. Jendearentzako salmenta-prezioaren kartela jarri beharko da.
6. Titularra arduratuko da saltokia egoki zaintzeaz, behar den txukuntasuna eta apaingarritasuna izanda.

Jardueraren ezaugarriak ikusita, ez da **OSASUN MEMORIA** bete beharrik izango.

IZOZKIAK SALTZEKO ALDI BATERAKO INSTALAZIOAK

OSASUN BALDINTZA TEKNIKOEN LABURPENEA

ORIENTATZEKO BALDINTZA OROKORRAK:

1. Saltokiak sabaia izango du, eta ondo itxita edukiko da erabili gabe dagoen orduetan. Saltokiko azalera orokorrek eta laneko azalera eta erakusleihoak material sendoz eginda egongo dira, eta erraz garbitzeko modukoak izango dira.
2. Poltsa duten ontziak izango ditu, zaborrak eta hondakinak botatzeko, hala saltokiaren barrualdean, nola jendeak oro har erabiltzekoa den kanpoaldean.
3. Jendearentzako salmenta-prezioak kartel batean jarriko dira, toki agerian.
4. Lanaldia amaitzean, instalazioak garbituko dira.
5. Jarduera egiteko, ezinbestekoa izango da beti baldintza egokiak izatea antolakuntza, apaindura eta garbitasun aldetik.
6. Solteko salmenta denean, goikoaz gain, honako hau bete beharko da:

6.1. Saltokiaren barruan iturriko uraren zerbitzua egongo da, harraska edo konketa bati loturik, lanabesak garbitzeko, norberak bere burua garbitzeko eta saltokia bera garbitzeko. Konketan, garbiketarako gauzak ere edukiko dituzte (xaboi likidoa eta paperezko eskuoihalak). Salbuespen gisa, onartzen da edateko ura –iturrikoa izan beharrean– biltegi batetik eramatea.

Horrelakoetan, instalazioak ondokoak eduki behar ditu:

- Edukiera aski duen ur-biltegia, konketarako irteera gisa iturria duena. Materialak egokiak izango dira, eta ondo zainduta egongo dira. Urak edateko modukoa izan beharko du.
- Hustubidea edo erabilitako ura batzeko ontzia izango du.

6.2. Edukiontzi bat egongo da, azido zitriko edo tartarikoaren %1,5 duena, zerbitzuan erabiltzen diren lanabesak gordetzeko.

6.3. Solteko salmentarako erakusleho hozkailuak izango duen erreferentziako tenperaturak aukera eman beharko du plastikotasun- eta izozte-maila egokia lortzeko (-18, -12º C, izozki-motaren arabera).

6.4. Jatorrizko ontzia gorde beharko da beti, etiketa eta guzti, erabat saltzen den arte, hartara, izozkiak ondo identifikatuta egon daitezen.

6.5. Jendaurrean jarritako barkilloak edo olatak ondo isolatuko dira, erakusleho baten bidez.

6.6. Toki agerian jarritako kartel batean, datu hauek jasoko dira: izozki-lantegiaren izena eta helbidea, izozki-mota bakoitzaren bereizgarriak (kremazko, esnezko, landare-koipezko, edo urezko izozkiak, sorbetea, etab.) eta, gainera, jendearentzako salmenta-prezioak. Bestalde, kontsumitzaileek eskuragarri eduki beharko dute izozkien formula kuantitatiboa.

6.7. Langileek elikagaien osasunaren arloko prestakuntzako ziurtagiria eduki beharko dute.

6.8. Langileak, lanean ari diren bitartean, lanerako baizik erabiliko ez den kolore argiko arropaz jantziko dira.

ERREFERENTZIAKO ARAUDIAK

- ❖ Izozkiei buruzko Osasun Araudi Teknikoa, 618/1998 ED, BOE, 1998-04-28.
- ❖ Elikagaien higienerari buruzko 852/2004 EE Araudia.

2.- BEHIN-BEHINEKO EDO ALDI BATERAKO ELIKAGAIKO JARDUERAK JARTZEKO OSASUN TXOSTENA

	Establezimenduaren izena / Denominación del Establecimiento Titularraren izen-abizenak / Nombre y apellidos del titular: NAN / D.N.I. Harremanetarako telefonoak / Telfs. De contacto Azoka / Merkaturia / Jaia / Feria / Mercado / Fiesta Egunak / Fecha(s) Kokalekua / Ubicación
	ESKATZEN DEN BAIMENARI DAGOKION JARDUERA:
	Salmenta-mota (Adierazi dagokiona): Erakusketa eta salmenta bakarrik bai/ez Zatiketa-motaren bat egiten da..... bai/ez Txosnak eta ostatu itxurako jatetxeak (adierazi prestatzen diren janari-motak): Ogitartekoak (txorizoa, solomoa edo antzekoak) bai/ez Arrautza pasteurizatuarekin egindako tortillak..... bai/ez Sandwichak (barazkikoak eta antzekoak) bai/ez Bestelakoak (aipatu) Merkaturatutako produktuekin zerikusia duten saltokietan (aipatu janari-mota –adibidez, gaztak, hestebeteak, kontserbak, etab– eta dagokion osasun-erregistroko zenbakia) Hala badagokio, erantsi produktuen zerrenda
	INSTALAZIOAREN DESKRIPZIOA (Erantsi memoria honi krokis bat, zerbait prestatzen den aldiro, eta zehaztu bertan harraskak, hozkailuak etab.).
	Ur-hornidura (ezinbestekoa da iturriko ura izatea janariak eta edariak prestatzen badira. Zatikitzea baizik ez bada egiten, berriz, aski da iturriko urez beteriko bidoi bat, iturria eta hustubide egokia duena, eta behar adina ur izatea) (Azpimarratu dagokiona) Ur-hornidurarik gabe (soilik ontziratutako gaiak saltzen badira) Udal-sareari lotutako harraska (iturriko ura) Iturria duen ur-bidoia Udal sareari lotutako hustubidea edo ontzian biltzea
	Hozkailurik badago? bai /ez (Nahitaezkoak da produktuak hala behar badute –ikusi etiketak–. Hozkailuak bereizi behar dira: batzuk janarietarako, beste batzuk edarietarako).
	Erakusleihoa (ezinbestekoa da produktuak ontziratuta gabe badaude, eta produktuak hala behar badu erakusleio hozkailua izango da) Ba al du?..... bai/ez Hozkailua da? bai / ez Lurzoruaren eta laneko azalaren ezaugarriak (Beti izango da erraz garbitzeko eta desinfektatzeko modukoa). Deskribatu Lurra: Laneko azalera:

	<p>Garbitzea, desinfektatzea (jardueraren arabera, azpimarratu zer dagoen) Garbigarria, desinfektatzailea Garbitzeko zapiak Papereko bilkariak (nahitaezkoa saltoki guztietan) Zabor-poltsak (nahitaezkoa saltoki guztietan) Manipulatzaileak, osasun-arloko prestakuntzaren egiaztagiriarekin (nahitaezkoa da, janariak prestatzen edo zatikatzen badira). Kopurua:</p> <p>Erreklamazio-orriak (nahitaezkoa). Jendearentzako salmenta-prezioen zerrenda (nahitaezkoa). OHARRAK</p> <p>.....</p>
	<p><i>Establezimenduaren ordezkartzan, aditzera ematen dut konpromisoa dudala apaindura publiko egokia izateko, janari guztia legezkoa dela eta adierazitako jatorria duela, eta emandako datu guztiak egiazkoak direla.</i> Data eta eskatzailearen sinadura</p>

IKUSKATZAILEAK BETETZEKO

A RELLENAR POR LA INSPECCION

Ikuskatzailea / Revisado por: **Data / Fecha**

Emaita: egokia, egokia baina baldintzekin, ezegokia
Con el resultado de favorable, Favorable condicionado, Desfavorable
(Adierazi neurri zuzentzaileak) / (Indicar medida correctora que proceda)

.....
.....
.....
.....

Sinadura eta zigilua / Firma y sello

**2. ERANSKINA.- KALEZ KALEKO SALMENTAREN PLANOAK
ALDIAN BEHINGO AZOKA TXIKIEN KOKAPENAREN PLANOAK**

- 1.- Boluetako azoka txikia
- 2.- Otxarkoagako azoka txikia
- 3.- Zorrotzako azoka txikia
- 4.- Plaza Barriko azoka txikia
- 5.- Areatzako loreen azoka txikia
- 6.- Santimamiko azoka txikia

3. ERANSKINA.- APARKATZEKO ERRESERBA BEREZIAK, GALTZADA ETA TRAFIKO ETENALDIAK, EDUKIONTZIEN KOKAPENA ETA BESTELAKO GAIK AZALTZEN DITUEN KROKISA

